

2020-03-27 EGUBAKOITZA / 854. ZENBAKIA / 20. URTEA
DEBAGOIENEN DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM



KORONABIRUSA



Inge Landaluze, GRS Debagoiena zaharren egoitzako arduraduna. GOIENA

KUTSATUAK

71 koronabirus kasu daude Debagoiengan; Arrasaten, 31; Elgetan, bat bera ere ez

AUDIENZIAK

Hedabideek jarraipen handiagoa dute; %40ko hazkundera izan du 'Goiena.eus' webguneak

LANA

Ezinbestekoak ez diren jarduerak etetea eskatu dute sindikatuek, eta mobilizazioak iragarri

EKONOMIA

Geldialdi egoerak sektore guztiak kolpatu ditu, eta etorkizunaz dihardute adituek



KALEAK ETA EGOITZAK DESINFEKTATZEN

Erabilera publikoko eraikinak eta kaleak desinfektatzen ibili dira suhiltzaileak, udal langileak eta kale garbitzaileak / 2

XABIER URZELAI

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



Julen Elorza: munduari bira, lasterkariaren atzetik

Xabier Aierdi soziologoari elkarrizketa

Hemen
GARBIKETAK

INOIZ BAINO GARRANTZITSUAGOA:
GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA


ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

SEAT ATECA

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70



Oñatiko San Martin zaharren egoitza desinfektatzen, Zubillagako suhiltzaileak, asteon. GFA

Birusa gehiago hedatu ez dadin

Bihar, zapatua, bi aste dira alarma egoera ezarri zutenetik eta asteon beste bi astez luzatzea onartu du Espainiako Diputatuen Kongresuak, apirilaren 11ra arte; asteon, desinfekzio lanak egin dituzte bailarako herri gehienetan eta zaharren egoitzetan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Koronabirusa iritsi zenetik, asterik gogorrena izaten ari da hau, kutsatu eta hildako kopuruari erreparatuta. Atzo, eguena, eguneratutako datu ofizialen arabera, dagoeneko 3.946 dira kutsatuak EAEn, eta Debagoienari dagokionez, 71 pertsonak dute COVID-19 gaitza. Hildakoei dagokionez, EAEn 180 dira dagoeneko; tartean, bi oñatiar eta aretxabaletar bat.

Modu berean, Iñaki Peña Debagoieneko Ospitaleko barneko medikuak jakinarazi du ingresatuta egon diren 12 gaixo sendatutaz eman eta etxera bidali dituztela aste honetan.

Konfinamendua apirilaren 11ra arte luzatuko da gutxienez Debagoienean ere, Espainiako Diputatuen Kongresuak eguaztenean hala onartuta -ez da aurkako botorik egon, baina EH

Debagoienean 71 kasu daude

Eusko Jaurlaritzak atzo, eguena, emandako azken datuen arabera, 675 kasu berri daude EAEn, eta, guztira, 3.946 dira baieztatutako kasuak. Debagoienean 71 pertsonak eman dute positibo. Arrasate da kasu gehien dituen herria, 31rekin; Aretxabaletan 13 kasu baieztatuta dituzte; Oñatin, 10; Bergaran, 8; Eskoriatzan, 6; Antzuolan, 2; eta Aramaion, 1.

Bestalde, EAEn 1.375 pertsona daude ospitale ezberdinetan; horietatik 26, Arrasatekoan.

Bildu, ERC, JxCat eta CUP abstenitu egin dira; jarduera ekonomiko guztia etetea ezinbestekoa dela defendatu dute. Horrekin lotuta, asko ari dira izaten Ertzaintza jartzen ari diren isunak, hain zuzen ere, konfinamendu neurriak ez errespetatzeagatik. Martxoaren 15ean kontrolak hasi zituztenetik 63 dira Ertzaintzak Debagoienean jarri dituen salaketak. Bergaran izan dira gehien, 23; Arrasaten 15 salaketa jarri dituzte; Oñatin, 10; Aretxabaletan, 9; Elgetan, 3; Eskoriatzan, 2; eta Antzuolan, 1 -martxoaren 25era arteko datua-. Halaber, herri bakoitzean udaltzainak ere ari dira isunak jartzen. Bergaran Udaltzaingoak, esaterako, 196 pertsona eta 231 ibilgailu zituen identifikatuta atzo, eguena, eta 36 isun jarrita. Oñatiko Udaltzaingoak, bestalde, 15 isun jarri dituela adierazi du.

Bestalde, Ertzaintzaren Arrasateko egoitza itxi egin dute, "larrialdi egoera amaitu arte". Beraz, beste berririk izan arte, salaketak Arrasateko Udaltzaingoan edo Bergarako ertzainetxean hartuko dituzte.

SINDIKATUAK PROTESTAN EZINBESTEKOAK EZ DIREN JARDUERA GUZTIAK ETETEA ESKATZEN DUTE

COVID-19 gaitzaz kutsatutakoen kopuruak gora egiten segitzen du, eta jarduera ekonomiko guztiz etetearen inguruan dagoen eztabaida gori-gorian dago.

Sindikatuak gogor jarraitzen dute borrokan, "ezinbestekoak" ez diren lan guztiak bertan behera geratu daitezen. Hala, ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta HIRU sindikatuak mobilizazioak antolatu dituzte gaurko, egubakoitza, "langileen osasunaren eta lanpostuen" defentsan. "Langileok haserre gaude gure osasuna arriskuan jartzen ari direlako", adierazi dute sindikatuok, ohar baten bidez. Era berean, Osakidetza mila langile inguruk erabateko konfinamendua ezartzeko eskaera sinatu dute, eta "funtsezkoa" ez den jarduera oro etetea.

LAB sindikatuko kide Xabi Llodio adierazi du "izugarriko arduragabekeriak eta erantzukizun ezak" ari direla gobernuak eta patronalak. "Hemen osasuna

izan beharko litzateke lehentasuna, eta haien artean ez da hala izaten ari, jarduera ekonomiko lehenesten dute, eta horrek kutsatze arriskuan jartzen gaitu. Urkullu lehendakaria berriz ere patronalaren mesedetan eta haren aginduetara, haren interesak defendatzen". Gaineratu du "bost axola" zaiela herritarren eta langileen osasuna. "Nahikoa da, oinarritzkoak ez diren zerbitzuak eten egin behar dira, ekoizpena gelditu egin behar da, eta oinarritzkoak diren zerbitzuetan prebentzio neurriak bermatu behar dira. Bestela, alferrik ari gara".

Jaurlaritzari dagokionez, oraingoz, behintzat, jarduera ekonomikoari eustearen aldekoa da. "Aktibitate guztia etenez gero, koma ekonomikoan sartuko gara. Baldintza hauetan, langileen osasunarekin bateragarriak diren jarduerak ekonomikoetan jarraitu beharra dago, oso nekeza litzatekeelako lantegiak hutsetik zabaltzea", azaldu du Iñigo Urkullu lehendakariak.

Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegiturarako sailburuak ere bat egin du ideia horrekin. "Oinarritzko zerbitzuak mantentzeko badira beste zerbitzu batzuk behar-beharrezkoak direnak; katean lan egiten dugu eta. Jarduera segurtasunez, baina mantendu behar dugu. Beterie, langileek arriskurik ez izateko segurtasun neurriak hartuta, baina produkzioari eusten saiatu behar dugu".

DEBAGOIENENKO OSPITALEA

**AUTOTIK ATERA
GABEKO PROBAK
EGITEN HASI DIRA
ARRASATEN ASTEON**

Debagoieneko Ospitalean arreta-gune espezifiko bat jarri dute, autotik atera gabe laginak batzeko. Astelehenetik dihardute COVID-19aren probetarako laginak autoetan hartzen, osasun-arloko arlo soziosanitarioko eta funtsezko beste zerbitzu batzuetako profesionaleri.

Bestalde, laugarren solairua, ama-haurren, ginekologiako eta pediatriako solairua, COVID-19 kasuak jasotzeko egokitzen hasi dira. Horren ondorioz, ez dute erditzerik artatuko eta horiek Zumarragako ospitalera bideratuko dituzte. Arreta pediatrikoa, ordea, Arrasaten zentralizatuko da, betiere, norberari dagokion osasun zentroan telefono bidez kontsulta egin ostean.

Berrantolaketa dagokionez, urgentsia kirurgikoetarako oheez gain, 88 ohe gehiago jarri dituzte ospitalizazio unitateetan, bi solairutan banatuta, koronabirusa duten pazienteendako. Halere, hasiera batean, behintzat, Arrasaten hartuko lituzketen gaixoak ez lirakeke larriak izango, Zaintza Intentsiboko Unitaterik ez dago eta. Beharrezkoa bada, gainera, eraikin zaharreko solairu bat ere egokituko lukete kasu hauek jasotzeko.

BAILARAKO ENPRESEN EGOERA

**GEROZ ETA ENPRESA
GEHIAGO ARI DIRA
IXTEN EGUN HAUETAN
DEBAGOIENEAN**

Arrasaten, esaterako, Gelma Fundazioak produkzioa etenda dauka eta enpresa itxita eduki dute, maiatzaren 4ra arte, gutxienez. Polmetasan, bestalde, normaltasunez lanean eta, ahal den kasuetan, etxetik ari dira lanean. Lantokian bertan, berriz, neurriak hartuta dihardute.

Bergarari dagokionez, Soraluze enpresan etxetik ari dira 70 bat langile -200 pasa dira, orotara-. Lantokian bertan, zerbitzu minimoerik erantzuteko bakarrik dihardute; hau da, harrera eta derrigor atera beharreko makina batzuk bukatzen. Lazpiur enpresa, berriz, etengabe ari da neurriak hartzen, egoerara moldatzeko.

Oñatin, Chinchurretan normaltasunez dihardute, ehuneko ehuneko, neurriak hartuta bada ere. 85-90 langile inguru dira eta horietatik hiru baino ez dira ari etxetik lanean. Hijos de Juan de Garay, berriz, aste honetan itxi dute, irekitzeko data zehatzik jarri barik. Enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea eskatuko du enpresak. Ulma Packaging-en, langile batzuek jarduera eteteko eskaera egin arren, lanean jarraitzen dute, neurriak hartuta eta bi errele-

botan. Natra Oñatin, ehuneko ehuneko jarraitzen dute, baina komertzialak eta bulegoetakoak, ahal duten guztiak, etxetik ari dira lanean egun hauetan.

Aretxabaletan, Mondragon Assembly-k etenda izan zuen jarduera pasa den asteon, eta asteon bueltatu dira, hainbat segurtasun neurri hartuta. Eskoriatzako Tesan: jardun jarraituan dihardute, eta ahal dutenak etxetik. Lehengai batzuen falta sumatzen hasi direla jakinarazi dute, baina, oraingoz, normal-

tasunez. Antzuolan, azkenik, Balzers-Oerlikon, esaterako, %90 ari da produzitzen, pieza batzuk falta dituztela eta. Langileen %15 inguru etxetik ari dira.

HAINBAT EKIMEN SOLIDARIO

**ARNASGAILUAK ZEIN
MASKARAK EGITEKO
HAINBAT EKIMEN
SORTU DITUZTE**

Ospitaleetan bizi duten egoera eta baliabide falta dagoela iku-

sita, EPIak, arnasgailuak eta maskarak egiteko hainbat ekimen sortzen ari dira Euskal Herrian, eta baita Debagoienean ere; Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, esaterako. Hala, koronabirusaren aurkako Euskadiko *maker* komunitatearen bitartez, zipriztinen aurkako biserak inprimatzen ari dira zenbait herritar 3D inprimagailuekin. Telegram sare sozialean *Coronavirus Makers* taldean jarraitutako argibideekin, osasun langileentzat maskarak egi-



Gure ikasleen ahotsan

**“Irakasleen eta ikasleen
harremana gertukoa da”**

Liemi Axpe (Arrasate, 20 urte) Industria Antolakuntzako Ingeniaritza graduko 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

**Non egin dituzu orain
arteko ikasketak?, baduzu
zaletasunik?**

Txikitatik biolina eta gitarra akustikoa jotzeaz gain, saskibaloia, euskal dantzak eta ingeleseko klaseetara joan izan naiz. Ikasketei dagokionez, Arrasateko Arizmendi ikastolan burutu ditut.

**Zergatik aukeratu zenuen
Industria Antolakuntzako
Ingeniaritza gradua?
Eta zergatik Mondragon
Unibertsitatea?**

Batxilergo teknologikoa egin nuen eta Ingeniaritza egitekotan, argi nuen hau zela gehien gustatzen zitzaidana. Karreran zehar ikasten diren gaiekiko interes handia nuen eta gradu honek dituen lan munduko irteerak ere gustatzen zitzaidan, aukera asko

baititu. Unibertsitatearen aukeraketari dagokionez, MU-ko metodologia asko gustatzen zitzaidan. **Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?** Aberasgarria eta oso positiboa. Giro ona daukagu ikasgelan eta irakasleen eta ikasleen arteko harremana gertukoa da. Irakasleek gure ibilbidearen jarraipen bat egiten dute eta egiten dugun esfortzua baloratzen dute. **Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Gaiak era dinamiko batean planteatzen dira eta horrela, ezagutzak gehiago barneratzeaz gain, kurtsoa eramangarriagoa egiten da. Sei hilera guztien bukaeran PBL proiektu bat egiten da, taldeka.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Metodologia. Askotan


talde lanean aritzeaz gain, lehenengo mailatik hainbat aurkezpen egiten ditugu kurtsoan zehar. Horrek, gure komunikatzeko gaitasuna indartzen du. Ikasi bitartean lanean hasteko aukera ere ematen digute.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual ereduari. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?

Fagor Ederlanen ari naiz Duala egiten. Mantenimentuko departamentuan nago eta 5S-en proiektu bat egokitu zait. 5S metodologiak, ordena, garbitasuna eta estandarizazioaren bitartez, efizientzia hobetzea du helburu.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Hurrengo urtean kanpora noa TFG-a egitera eta oraindik ez dut oso argi zer egingo dudun bueltan, baina ziurrenik Master bat.



Asier Zubizarreta aretxabaletarra, maskarak egiten. GOIENA

—>ten ari da, esaterako, Asier Zubizarreta aretxabaletarra. Dagoeneko egin ditu zenbait pieza, eta adierazi du DYakoak etxetik pasatzen direla horiek jasotzera.

Oñatiko #Maker komunitateak, bestalde, lagundu gura dutenei dei egin die. PLA filamentuzko materiala Oñatiko Udalak jarriko duela jakinarazi dute. Izena emateko aukera 688 88 65 19 telefonoan edo saretuz@onati.eus helbidean daukate herritarrek.

Mondragon Unibertsitatea ere batu da egitasmo solidario horretara eta 15 lagun boluntariok astero 700 bisera inguru fabrikatuko dituztela adierazi dute, 3D inprimagailuekin. Era berean, egoerara egokituko direla adierazi dute, "beharrezkoak diren piezak produzituz".

DESINFEKZIO LANAK HERRIETAN GARBITZAILEAK ETA HAINBAT GUNE DESINFEKATZEN HASI DIRA ASTE HONETAN

Koronabirusak sortutako egoera honen beste ondorio bat da

Debagoieneko hainbat herritan garbiketara bereziak egiten hasi izana. Oñatin, Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan, Antzuolan eta Elgetan, esaterako, brigadako langileek eta kale-garbitzailuek, herrietako kaleez gain, erabilera publikoko guneak garbitzen dihardute; semaforoak eta barandak, besteak beste.

NEURRI EKONOMIKOAK

841 MILIOI EUROKO FUNTSA JARRIKO DU EUSKO JAURLARITZAK EKONOMIARI EUSTEKO

Koronabirusaren ondorioei aurre egiteko, eta lehen aipatu moduan, jarduera ekonomikoa mantentzeko asmoz, "ekintza plan bat" aurkeztu du Iñigo Urkullu lehendakariak. Hiru arlotan banatuko da iragarritako diru sorta: 200 milioi osasun sistema indartzera bideratuko dira, 55 milioi familia eta egoera ahulean daudenei laguntzeko eta 586 milioi enpresa txiki eta ertainentzako.

Lehendakariak Gobernu Kontseiluaren ostean eskaini duen

prentsaurrekoan zehaztu du COVID19 programako neurriak "epe laburrekoak" direla; hau da, "momentuko egoerari erantzuteko". Epe ertainean, osasun larrialdi egoera igaro bezain pronto, "euskal ekonomia berpizten" lagunduko dutela azpimarratu du, *Euskadi Zutik* proiektuaren bidez.

ALDUNDIAREN EKINTZA PLANA

240 ZENTRORI ERAGITEN DIETEN 56 NEURRI BEREZI HARTU DITU DIPUTAZIOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak ekintza plan bat onartu du. Gizarte Politikako Sailean kabinete bat eratu dute "COVID-19aren transmisioak sortutako osasun-krisia kudeatzeko", eta organo honek lau helburu estrategiko ditu. Horiiek gauzatzeko, 240 zentrori eragiten dieten aparteko 56 neurri proposatzen dituzte, eta 7.000 pertsona artatzen dira bertan.

Plan horren baitan, hainbat neurri hartu ditu Diputazioak. Esaterako, adinekoentzako edo



Autotik jaitsi barik, koronabirus testak egiten Arrasateko ospitalean. DEBAGOIENEKO ESI

desgaituentzako zentroetan bizi diren eta beren etxetara behin-behinean lekualdatzea eskatzen duten pertsonen, bizilekua egokitzeko behar dituzten laguntza teknikoak emango dizkiete, bai eta familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa ere; hori guztia, egoitzan duten lekua galdu gabe. Horrez gain, senideekin bideo deiak egiten hasi dira adinekoen egoitza askotan.

Bestalde, adinekoen egoitza eta zerbitzuetan, suhiltzaileen laguntzarekin, egoitza batzuk desinfektatzen hasi dira, garbiketara zerbitzu "integral eta espezifikoa" baten bidez. Hala, Debagoieneko egoitza gehienetan asteon bertan hasi dira desinfektatze lan horiek egiten.

MANKOMUNITATEAREN OHARRA

EDUKIONTZIAK EGOKI ERABILTZEKO ESKATU DIE HERRITARREI MANKOMUNITATEAK

Debagoieneko Mankomunitateak hainbat ohar helarazi gura izan dizkie herritarrei, eta COVID-19ak sortutako egoeran bete beharrekoak gogora ekarri. Besteak beste, edukiontzi eta esekitoki inguruak "txukun" mantentzea "guztion ardura" dela dio oharrak: "Mesedez, ez utzi hondakinik lurtean". Eta hau ere bai: "COVID-19aren proban positibo eman duten edota beraiekin kontaktuan egon izanatik berrogeialdia ezarri zaien

herritarrek: ez dute etxean hondakin bereizketarik egingo eta hondakin guztiak errefusaren edukiontzietara bota behar dituzte ondo itxitako plastikozko poltsetan".

AZOKAK ZABALIK, NEURRIKIN

ARRASATEKO, BERGARAKO ETA OÑATIKO AZOKAK IREKITA EGONGO DIRA

Joan den asteburuan, Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko azoka plazak zabalik egon ziren, beharrezko segurtasun neurriak hartuta; horien artean, kokapena aldatuta. Asteburu honetan ere halaxe egongo dira. Arrasaten, azoka plaza zabalik egongo da gaur, egubakoitza. Bergaran, joan den astean Katabi plazan egin zuten arren, bihar barruan egingo dute. Oñatin, azkenik, kiroldegiko kantxa urdinean egingo dute azoka, bihar.

LANGILE BATEN TESTIGANTZA

"BABES BARIK ARI GINEN LANEAN; GUK LORTU BEHAR IZAN DUGU MATERIALA"

Lourdes Erostate debagoiendarra langilea da Debabarreneko adinekoen egoitza batean [izena asmatua da, anonimatu gura duelako]. Barruan bizi duten egoeraren berri eman dio GOIENARI. "Kasu positibo

"Beti pentsatzen dut hau amaitzean nola aurkituko dugun gure ama"

AMALUR GARITAONANDIA AMA EGOITZAN DAUKA

Amalur Garitaonandia aretxabaletarra da, eta bere amak alzheimerra dauka. Iazko uztailaz geroztik Aretxabaletako GSR egoitzan dago ama.

Zertan aldatu zaien egunerokoa zuen amari?

Gure ama gaixotasunaren nahiko fase aurreratuan dago. Ez gaitu ezagutzen eta berbarik ere ez du egiten. Berari ez zaio egunerokoa askorik aldatu koronabirusa dela eta. Beste egoiliar batzuk egongo dira beti senideen eta inguruko zain egongo direnak, eta haiendako zailagoa izango da egoera hau.

Berari baino gehiago, zuei aldatu zaizue egoera, ezta? Hala da, gu ari gara bera baino gehiago sufrizten. Beti pentsatzen dut hau guztia amaitzean nola aurkituko dugun gure ama. Oraingo, behintzat, guztia lehengo antzera dago, eta arduradunak esan digu



A.G.

momentuz ez dagoela kutsaturik egoitzan. Horrek asko lasaitzen gaitu, eta hori entzuten jarraitu gura dugu.

Zenbat aldiz bisitatzen zenuten ama lehen?

Egunero, asteburuak barne, bi aldiz. Aitak asteen zeharreko bisitak egiten zituen, eta asteburuetakoak, ahizpak eta biok. Murrizketak jarri zituztenean, txandatu.

Orain, nola egiten duzue?

Bisitak guztiz etenda daude, baina bideo deiak egiten hasi

gara. Ama dagoen moduan egonda, hango langileek momentu egokiena aukeratzeko guri deitzeko, esna edo begiak irekita daukan momentua. Arduradunek ere gertutasuna transmititzen digute eta gauzak errazten dizkigute. Aitak, bestalde, egunero deitzen du egoitzara. Momentuz, ez du ikusi gura, telefonoz esaten diotenarekin geratzea nahiago du, aurrez aurre ikusi arte. Egia da nik ere bideo deiaren ostean une txarra edukitzen dudala, baina merezi du.

Aitak nola darama hau?

Aita bera ere beste kaltetueta bat da egoera honetan guztian, bakarrik bizi delako. Egunero egiten diot ordu eta erdiko bisita, 80 urte dituelako eta konpainia behar duelako. Tristura ere gaitz txarra izan daiteke garai hauetan, eta horregatik joaten naiz beragana.

Distantziak mantenduta?

Oso umoretsua da, eta beti esaten dit nahiago duela egunero nire bisita jaso eta kutsatzeko arriskua hartu, bakarrik geratzea baino.



batzuk zeudela jakin arren, egoitzak ezkutatu egin du, langileen ahalik eta bazarik gutxien edukitzeko. Gainera, babes barik ibili gara lanean. Bakoitzak lortu behar izan du babesteko materiala, maskarak, eskula-

rruak, eta abar", dio. Haren esanetan, aurreko astean, kutsatuetako bat Donostiako Ospitalera eraman zuten, ezin zutelako egoitzan mantendu, eta orduan jakin zutela positiboak zela, Osakidetza jakinarazi

zuenean. "Zuzendariak onartu egin behar izan zuen. Gerora, jakin dugu beste positibo bat ere badagoela eta bederatzi langile etxean daudela sintomekin. Zuzendaritzak dio protokoloa betetzen ari dela, baina ez dira behar besteko neurriak hartzen ari, etxetik ekarritako materiala besterik ez daukagu babesteko. Kasu positiboak igotzen ari dira eta psikologikoki oso gaizki ari gara pasatzen, kutsatzeko arrisku handia daukagulako eta gero guk etxekoei kutsatzeko arriskua ere badagoelako".

Onartu duenez, egunero joaten dira pentsatuz ea zortzerik duten. "Diputazioko postua dutenek baja hartu dute dagoeneko, baina guk ezin dugu hori egin, bestela bota egingo gaituztelako, azpikontratu batekin gabiltza eta. Ahal duten guztiek baja hartu eta ihes egin dute hemendik, eta gu bakarrik geratu gara, baja hartu ezin dugunok. Adibide bat: nire lankide baten gizonari enpresak esan dio etxean geratzeko, badaezpada, nire lankideak bera kutsatzeko duen arriskuagatik. Era berean, nire lankideak lanean jarraitzen du".

"Zain egon beharko dugu, jakinda luzerako izan daitekeela"

MARIA AGINAGALDE ZEELANDA BERRIAN DAGO

Zeelanda Berrian oporretan zegoela harrapatu du krisi honek bergararra.

Ze egoera bizi duzu?

Astelehenean 48 ordu eman zizkiguten turistoi leku bat bilatu eta bertan konfinatzeko. Oso urduri jarri ginen, eta beste turista batzuekin Whatsapp talde batean sartzea lortu nuen. Horri esker, Auckland hirira etorri ahal izan naiz, eta hemengo etxe batean nago, hiru bartzelonarrekin eta Avilako beste batekin.

Arrasateko lagun talde bat badago han, zure antzera.

Bai, egon naiz haiekin, eta badakit haiek ere Aucklanden daudela. Asko eskertzen da gertuko jendea izatea.

Ze zailtasun dituzu Euskal Herrira itzultzeko?

Enbaxadara joan nintzen eta esan zidaten ahalik eta



SKYPE

azkarren etxera itzultzeko.

Beraz, hegaldiak bilatzen hasi nintzen, baina oso-oso garesti daude, eta, gainera, ez dakit ziur hegaldi hori hartuko ahal izango dudana ala ez.

Beraz, zer egin behar duzu?

Enbaxadak esan digu aberriratzek egongo direla, baina, europar asko gaudenez, apurka egingo dituztela, lehentasunen arabera. Zain egon beharko dugu, jakinda luzerako izan daitekeela.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Mabiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Uxaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com



Kontaktu fisikorik gabe egiten dira etxeko entregatzeak. L.Z.L.

Egoera zailenetan daudenendako martxan dira elkartasun sareak

Debagoieneko herri guztietan eratu dira premia larrienean daudenei begirako ekimenak. Kasu batzuetan, herri ekimenetik sortu dira, eta beste batzuetan, erakundeetatik. Boluntarioen zein erabiltzaileen ongizatea dute guztiek helburu

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA
Koronabirusak ez du ez adinik, ez jatorririk, ez maila sozialik, ez ezer bereizten. Eta gizarte honetan denok ez dauzkate baliabide berak, eta kolektibo batzuk beste batzuk baino egoera zaurgarriagoan daude.

Hori horrela, elkartasun sare ugari sortu dira, eta, egunero aldatzen den datua bada ere, 500dik gora debagoiendar daude halakoetan boluntario lanak egiteko izen emanda.

Sare herritarrak, udalekin

Oñatin, Bergaran, Antzuolan eta Aramaion udaletatik ari dira herritarrekin osatutako elkartasun sareak koordinatzen.

Oñatin 150 bat boluntario daude *Elkarzaintza sarean*. "Oraingoz, eskaera gutxi jaso ditugu, baina Udala 70 urtetik gorako herritarrei deiak egiten hasi da

eta hortik dezente jaso ditugu", azaldu du Anik Zubizarretak. Gainerako herrietan modura, elikagaiak edo botikak erostea eta hondakinak jaistea dira eskaera nagusiak. "Badira pare bat lagun bakarrik sentitzen direnak, eta boluntario baten deiak jasoko dituzte aurrerantzean".

Antzuolan 45 bat boluntario daude eta, oraingoz, hiru eskaera jaso dituzte. "Herri txikia da gurea eta badugu elkar zaintzeko ohitura. Esango nuke presuntasun hori badagoela taldea antolatu barik ere", adierazi du

EGUNERO ALDATZEN DEN DATUA BADA ERE, DEBAGOIENEAN 500DIK GORA BOLUNTARIO DAUDE

Beñardo Kortabarria alkateak. Whatsapp talde bat dute sortua eta modu horretan kudeatzen dituzte heltzen diren eskaerak. Libre edo gertuen dagoen boluntarioak egiten du zerbitzua, Goizper enpresak emandako segurtasun materiala erabilita.

Oñatin zein Antzuolan ez dago inongo diru transakziorik boluntarioen eta erabiltzaileen artean. Boluntarioek ordaintzen dute erosketak -Udalaren laguntzarekin- eta faktura egiten da. Guztia pasatutakoan kitatuko dira kontuak erabiltzaileekin.

Bergaran ere herriko eragileen inizatibaz eta Udalaren babesarekin sortu da *Bergara zaintzen* egitasmoa eta 200dik gora boluntariok dihardute. Hamalau bat erabiltzaile identifikatu dituzte, oraingoz.

Aramaioko laguntza sarean hamabost bat boluntariok dihar-

dute eta bizpahiru eskaera jaso dituzte egunotan. "Gertatu zaigu baita ere dendatik deitzea herritarren batek telefonoz eginga dako eskaera etxera eramateko", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Arrasate eta Aretxabaleta

Bi herrietan bina sare daude. Gazte mugimendutik sortu dute *Aretxabaleta zaintza sare herritarra*. Halako egoerei elkarlanean oinarritutako erantzun kolektiboak eman behar zaizkiela sinistuta ari dira 60 bat boluntario. Eremitan banatu dute Aretxabaleta, eta sortu ahala ematen diete erantzuna beharrei, boluntarioen gertutasunaren arabera. "Hasiara batean, erosketak egiten laguntzea, zaintza lanak... halakoetan laguntzea zen asmoa, baina eskaera bakarra jaso dugu, oraingoz, eta konturatu gara badaudela beste premia batzuk ere", azaldu du taldeko kide Gari Igartuak. Beste kolektibo batzuen beharrak dituzte jomugan. "Soldatarik gabe gelditu direnak, paperik gabe daudenak, diru iturririk ez dutenak... Behar fisikoak baino gehiago, behar ekonomikoak izan ditzakeen jendea". Hala, Caritasekin elkarlanerako urratsak egiten ari dira kolektibo horiengana ere heltzeko, eta funtzionamenduak zein izan beharko lukeen zehazteko.

Arrasateko sare herritarrean, berriz, hiru lan-lerro nagusi dituzte: erosketak egiteko eta hondakinak jaisteko lerroa, zaintza edo eskolako lanetan laguntzeko lerroa eta laguntza psikologikoarena. "Zabalik dauden komertzio txikiekin ere harremanetan gaude, zein premia izan ditzaketek aztertzeko", adierazi du taldeko kide Amaia Etxabek. "Aste honetan jarri dira martxan. Eskaera gutxi iritsi dira, baina bagoaz jasotzen".

Arrasateko eta Aretxabaletako udalak, berriz, Gurutze Gorriarekin ari dira elkarlanean. Eskoriatzako Udala ere bai. *Etxez etxeko laguntza zerbitzua* izeneko programa jarri du martxan Arrasateko Udalak. Aretxabaletako zein Eskoriatzako udale-

ESKAERA GUTXI IZAN DIRA AURREKO ASTEAN, BAINA POLIKI-POLIKI BADOAZ HELTZEN

tan ere gizarte zerbitzuetatik kudeatzen dute egitasmoa. Gurutze Gorriko ordezkaria da Jabier Igartua eta adierazi du egunotan hasi direla lehen zerbitzuak ematen. "Hiru udal horietan boluntario izateko 33 izen-emate izan dituzte, eta elkarlanean gaude Eusko Jaurlaritzako *Guztion artean* sarearekin. EAEko udal guztiek jaso dute sare honetan parte hartzeko eskaintza. Zenbait kasutan, baloratu dute gauza direla egitasmoa udaletik bertatik kudeatzeko. Hainbatekin izan gara harremanetan eta ikusten ari gara helburu eta prozedura berak erabiliko ditugula". Arrasateko Udalak garrantzia ematen dio zerbitzua profesionalen eskuetan egoteari eta segurtasun neurriekin emateari. "Boluntarioek formakuntza bat jasota, aseguru batekin eta beharrezkoak diren norberaren babeserako ekipoeekin".

Atzo, eguna, egin zituzten boluntario taldeendako azken formakuntza saioak, Gurutze Gorriak Elorregin duen egoitzan. "Lauko taldeetan jaso dituzte formakuntzak, egoerak eskatzen dituen segurtasun neurriak bete behar baitira", adierazi du Igartuak.

Aurreko astean ez zela eskaerarik egon gaineratu du, baina poliki-poliki badoazela iristen. "Udalek jasotzen dituzte eskaerak, eta guk bideratzen ditugu sarean dauden boluntarioen arabera. Ideia da boluntario bakoitzari erabiltzaile bat izendatzea, eta etxetik ahalik eta gertuen modu horretan eta ahal den neurrian desplazamenduak saihesteko. Boluntario horren egitekoa izango da sortzen diren beharrak artatzea eta horrekin batera egokitu zaion erabiltzailearen jarraipena egitea. Ideia da gutxienez astean behin dei bat egitea".

Elgeta eta Leintz Gatzaga

Elgetako Udala egoera zaurgarrienean dauden elgetarrekin jarri da harremanetan. "Jaso ditugun erantzunen arabera, momentuz, ez da behar laguntza gehigarririk", adierazi dute. Edozein behar izanez gero, herritarrek udaletxera deitu dezakete.

Leintz Gatzagan, berriz, Whatsapp taldea osatu dute herritarrek. "Herriko familia iaz guztiak daude talde horretan", adierazi dute Gizarte Ongizate Saitetik.



'GOIENA' ETA 'PUNTUA' ALDIZKARIAK, BAITA KORONABIRUS GARAIAN ERE

- Goiena Klubeko bazkideek jasoko dituzue bi aldizkariak etxean.
- Eta, bestalde, Debagoieneko kiosko eta bestelako egunkari saltoki, okindegi eta elikagai dendetan egongo da eskura *Goiena* aldizkaria.

Informazio gehiago:

☎ 943 25 05 05

📞 688 60 00 07

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Koronabirusaren aurka lehen lerroan lanean ari direnen testigantzak

Osasungintzako langileez gain, asko dira egun hauetan "bereziki gogor" lanean ari diren profesionalak. Neurri bereziak hartuta eta egoeraren ezohikotasunean, Debagoieneko profesional ezberdinek euren lanbidearen egunerokoa azaldu dute

Jone Olabarria BERGARA

Konfinamendu egoera ezarri eta herritarrak etxeetan egotera behartuta daudenetik, zenbait lanbide garrantzi berezia hartu eta ezinbesteko bilakatu dira gizartearen egunerokoan. Hain zuzen, mediku, erizain eta osasungintzako langileen kasuak ikusgarritasun berezia eskuratu du COVID-19 gaitzaren krisiak eztanda egin zuenetik eta hainbat dira egun hauetako egoera bereziak laneratu dituen profesionalak. Kasu horietako bat da, esaterako, Debagoieneko Ospitaleko erizain Leire Zubillaga Garcia aretxabaletarrarena; Madrilen zegoen masterra ikasten eta lanera etortzeko deitu zioten. COVID-19a duten hainbat gaixo dauden solairuan dago ospitalean, eta hango jardunaren berri eman du: "Madrilen hasi behar nintzen lanean, baina Osakidetzatik deitu zidaten eta hemen lagundu eta etxean egoera erabaki nuen. Madrillgo egoerarekin alderatuta nahiko ondo gaude hemen, bertan langileak eta materiala falta dira. Dena den, azken astean nabaritu dugu Debagoieneko Ospitalean ere positibo gehiago daudela eta lan karga ere handiagoa dela, baina, orokorrean, lasaitasun mezua helarazi nahiko nuke".

Adinekoen egoitzen egoera

Bereziki zaugarria den kolektibo batekin lan egiten dute adineko pertsonen egoitzetan ere. Bertan aritzen diren langileak "tentuz" ari dira lanean egunotan, jakin badakitelako kasu positiboak ekiditea ezinbestekoa dela. Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzaren kasuan, 170 plaza ditu eta bailarako egoitza handiena da. Bertako egoiliar guztiei zerbitzua ema-

teko 130 pertsona inguruk egiten duten bertan lan; mediku, erizain, laguntzaile, garbitzaile, eta abarren artean Inge Landaluze da egoitzako arduraduna eta "tentsio handiko" egunak izaten ari direla aitortu du: "Egia esan, tentsio emozional handiko unea da. Lehenengoa eta garrantzitsuena da ez duzula inor kutsatu nahi, ezta kutsatua izatea ere; bizitzak jokoan daude eta. Pertsona bakoitzaren portaerak oso ondorio zuzenak izan ditzake bai berarengan, bai familiaren-

gan, bai lankideengan edo baita, eta grabeagoa, zaurgarriengan ere".

Dena den, kasu positiboren bat agertuko balitz aurre egiteko prest daudela azaldu du: "Egoiliarren batek birusarekin lotutako sintomak baditu, berhala isolatzen da, konstanteei eguneroko jarraipena egiten zaie eta txanda guztietan eboluzioa aztertzen da. Hobera egin ezean, ospitalera bideratzen da, eta positiboa dela baieztatzen baldin bada, egoiliar horrekin harre-



Antonio Luque aretxabaletarra autobusean, atzo goizean, Arrasaten. J.O.

"Bederatzi bidaiatan, guztira, zortzi lagun igo ziren etzi autobusera"

ANTONIO LUQUE AUTOBUS GIDARIA, ARETXABALETA

"Gure eguneroko lanean asko igarri dugu jende gutxi dabilela, herritarrak etxeetan geratzen dira edo, behintzat, ez dira herririk herri ibiltzen. Lanera joaten diren gutxi batzuk ibiltzen dira goiz partean, baina apenas ez da inor igotzen autobusera. Eguaztenean, esaterako, bederatzi bidai egin nituen eta guztira zortzi lagun igo ziren autobusera bidaiaria horietan guztietan. Hartu dituzten neurrien artean, heren batera murriztu da bidaiariaren kopurua, bata bestearen ondoan dauden aulkia ezin daitezke erabili eta atzeko atetik sartu behar da. Autobusak ere desinfektatu egiten dira egunaren amaieran eta hiriburuetara edo aireportura doazen bidaiaria guztien ostean ere garbitu egiten da autobusa. Arduraz jokatu behar dugu denok".



Urtiaga, bere eguneroko banaketa lanetan. M.P.U.

"Egunotan ez gara etxeetara igotzen paketeak banatzera"

MARIA PILAR URTIAGA CORREOSEKO BANATZAILEA, OÑATI

"Oraindik ere pakete eta gutun ugari iristen dira gurera, baina nabaritu da beherakada bat. Gure kasuan, Oñatin zazpi langile gara eta txandakatuz joaten gara lanera, egun bat bai, egun bat ez. Horrela, gutxiago pilatzen gara lanlekuan eta segurtasun neurriak mantendu ditzakegu. Dena den, asko ibiltzen gara kalean eta oraindik ezjakintasun handia dago. Babeserako materiala izan badugu, baina gutxika-gutxika iritsi zaigu. Esaterako, etxeetan zerbait banatzen dugunean, lehen, goraino igo eta eskura ematen genuen; orain, ordea, atartean utzi edo igogailuan igotzen dugu banatu beharrekoa. Kaleko egoera ere arraroa da; ez dago ia ezer zabalik, jende gutxi ikusten duzu, eta, esaterako, komunera joan behar baduzu, ez duzu non egin, banatzen zabiltzala".




Roberto Kapelastegi ertzaina Eskoriatzan patruilatzen, atzo. R.K.

"Herritarrak, orokorrean, ondo ari dira neurri bereziak betetzen"

ROBERTO KAPELASTEGI BERGARAKO ERTZAIN ETXEKO ERTZAINA

"Orokorrean, herritarrak COVID-19a dela-eta hartutako neurri bereziak errespetatzen ari dira. Azken astean Leintz inguruan ibili gara patruilatzen eta jendea ondo dabil; erosketak egiteko, lanerako edo txakurra paseatzeko zeuden kalean. Ikusi izan dugu txakurra paseatzeko aitzakiarekin urrutiegi joan denik ere, baina ez da ohikoa. Eguaztenean, adibidez, kontrola egin genuen Arrasaten eta herritar guztiak lanera zihoazen, ziurtagiriarekin eta autoan bakarrik. Gure kasuan, materiala eskuratzeko zailtasunak baditugu; gehienbat, maskarak eskuratzeko. Bestela, patruilatze bi lagun joan behar dugu beti eta distantziak mantentzen saiatzen gara, baita eskuak eta materiala garbitzen, ezin dugu beste askorik egin gure burua babesteko".



Zubillaga, Debagoieneko Ospitalearen atarian, aurreko astean. GOIENA

"Oraingo, badugu ondo lan egiteko material nahikoa Arrasaten"

LEIRE ZUBILLAGA ERIZAINA, ARETXABALETA

"Azken astean dezente igo da Debagoieneko Ospitalean positibo eman dutenen kopurua, baina, orokorrean, nahiko ondo ari gara lanean. Materialari dagokionez, oraingo, badugu material nahikoa gaixoak artatzeko, baita langileok geure burua babesteko ere. Dena den, kontziente gara uneren batean material eskasia izango dugula; hortaz, zuhurtziaz jokatu behar dugu. Pazienteekin dugun hartu-eman bakoitzean babes material osoa jantzi eta gero kendu behar dugu, eskuak ondo garbitu eta erabilitako material guztia garbitu behar dugu. Lan karga handiagoa dela nabari dugu, baina azken astean pertsonal gehiago ari gara eta, orokorrean, giroa nahiko lasaia da. Bisitak murriztu egin dira ospitalean kutsatzeak prebenitzeko, eta gaixoendako oso gogorra da hori".



Enrike Perez, Elgetako plazaren desinfekzioa lanetan martitzenean. GOIENA

"Zaila da egoera honetan lan egin eta segurtasuna mantentzea"

ENRIKE PEREZ BRIGADAKO LANGILEA, ELGETA

"Udal brigadako langileak astelehenetik gabiltza desinfekzio lanetan; 07:30 bueltan hasten gara eta egiten ditugu plaza, zabalik dauden dendak, kutxa, kioskoa eta botika. Hori da lehenengo gauza. Gero, egiten ditugu barandak eta semaforoak. Urarekin eta libiarekin egindako nahasketarekin ari gara kaleak eta kaleko elementuak desinfektatzen. Gehien erabiltzen diren guneean eta kaleko altzarrietan egiten dugu lan hori. Geure burua babesteko maskara bereziak eta jantzi txuri batzuk erabiltzen ditugu, behin erabili eta botatzekoak direnak. Ea zenbat irauten duen egoera honek; arraroa da modu honetan lan egitea. Gu bi gara brigadan eta zaila da, gure lanaren ezaugarriengatik, segurtasun tartea mantentzea bion artean zenbait unetan".



Landaluze eguaztenean Aretxabaletako GRS egoitzan. GOIENA

"Bideo dei bidez ari gara familiekin harremana mantentzen"

INGE LANDALUZE GRS DEBGOIENA EGOITZAKO ARDURADUNA, ARETXABALETA

"Uste dut neurriak hartu direla eta horrek berebiziko garrantzia izan duela. Neurriak Gobernuak esan baino lehen hartu genituen, hori izan daiteke egun positiborik ez izatearen arrazoia. Duela 15 egun baino gehiago, egunean ordubeteko bisita batera mugatu zen, eta beti pertsona bera izan zedila saiatu; geroxeago, bisitak debekatu egin ziren. Oraingo, gure zentroetan egunetik egunera kutsadurarik gabe ari gara lanean, baina hau hasi besterik ez da egin. Langileak oso konprometitu daude eta eskuzabaltasun handiz ari dira jokatzeko. Familiaren papera ere oso garrantzitsua da, hasieratik ulertu dute egoera zein den, baina bideo dei eta telefono bidez ari gara haiekin harremana mantentzen".



Lean Garcia, asteon, atzean pisuaren ondoan, lankideekin dendan. L.G.

"Lehen egunak zoramena izan ziren; orain, lasaiago dago dena"

LEAN GARCIA SAN MIGUEL KOOPERATIBAKO LANGILEA, OÑATI

"Oñatiko jaki kooperatiba batean lan egiten dut, eta, hortaz, gure harremana zuzena da bezeroekin. Lehen egunetako zoramenean ostean, azken astean herritarrak lasaiago dabilta erosketak egiten. Lehen egunetan, komuneko paperaz gain, arroza ere oso azkar gastatzen zen. Gure biltegian baguen gehiago, baina hainbeste jende zebilen, ez genuen tarterik biltegian genuena dendara ateratzeko. Gure kasuan, ahal dugun heinean, babestuta lan egiten dugu; maskara, eskularruak, desinfekzio tresnak... Hala ere, gure tratua zuzena da bezeroekin. Adineko lagun asko etorri ohi dira gurera eta asko nabaritu dugu hauek etxean geratu direla; orokorrean, jendea arduratsua ari da jokatzeko. Topera ari gara lanean, baina talde giro ederra dugu, behintzat".

manetan egon diren langileei proba egiten zaie, eta sintoma txikiena agertuz gero etxean geratzen dira emaitza jakin arte".

Zerbitzuen garrantzia

Gaitzarekin aurrez aurre lan egiten du Maria Pilar Urtiagak ere. Correoseko langilea da Oñatin, eta bai bulegoan eta baita kalean ere egiten du lan, banatzaile. Kezkatuta azaldu da egoera honetan lanean aritzeagatik: "Sentsazioa dut oraindik ez dakigula oso ondo gaixotasun honek zer ekarriko duen. Gure kasuan, ezjakintasun handia dago; batzuek esaten dute kartoiari asko irauten duela birusak, paperean, plastikoan... Guk material horiekin egiten dugu lan une oro eta ez dakigu zenbateraino gauden arriskuan. Kaleetan lanean egoera oso arraroa da; ni auzoetan eta kalean ibiltzen naiz eta inor ez ikuste horrek ere beldurra ematen du". Supermerkatu eta dendek ere irudi ikusgarriak utzi dituzte azken asteotan eta bertako langileek aitortzen zuten "gainezka" ibili direla. Oñatiko San Miguel kooperatibako langileen kasua da. Lean Garcia oñatiarrak bertan egiten du lan eta bere 12 lankideekin batera bizitako egoera kontatu du: "Egun zailak izan ziren; hasierakoak, batez ere. Ez genekien nondik nora joango zen krisi hau eta herritarrek erosketa asko egin zituzten. Orain, dena baretu dela, jendea oso ondo dabil egoera hau eramaten. Gure kasuan, ez gara produkturik gabe geratu, baina biltegian genuen materiala ezin genuen dendara atera ez ginelako denera iristen".

Garbiketaren garrantzia ere agerian geratu da egunotan, kaleak, plazak, semaforoak edota barandak modu berezian garbitzeko neurriak hartu baitira. Helburua erabilera publikoko elementuak desinfektatzea da herrietan, produktu bereziak erabilita. Lan horretan ari dira bailarako herrietako udal brigadetako langileak eta baita suhiltzaileak ere; betiere, babes neurriak hartuta.

"ZAILA DA HORRELA LAN EGITEA; KALEAK HAIN HUTSIK IKUSTEAK BELDURRA ERE EMATEN DU"

Hemen bezalatsu ari dira egoerari aurre egiten beste herrialde askotan

Txinan eta Hego Korean egoerari laster buelta emango diotela ikusteko moduan daude egun, baina munduko beste herrialde askotan hemen bezala daude herritarrak, konfinatuta. Koronabirusa da hango eta hemengo hizketagai ia bakarra

Oihana Elortza OÑATI

Hemen bezala, etxean konfinatuta daude herritar asko munduko herrialde ezberdinetan. Hamar herrialdetako egoeraren berri jaso du GOIENAK, haietan bizi diren debagoiendarren ahotik. Herritarrak gobernuek ezarritako neurriak "nahiko ondo" ari direla betetzen diote denek, eta, aldi berean, neurri horiek nahikoak diren edo garaiz hartu dituzten da herrialde batzuetako eztabaida nagusia. Han eta hemen, baina, gai bakarra da nagusia: koronabirusa

sa eta COVID-19 gaitza, hain zuzen ere.

Neurri zorrotzak, eta garaiz

Txinan agertu zen koronabirusa urtarrilean, eta, bi hilabete geroago, badirudi birusa kontrolatuta eta egoera konpontzeko bidean dagoela. Berdin gertatzen da Hego Korean; kutsatu kopuru aldetik bigarrena izateko koronabirusari aurre egiteko eredugarri izatera pasa den herrialdean. "Uste dut ekialdeko herri guztiek hartu zutela neurri bera: probak ahalik eta az-

ITALIA

Ospitaleetarako diru eskean



ELI SAINZ
OÑATI

Supermerkatuak eta ospitaleak bakarrik daude zabalik Italian.

"Gasolindegia ere itxi egin dituzte", dio oñatiarrak.

"Askok diote lehenago hartu behar zituztela neurri zorrotzak, baina pixkanaka joan dira zerbitzuak ixten", gaineratu du.

Hiru aste daramatzate etxetik atera gabe, eta "nahiko gogorra" ari zaie egiten: "Batez ere, egoerak noiz arte iraungo duen ez dakigulako". Baina dio herritarrek ondo errespetatu dutela konfinamenduaren neurria eurak bizi diren zonan, behintzat. "Egoera Euskal Herrira ere heldu zenean, etxetik ahalik eta gutxien ateratzeko gomendioa egiten nien etxekoei, hemen lehenago hasi ginen-eta arazoa sufritzen.

Eli Sainz irakaslea da, eta, hemengo irakasleak bezala, etxetik ari da ikasleen jarraipena egiten eta eskolak ematen. Senarrak ere etxetik egiten du lan. Oñatiarrak gaineratu du telebista kontu korrante baten berri ematen dutela, maiz, Italiako ospitaleetarako dirua batzeko.

FRANTZIA

Medikamentua mintzagai



IÑAKI ENCINA
ESKORIATZA

Iñaki Encina eta bikotekidea musikariak dira eta dio konfinamendua ondo ari direla pasatzen Parisen, "ohituta" daudelako etxean lan egiten eta ikasten: "Gainera, Frantziako Gobernuak babestu egiten ditu artistak. Ez badugu lanik egiten, langabezia kobratzen dugu".

Egoera zein den ikusita, baina, Encinak uste du hango egoera ez dela hemengora heldu oraindik: "Kaleko egoera lasaiagoa da, baina hemen baimena dugu kirola egiteko, eta inoiz kirolik egin ez dutenak ere horretara ateratzen dira orain. Bestalde, herritar asko merkatuetara joaten dira erosketak egitera inolako neurririk hartu barik, ezer gertatzen ari ez balitz moduan". Beste konparaketa bat ere egin du Encinak: "Uste dut frantsesak ez direla hain solidarioak, individualistagoak direla".

Neurriez eta egoeraz baino gehiago, Raoult medikuak gomendatzen duen medikamentu bati buruz mintzo dira hango komunikabideak, eskoriatzarrak dioenez.

PUERTO RICO

Etixerako bidea hartuta



IBIS UGARTE
OÑATI

Koronabirusaren krisiak Puerto Ricon harrapatu du Ibis Ugarte, Psikologiako ikasle oñatiarra. "Alarma egoeran gaude hemen ere: supermerkatuetara eta farmazietara bakarrik atera gaitzke, baina egia da etxe inguruan ibiltzen bazara ez dizula inork ezer esaten. Gauean, ordea, bai: 21:00etatik 05:00etara oso zorrotzak dira eta isuna edo atxilotzea dira ondorioak".

Otsailaren azken egunean iritsi zen hara Ugarte eta ez du denbora askorik izan hango jendearekin egoteko, baina kontzientzia badutela iruditzen zaio. "Arduratuta ikusten ditugu, bai, eta egoeraren larritasuna dela-eta informatu gura izan gaituzte". Maiatzaren 11ra arte zuen asmoa han egoteko, gero Kolonbiara joateko. Orain, baina, lasaiago dago, etxera etortzea erabaki duelako: "Hegaldiak hartuta ditugu, baina bertan behera uzten dituzte asko, eta espero dugu dena ondo joatea. Hemendik Miamiara goaz lehenengo, handik Madrilera, eta, azkenik, Euskal Herrira. Zortedunak gara, alde horretatik".

FINLANDIA

Larrialdi egoeran



ANDER AMASORRAIN
BERGARA

Finlandian igotzen ari da COVID-19 gaitza duten herritarren kopurua, eta, beste herrialde batzuekin konparatuz gero egoera hobe izan arren, hango Gobernuak hasi da neurriak hartzen. Esaterako, kanpoan dauden herritarrei Finlandiara bueltatzeko dei egin die, turista zein ikasleei, eta etxera bueltatzerakoan hamabost egun irten barik egoteko esan die. Horixe gertatu zaie Ander Amasorrain bergararrari eta bere bikotekideari: "Londresen egon gara, eta handik bueltan etxean gaude orain. Baina konfinatuta egon arren, badugu aukera gureak diren etxe inguruko lurretan ibiltzeko, adibidez". Amasorrainek etxetik egiten du lan, enpresaren aholkua jarraituz, baina haurtzaindegiko irakaslea da bikotekidea eta hark ezin hori egin. "Larrialdi egoera ezarri du Gobernuak apirilaren 13ra arte eta ikastetxeak itxita daude. Ekitaldi publikoak eta mugikortasuna gutxitzea aholkatu dute. Jatetxeak itxita daude, bertako janaria etxera eramanez ahal da".

AEB


Kirola egitera irten daitezke



NAIARA AKIZU
ARETXABALETA

"Estatu bakoitzak bere neurriak hartu ditu, eta ez denek batera. Lehen zortzi kasuak egun berean ezagutu ziren eta hemen, Philadelphian, berehala itxi zituzten eskolak, adibidez. Gure umeei bi aste egingo dituzte etxean eta nik, astebete. Lantokian, baina, unibertsitatean, hilabete aurretik hasi ginen mezuak jasotzen kongresuetara eta ekitaldietara ez joateko", dio Naiara Akizuk.

Kaleetako giroa ere beste bat da. "Etxean egoteko agindua dugu hemen ere astelehenera, baina kalera joaten uzten dute, oinez, korrika edo bizikletan, distantziak mantenduz. Oinarrizko gauzen artean dago hori. Supermerkatuak eta farmaziak bakarrik daude zabalik eta lantegiak erabaki ezberdinak hartu dituzte". Akizuk dio ospitaleetan eten egin zituztela kontsulta presentzialak duela astebete. "Mugak daude, baina ospitaleetan egin ahal dituzte testak, eta kalean ere jarri dituzte tokiak test horiek egiteko. Uste dut maskarak-eta egiteko aukera handiagoa dagoela hemen".



karren egin, egoera zenbaterainokoa den ikusteko. Eta, horrekin batera, neurriak hartu aurre egiteko. Hori izan da gakoa egora kontrolatzeko", adierazi du Seulen bizi den Unai Urretxo musikari arrasatearrak. "Hemen ohikoa da maskarak erabiltzea eta denda, zerbitzu zein egoitzetan eskuak garbitzeko tokia egotea. Urteak daramatzate ohitura horiekin, eta horrela jarraitzen dute", gaineratu du.

Europa iparraldeko herrialdeetan, aldiz, Finlandian eta Herbehereetan, kasu, oraintxe

hasi dira egoeraz jabetzen, eta neurri batzuk hartzen hasi dira hango gobernuak, baina herri-tarregana ez da, oraindik, agindurik heldu, gomendioak bakarrik. Horren kontrara, koronabirusak hildako kopuru altua utzi duen Europako herrialdean, Italian, kexu dira, neurriak "beranduegi" hartu dituztelako.

Euskal Herriko egoerari begira

Ezohiko egoera honetara ohitzen ari dira, poliki-poliki, hango eta hemengo herritarrek, bakoitza bere etxetik edo egoera partiku-

larretik: dauden etxetik lanean, lanik ez dutelako etxean, etxera bueltatzeko ahaleginetan... Denak, hori bai, etxera, Euskal Herrira, Debagoienara begira. Hemengo senide eta lagunek egoera nola ari diren pasatzen jakin guran. Internet bidez hemengo komunikabideak irakurri jarraitzen dute batzuek hemengo egoera, baina Whatsapp bidez, gehienbat, denek. "Kua-drillako taldeko edo etxekoekin elkarbanatzen ditudan mezuekin jarraitzen ditut hango kontuak. Eta ikusita Euskal Herrian nola

zaudeten, guk ere neurriak hartu eta etxetik ahalik eta gutxien ateratzeko erabakia hartu dugu, oraindik ere posible den arren kalean ibiltzea", dio Utrecht-en bizi den Joseba Lizaranzu arrasatearrak. Gauza bera gertatzen zaio Eslovakian bizi den Joseba Agirre oñatiarrari ere: "Ez dago debekurik kalean ibiltzeko, baina etxean gelditzeko hautua egin dute herritarrek".

Txinara begira zeuden ia herrialde guztiak duela hilabete edo bi, hantxe sortu baitzen COVID-19 gaitza, eta Txinara

begira jarraitzen dute oraindik, normaltasunera bueltatzeko egoeran daudelako orain, bi hilabeteren ostean. "Apirilaren 6an hasiko dira, adibidez, DBH-ko ikasleak eskolan eta apirilaren amaieran HHko eta LHkoak", aipatu du Txinan bizi den Mikel Gantxegi bergararrak.

Koronabirusak sortutako ezohiko egoerak zenbat iraungo duen inork ez daki, ordea. Prebenitzeko neurriak hartu behar direla bakarrik. Hemen ere horixe da aholkua: ahalik eta gutxien ateratzea etxetik.

ESLOVAKIA

Hildakorik ez, momentuz



JOSEBA AGIRRE OÑATI

Eslovakiako egoera Euskal Herrikoa baino lasaiagoa dela dio Joseba Agirre oñatiarrak: "Zorionez, momentuz, ez da indar askorekin sartu. Datu esanguratsuenak da oraindik ez dago hildakorik koronabirusagatik eta egoera larrian daudenak ere gutxi dira. 200 kutsatu pasatxo daude".

Agirrek dio Gobernuak neurri zorrotzak hartu zituela lehen kasuak agertu zirenean. "Dendak, eskolak, jatetxeak, eta abar ixteko erabakia hartu zuen. Aireportuak ere itxi egin zituen, eta Eslovakiako mugak zaindu, bertakoei bakarrik sartzen utzita eta horiei bi asteko itxialdia egitera derrigortuta. Kalera irteteko debekurik ez dago, baina etxean gelditzeko dei egin dute herritarrek sare sozialen bitartez".

Otsailaren 29an hauteskundeak egin zituzten eta Gobernu aldaketa izan zen. "Albistegietan birusa eta Gobernu berria dira gai ia bakarrak. Neurriak lehenago hartu zituen, eta berriari tokatuko zaio egoera ekonomikoaz arduratzea".

ARGENTINA

Isun asko eta babesik ez



OLAIA GONZALEZ ARRASATE

Ushuaian harrapatu zituen koronabirusaren egoerak Olaia Gonzalez arrasatearra eta beste bi lagun. Ezin izan ziren beste herrialde batera joan, eta Buenos Airesera itzuli ziren, baina hiriburuan derrigorrezko itxialdia jarri zuten. "Ez genuen etxerik, eta zailtasunak izan genituen ostatu topatzeko. Orain, Kolonbiako lagun batzuen etxean gaude", dio.

Ikaslea da Gonzalez eta aholkurik jaso ez dutela dio: "Hiru euskaldun gaude batera, ikasleak gara, eta zalantzak izan ditugu bueltatu edo ez. Espainiako enbaxadak ez digu batere lagundu. Ikasketekin zer gertatuko den ere ez dakigu". Dendetan ez dutela babesik hartzeko baliabiderik dio: "Auzoko denda txiki baten egiten ditugu erosketak, eta ez dute eskularrurik, adibidez. Bezeroen arteko distantziarik ere ez da hartzen". Gaineratu du, baina, isun asko jartzen ari dela hango polizia, herritar askok neurriak ez dituztelako betetzen. Sare sozialen eta Internet bidez jarraitzen dituzte hemengo eta hango albistekak.

HERBEHEREAK

Gomendioak bai, arauak ez



JOSEBA LIZARANZU ARRASATE

Ikastetxeak eta ostalaritzako zerbitzuak itxita daude Herbehereetan, baina dendak zabalik. "Gomendioak eman dituzte batez ere beharrezko distantziak mantentzeko edo ez ibiltzeko lau edo bost pertsona baino gehiagoko taldeetan. Baina gomendioak dira, ez arauak", dio Lizaranzuk. Etxetik lan egiteko ere gomendatu dute.

Etxetik irten gabe pasa dute astea berak eta bikotekideak, "batez ere ikusita Euskal Herrian eta Italian, kasu, egoera zelan dagoen". Ez ateratzeko araurik ez egon arren, kaleak ohi baino lasaiago daudela ikusteaz harritu da arrasatearra: "Jendea kontzientzia hartzen da". Telebistako eta egunkarietako albisteetan koronabirusa da nagusi han ere, eta hemengoekin batera jarraitzen ditu. "Euskal Herrikoak senide eta lagun bidez jarraitzen ditugu. Aurrekoan, esaterako, *telepoteoa* egin genuen, nor bere etxetik". Ospitaleak oraindik ez daude gainezka, baina ari da igoera nabaritzen.

HEGO KOREA

Eskarmentutik ikasi dute



UNAI URRETZO ARRASATE

Hego Korean bizi da Unai Urretxo arrasatearra eta konfinamendu barik ari dira han koronabirusaren arazoa gainditzen. "Egia da nahi dugunean atera ahal izan garela etxetik, baina jende gutxi egin du hori. Jendea etxean gelditu da. Hemengo jendearen nortasunaren parte da besteei kalterik ez egitea, eta gurago dute etxean gelditu beste herritar bat kutsatu baino", dio.

2003an beste koronabirus bat izan zuten han eta orduko eskarmentuak lagundu egin diela uste du Urretxok: "Hasieratik itxi zituzten eskolak, eta bertan behera utzi kultur zein kirol ekitaldiak. Azkar hartu zituzten neurriak. Gu harritu egiten gintuen urtarilaren amaieran Txinan arazoa nola hazi zen ikusi eta Europa hain geldirik ikusteak. Berandu hartu dituzte neurriak European".

Bi aste barru ikastetxe guztiak zabalitzeko asmoa du Gobernuak, eta egoera zein den eta ze neurri hartu behar diren gogorarazteko kontzientziazio kanpainak egiten jarraitzen dute agintariek.

TXINA

Normaltasuna ez da bueltatu



MIKEL GANTXEGI BERGARA

Gabonak Euskal Herrian pasa eta urtarilaren hasieran heldu ziren Txinara, eta hantxe harrapatu zituen Gantxegi bergararra eta familia koronabirusak. Urtarilaren amaieran hasi zen han arazoa, eta oraindik normaltasunera ez direla bueltatu dio bergararrak: "Probintziak itxi egin zituzten bi astez, erabat, eta lantegi asko hiru astez egongo dira itxita, gutxienez. Egun, ni lanera joaten naiz enpresara eguneroko eta dendetan eta tabernetan sartu ahal naiz. Baina egoera ez da lehengo, oraindik herria ez da normaltasunera itzuli. Kalean tenperatura hartzen dizute, adibidez; autobideko ordainsarian esan egin behar duzu nondik nora zoazen, maskarak erabiltzen ditugu oraindik...". Gantxegik uste du hartutako neurriak eraginkorrak izan direla eta uste du ekonomiari laguntzeko planak egingo dituela laster hango Gobernuak: "Oraindik ez dute ezer esan, baina ziur nago barne ekonomia indartzeko planak egin eta laguntzak emango dituztela".

Baldintza zailagoetan lanean, premiazkoa den informazioa helarazten

Hedabideetako audientziek ikaragarri egin dute gora eta herritarrak informatzea premiazko ondasuna izaten jarraitzen du; hala ere, hedabideek baldintzatuta eta publizitatearen jaitsiera nabarmenak kolpatuta egin behar dute aurrera

Miren Arregi ARRASATE

Ez dira bizi izandako garairik onenak, hori argi dago. Osasun krisia dago lehen lerroan eta hari atxikita ekonomikoa, ahaztu barik etxe eta familia askotan bizi duten krisi emozionala eta gizarte eta sistema bezala ere bizitzen ari dena. Ez dira, ez, garai onenak, ez dago zalantzarik. Halere, txarretatik gizakiak badaki ona ere ateratzen eta oraingo honek egunero uzten ditu horrelakoak ere. Herritarren elkartasun oihua, txaloak, ekintzak; osasun langileak egiten ari diren lana; herritarren oinarrizko beharrak aseta egon daitezkeen lanean diharduten dendarri, garraiolari, garbitzaile, eta abarrena, eta baita, egunero eta une oro, herritarrei informazio fidagarria helarazteko lanean diharduten hedabideena eta haiek

herritarrengana iristeko ezinbesteko diren banatzaile eta kiosko saltzaileena. Alarma egoeran ere, kazetaritza premiazko jarduera da. Informazioa oinarritzko eskubidea da. "Legeak babesten du kazetaritza jardura. Baina ez dago legeak esan beharrik inportantzia jabetzeko", dio Goienako zuzendari nagusi Iban Arantzabalek. Informatuta egotea premia biziko ondasuna da, eta inoiz baino gehiago baloratzen da orain hedabideen zerbitzu publiko izaera, inoizko demandarik handiena dagoen unean. "Informazioa eta zerbitzua ematen ditugu. Ogia edo janaria erostea ez dago zalantzan, ezta hedabideen lana ere", argitu du Arantzabalek. *Berria* egunkari-ko zuzendari Martxelo Otamendientzat ere hedabideen lana lehen lerrokoa da, "kalitatezko

informazioa ematea da, interesgarria, gizarteari zerbitzu ona eskaintzea; eta arduraz jokatu, oso gai sentsiblea delako". "Ahalgina ikaragarria da", dio TOKIKOMeko Joxe Rojasek: "Kikildu eta murriztu beharrean, guztiak ari dira inoiz baino lan gehiago egiten, zerbitzu publikoko bokaziotik. Konpromiso handia sumatzen da komunikazio proiektuekiko eta, batez ere, bizilagunak informatuta mantentzeko zereginarekiko, eta hori ere luxu handia da". Premiazko ondasuna da kazetaritza eta horren beste adibide bat da, besteak beste, Italian erabateko konfinamendua iragarri dutenean ere, kioskoak izatea elikagai dendeekin eta farmaziekin batera zabalik jarraitzen duten negozio gutxi horietako bat.

Desinformazioaz informatzen

Hain zuzen ere, desinformazioaz informatzea ere bada une honetan informazio fidagarria eskaintzen duten hedabideen lana, *fake news*-ak eta sare sozialetan zabalitzen diren gezurrak inoiz baino presenteko daudenean. "Gure lana ere bada informatzea eta desinformazioa den hori salatu eta kontrastatu ostean bertsio berri bat ematea. Egiaren atzetik behar du ibili kazetariak, beti bilatzen ez bada ere", dio Arantzabalek. Ildo honetan, EITBk martxan du koronabirusaren inguruko gezurrei aurre egiteko zerbitzu parte-hartzailea. Erabiltzaileak Whatsappez ari dira

"BEHARREZKOAK GARENEAN, PUBLIZITATEAK ASKO EGIN DU BEHERA"

IBAN ARANTZABAL, GOIENA



Aldizkari eta egunkari mordoak Arrasateko Sagasta Juldain estankoa. IMANOL SORIANO

Hedabideen audientziek, gora

Hedabideek goia jo dute audientzietan dagokien koronabirusaren krisia pairatu duten herrialdeetan. Italian, esaterako, martxoaren 9tik 15erako astean esponentezko igo ziren hedabideen audientziak Interneten. Batez beste, %26,7 gehiago, aurreko astearekin alderatuta. Espainian, COVID-19aren krisiak piztu duen informazio interesa oso azpimarragarria da telebista kateetako magazin eta informatiboei dagokien. Euskal Herrira etorrira, hedabideek ikusi dute Interneteko bisiten zein audientzien igoera nabarmena. EITBren kasuan, hazkundea %40 ingurukoa ari da izaten, orokorrean, telebistan zein Interneten. Tokikomeko hedabideetako webguneetan, esaterako, %34 igo dira bisita kopuruak, eta bereziki dira aipatzekoak koronabirusak gehien kolpatu dituen eskualdeetako hedabideen datuak: *Alea*-n (Gasteiz) %189 gehitu dira bisitak, ia hirukoiztu egin du bere ohiko trafikoa, eta *Geuria*-n (Basauri) bisitak %142 gehitu dira. Goienari dagokionez, erabiltzaile eta ikusle kopuruek ere inoizko datuak onenak utzi dituzte bai sarean bai eta telebistan; sareko erabiltzaileak eguneko 12.000ra igo dira eta bisitak, berriz, 18.000ra. Otsaileko datuekin alderatuta, %39ko eta %40ko igoerak, hurrenez hurrez. Telebistako *Hemen Debagoiena* eta *Albistegia* saioetako bideoek sarean izan dituzten ikustaldiak ere nabarmen igo dira. Baita *Etetik plazara* tartekoak ere.

bidaltzen eurentzat susmagarriak diren testo, bideo, argazki edo audioak eta ezeztatu ahal izanez gero, argitaratu egiten dituzte.

Audientziek, gora

Ez dira, ez, garai samurrak eta herritarrek eten bako beharra dute informatuta egoteko. Koronabirusaren krisia hasi zenetik, hedabideen audientziek nabarmen egin dute gora, ez soilik Interneteko datuetan, baita ere irratietan, egunkarietan eta, bereziki, telebistetan. Audientziek gora egin dute, eta, noski, ez dira salbuespen tokiko hedabi-


deak. Martxoaren 3tik 23ra, Tokikomeko toki komunikabideen bateragunea-webguneek 1.504.200 bisita izan zituzten guztira, aurreko 20 egunetan baino %34 gehiago. Batez beste, webgune bakoitzaren bisitak %38 hazi dira aurreko 20 egunekin alderatuta. Joxe Rojasek, Tokikomeko IKT eta Komunikazio zuzendariak, argi du: "Nire ustez, egoera tamalgarri honek argi baino argiago utzi du sarritan bigarren mailakotzat jotzen diren toki komunikabideen garrantzia. Honelako egoera batean, hedabide handiek, halabeharrez,

"ARDURAZ JOKATU BEHAR DA, OSO DELAKO GAI SENTSIBLEA"

MARTXELO OTAMENDI, 'BERRIA'

"EGOERA HONEK ARGU UTZI DU TOKI KOMUNIKABIDEEN GARRANTZIA"

JOXE ROJAS, TOKIKOM



Txomin Madina aurkezlea Goienako platoon, Internet bidezko konexioa egiten. GOIENA

egoeraren maila orokor edo globalera jotzen dute: bateko eta besteko gobernuak zer dioen, mundu mailan zelan doazen gauzak... informazio hori behar-beharrezkoa da, baina baita gure egunerokoan erabakiak hartzerakoan baliagarri izango zaigun informazio praktikoa jasotzea ere". "Zer dagoen zabalik herrian, zer ez, udalek zer esaten duten, Mankomunitateak zer dioen, udaltzain eta ertzainek zer gomendatzen duten, isunak daudela...", erantsi du Goienako zuzendari nagusi Arantzabalek. *Berria*-ren kasuan ere "jende gehiago ari da orain erosten" eta webguneko bisitek ere nabarmen egin dute gora, dio Otamendik. EITBren kasuan, bestalde, albistegietako audientziaren hazkundea %40 ingurukoa ari da izaten, orokorrean, telebistan zein Interneten.

Publizitatea, nabarmen behera

Baina egoera ez da inolaz ere erraza. Hedabideek euren kontsumoa dispartatuta ikusi dute, publizitateak kezkatzeraino egin baitu behera. Espainiako prentsa, irrati eta telebista pribatuen elkargoak, esaterako, laguntza eskatu du publizitateak izandako jaitsiera itzelaren ondorioz hainbat eta hainbat medio arriskuan daudela argudiatuta. Italian, esaterako, krisia hasi zenetik hona esponenzialki igo da informazio medioen kontsumoa, baina behera jo dute publizitate bidezko diru-sarrerek. Hala, Gobernuak laguntza pakete bat onartu du, sektorea jasaten ari den publizitate beherakada arintzeko. Publizitatearen beherakadak kolpatu ditu euskal hedabideak ere. Goienako zuzendari nagusi Iban Arantzabal kezkatuta mintzo da horretaz: "Oso

kezkatuta gaude. Beharrezkoak garenean, apirilera aurrerakoa da publizitateak %50 egitea behera. Agendarekin eta ekitaldiekin lotuta zeuden publizitate guztiak erori dira, baita instituzionalak ere. Horri gehitu behar zaio krisi honekin lotutako zero publizitate sartu zaigula erakundeetatik, nahiz eta irismen handienekoak izan Tokikomeko hedabideok". *Berria*-ko zuzendari Martxelo Otamendik badu hilabete gutxian bizitza normalera bueltatuko garen esperantza: "Espero dezagun gure lanaren parametro nagusiak ere normalizatzea; publizitatea, batik bat. Azkenaldian baino erosle eta irakurle gehiago hurbildu zaizkigu bi asteotan, gure erronka da horiek gero ere gurean segitzea; egindako lanari balorazio ona ematen badiote. Komunikabideen kontsumoak gora egin du nabarmen, baina publizitatea desagertu egin da erabat. Guk ere sufrituko dugu hilabeteotako jaitsiera ekonomikoa, baina aurrera segitzeko adina indarra eta sendotasuna badauzkagu".

Kontsumoaren gorakada itzela, bestetik, bada iragarlea publizitatea egitera bultzatzeko arrazoietako bat. Goienako zuzendariarentzat ez da unerik txarrena horretarako. "Alarma egoerak sortutako beldurrak eragiten du uzkuetzea edo zantzati egonez gero publizitatek ez egitea, baina inoiz baino zifra altuagoak ditugu komunikazio kontsumoan", dio.

Lan molde berrietara egokitzen

Publizitatearen gutxitzea ez da hedabideek krisi honen ondorioz saihestu behar duten zailtasun bakarra. Lan egiteko modua nabarmen aldatu da, besteak beste, kazetariak etxetik dihardutelako. *Berria*-ren kasuan, besteak beste, "lantaldearen %90 etxetik ari delako. Talde txiki bat geratu da Andoingo erredakzio zentrolean, eta beste guztiak, gure lanak ahalbidetzen duelako, etxetik ari dira". Eta erantsi du ezinbestekoa dela lankideen jarrera proaktiboa, askoren kasuan, zaintzagatik oso

zail egiten zaielako biak batera ondo eramatea: telelana eta zainketa. EITBren kasuan ere, asko aldatu dira moduak. Irratian langile batzuk etxetik ari dira eta Interneten kasuan ia guztiak. Telebistaren kasuan, lantaldeak berregokitu dituzte eta kiroltako lankideak albistegietara batu. Batzuk telelana egiten ari dira eta 10 ekipo instalatu dituzte kazetariaren etxeetan bideoak bertatik egin ahal izateko. Ildo horretatik, Tokikomeko Rojasek balioa eman dio langileen "konpromiso handiari komunikazio proiektuekiko eta, batez ere, bizilagunak informatuta mantentzeko zereginarekiko".

Aldatu dena da, baita ere, kazetaritza egiteko baliabideen erabilpena. "Telebistarako bideo gehienak bideo dei bidez egiten dira, etxean dagoen horrekin. Goienako hainbat kazetarik ere etxetik egiten ditu bideo kolaborazioak, jende askok materiala bidaltzen du Goienara bideo edota argazki formatuan...", gehitu du Iban Arantzabalek. Horri gehitu behar zaio materialaren kudeaketan eta erabileran gehitu diren parametroak. "Ez gara autoan bi lagun joaten, ez gara elkarriketatuen metro eta dirira gerturatzen, pertikak darabiltzagu mikrofono moduan... eta eskularruak, xaboi eta gelak, alkoholdu desinfektatzaileak... Horrek dena zailtzen du. Pentsa, ekipo bakoitza erabili aurretik eta ondoren garbitu behar da".

GOIENA ere kalean

GOIENA aldizkaria modu berezian ari da banatzen larrialdi egoera honetan. *Puntua*-rekin batera, etxeetara, Goiena Klubeko bazkideei ari zaie banatzen -4.000 ale-, eta ez etxe guztietara, ohikoa den moduan. Egoera berezi honetan, banatzaileen segurtasuna bermatze aldera. Dena den, modu ohikoan jasotzen duten eta interesa dutenen eskura dago aldizkaria, doan hartzeko, Debagoieneko hainbat puntutan: kioskoetan, okindegiatan eta elikagai dendetan.

Haurdun dauden emakumeak artatzeko ere, neurri berriak

COVID-19a duten gaixoak artatzeko egokitze lanak egiten ari dira Debagoieneko Ospitalean. Ondorioz, erditze gelak itxi egin dituzte eta ama berriak Zumarragako ospitalera bideratu dira. Bestelako kontsultak emaginak egiten jarraitzen du

Amaia Aranegi ARRASATE

COVID-19ak eragindako aldaketak haurdun dauden emakumeengan eta umea eduki berri duten amengan ere izan du eragina. Izan ere, Debagoieneko Ospitalean gaixoak artatzeko egokitze lanak egiten ari dira eta anbulatorioan pertsonak artatzeko murrizketak egon dira. Hala ere, haurdun dauden amek kontsultak izaten jarraitzen dute. Joana Galan arrasatearra haurdunaldiaren 36. astean dago eta aste honetan azken ekografia

izan du: "Asteazkenean azken ekografia izan nuen. 12:00etan neukan, baina 09:00etara aldatu zidaten, jendea ez pilatzeko. Ekografia normaltasunez egin zidaten, baina momentu oro osasun-langileek prebentzio neurriak errespetatuz". Haurdunaldiaren azken txanpan dago, erditzerako prestaketa saioak bertan behera gelditu dira eta etxean dihardu ariketa desberdinak egiten: "Erditzeko aurreko klaseetan geundenok Whatsappen talde bat daukagu eta

emaginak egunero guk etxean egiteko ariketak bidaltzen dizkigu. Gainera, emaginarekin edozein momentutan telefonoz hitz egiteko aukera daukagu". Galani jada esan diote larrialdi bat ez izanez gero Zumarragan erditu beharko dela: "Gogorra izango da ospitalean familiaren bisitarik ez jasotzea. Aitonamonak ere irrikan daude biloba ezagutzeko, eta gogorra da familiarentzat ere. Gure familian lehena izango da eta bideo dei bidez ikustea zaila izango da".

Kontsultak, telefonoz

Nerea Lertxundik martxoaren 16an izan zuen umea Debagoieneko Ospitalean. Erditzean, emaginak eta laguntzaileak maskarak jarrita zeuzkaten, baina prozesua normaltasunez izan zen: "Nire kasuan, bigarren umea denez, uzkurdurak etxean jasan nituen eta ospitalera bost eta sei zentimetroko dilatazioarekin joan nintzen. Erditze azkarra izan zen". Erditze osteko gimnasia saioak ere bertan behera gelditu dira eta Lertxundik ere etxean dihardu ariketak egiten. Emaginarekin kontsultak, aldiz, telefonoz egiten ari da: "Nire kasuan, ez dudanez arazorik izan eta ondo nagoenez, telefonoz ari naiz emaginarekin hitz egiten. Umearen kasuan, astelehenean astebete bete zuen eta osasun azterketa egitea tokatzen zitzaion. Anbulatorioetik deitu ziguten esanez bertako bi pediatrak koronabirusarekin kutsatuta zedela. Beraz, Bergarara joateko aukera eman ziguten. Umea ondo ikusten genuen, pisua ondo irabazten zegoen, eta, umea arriskuan ez jartzeko, osasun azterketa ez joatea erabaki genuen.

Beste pediatra bat ekarri zuten Oñatiko anbulatoriora, baina ez eramatea erabaki genuen. Nire ama eta ni erizainak gara eta 15 eguneko osasun azterketara itxarongo dugu".

Lertxundiren kasuan dena ondo joan da, eta familiarik bideo dei bidez eta argazkien bitartez ezagutu du kide berria, eta haurdun daudenei positiboan pentsatzeko esan die: "Lasai egotea garrantzitsua da, ospitaleak egoerara moldatzen ari dira eta amatasun unitatea isolatuta dago".

"GOGORRA IZATEN ARI DA FAMILIAREKIN HARREMANA BIDEO DEI ETA TELEFONO BIDEZ IZATEA"

"ERDITU OSTEKO KONTSULTAK TELEFONOZ EGIN DITUT, EZ DUT ARAZORIK IZAN"

"Momentu hauetan gezur asko entzuten dira"

MIRARI BIKUÑA OÑATIKO OSASUN ETXEKO EMAGINA

COVID-19aren eraginez egokitze lanak egin dituzte Debagoieneko Ospitalean, eta ez dituzte erditzeak artatuko.

Zein da momentu honetako egoera?

Ama berriak Zumarragako ospitalera bideratuko dira, baina haurdunaldiko kontsultak mantendu egiten dira. Aurrera begira, beharbada, ezinbestekoak ez diren kontsultak bertan behera geldituko dira. Baina, momentuz, emaginarekin haurdunaldiko kontrolak edo ginekologoarekin bestelako kontsultak mantendu egiten dira.

Eta haurdunaldiarekin zerikusirik ez duten kontsultak?

Osakidetza programa bat dauka martxan, zitologiak egiteko, eta horiek, adibidez, bertan behera uzten ari gara. Eta beste kontsultak telefono bitartez erantzuten ari gara, eta, anbulatorioan ikusi beharreko zerbait dela ikusten badugu, anbulatoriora gerturatzeko esaten diegu.

Zein aholku ematen diezu haurdunaldiaren azken fasean dauden emakumeei?

Ariketa fisikoa egitea oso garrantzitsua da, eta etxean ariketak egitea gomendatzen

diet; gainera, deskonektatzea lortzen da horrela. Erditzea prestatzeko eta ondoren datorrenean prestatzeko material asko dago, eta horretan entretenitzeko gomendatuko nieke.

Haurdunaldi aurreko eta ondorengo gimnasia klaseak bertan behera gelditu dira?

Bai. Inprobisatu egin behar izan dugu. Momentu honetan, posta elektronikoz informazioa bidaltzen diegu. Aurrera begira, bideo-deiak egiteko aukera planteatzen ari gara.

Haurdun dauden emakumeentzako arrisku faktorea da COVID-19a?

Ez; momentu hauetan haurdun dauden emakumeek ez daukate arrisku gehiagorik. Azterketa desberdinak daude eta inon ez da ondorioztatzen haurdun egoteak arrisku gehiago duenik. Egia da azterketa gutxi daudela, baina, oraingoz, ez dago frogatuta horrelakorik.

Nolakoa da erditzea artatzeko protokoloa?

Erditzea berdina da, baina neurriak hartuko dira erditzea artatzen ari diren osasun-langileak babesteko. Desberdintasuna ama



MIRARI BIKUÑA

"HAURDUN DAUDEN EMAKUMEAK LASAITASUN OSOZ EMAGINAREKIN HITZ EGITERA ANIMATZEN DITUT"

kutsatuta egongo balitz izango litzateke. Kasu horretan, kutsaduraren maila aztertu beharko litzateke. Sintoma asko ez baldin baditu, erditu ostean umea amarekin geldituko da eta titia emateko arazorik ez da egongo. Nahiz eta kutsatuta egon, maskara batekin ama eta umea elkarrekin egongo dira. Amak sintoma asko edukiko balitu, zailtasunak izango balitu eta zainketa intentsiboetako unitatean egongo balitz, bai egongo litzateke amaren eta umearen arteko banaketa.

Ospitaletik irteterakoan, berriz, presentzialki harremana izaten jarraitzen duzue?

Emakumearen arabera da. Erditu ostean emakume batzuek ez dute arazorik izaten eta telefono bidezko harremana nahikoa izaten ari da. Beste batzuekin, adibidez, jaioberriek pediatrarekin astebeteko azterketa egiteko bidaia aprobetxatzen ari gara gurekin egoteko.

Zer esango zenieke haurdun dauden emakumeei?

Normala da urduri egotea, baina edozein zalantza izanez gero hauek argitzeko lasaitasun osoz emaginei deitzeko esango nieke. Gu beraiendako gaude, beraietzako sostengua izatea nahi dugu eta egoera hau ahalik eta lasaien eta ondoen pasatzea nahi dugu guk eman ahal diegun informazioarekin. Guk momentu honetan daukagun informazioarekin lasaitu ditzakegu. Gainera, momentu hauetan, gezur asko entzuten dira eta horrek ez du askorik laguntzen. Beraz, hauek guztiak konfirmatzeko edo gezurtatzeko, beldur barik dei dezatela. Gainera, beraien lasaitasunerako, entzuten diren gauza guztiakin deskonektatzea ere garrantzitsua da. Erditzearen prozesuari dagokionez, guztia berdina da eta ez daukate zertan arriskurik izan; beraz, lasaitasun mezua igorri nahi diet.

COVID-19 GAITZA

BURUKO MINA

FLEMAK

OXIGENO FALTA

SUKARRA

HOTZIKARAK

ZER EGIN DEZAKET EZ KUTSATZEKO?



EZ IRTEN ETXETIK



MUKIZAPIAK ERABILI



ESKUAK GARBITU



JENDEAREKIN KONTAKTUA EKIDIN

ZER EGIN DEZAKET ETXEAN EZ ASPERTZEKO?



'GOIENA' ALDIZKARIA IRAKURRI



GOIENA TELEBISTA IKUSI



'GOIENA.EUS'



'PUNTUA' ALDIZKARIA



'TTAP' ALDIZKARI DIGITALA



'ZUT' ALDIZKARI DIGITALA

GUREKIN KOLABORATU, BIDALI ZUEN BIDEOAK:

'BERRIAK@GOIENA.EUS' EDO WHATSAPP ETA TELEGRAM: 688690007

Bakarrik hiltzea, bi aldiz mingarri, eta dolua ere, baldintza berezietan

Beilatokian elkartzeko aukerarik gabe, hileta edo bestelako agur zeremoniarik egin ezinda, laztanak eta besarkadak falta... gertuko heriotzari bestela aurre egin beharra ere eragin du COVID-19ak; eta bakardadean hiltzera kondenatu du hainbat

Julen Iriondo OÑATI

Ezohikoa da egoera, ezohikoa bezain gogorra, egunotan senide edo lagun bat galdu dutenentzat, izan koronabirusaren ondorioz edo beste edozer dela arrazoi. Koronabirusagatik izanez gero, gertukoek hil hurren dagoenarekin egon ere ezin, haren azken momentuetan; motiboa beste bat izanez gero ere, ez beilatoki, ez elizkizun, ez bestelako zeremoniarik, gertu gertukoek agurra –zenbait kasutan–, ez besterik.

Bergarako Oroilore ehorztxeko Maribi Mujikak, egoera zertan den; aurreko domekakoak direla jarraitu beharreko protokoloan azken erabakiak: "Ez hiletarik, ez beilatokirik, inorentzat". Aurretik, COVID-19aren ondorioz hildakoekin jokatu behar zen horrela; domekatik, denekin: "Beste arrazoi batzuenatik hil direnen kasuan, lau pertsona egon zitezkeen beilatokian, gertukoek, baina domekatik aurrera denak sartu dituzte zaku berean: ezin dugu gorpua prestatu, ez dago beilarik, heriotzatik 24 ordu pasa aurretik eraman behar da gorpua erraustera edo hilobiratzerara".

Gertukoek ezin maite zuten hura nahi bezala agurtu, eta hori da latzena; baina beilatokiko kideek eurek ere ezin nahi luketen moduko samurtasunez hil berri den pertsona hori tratatu, ohi duten eta nahiko zuketene bezala. Baina, ahal duten heinean, ari dira: "Kandela batekin, musika bereziarekin...". Familientzat ere nolabaiteko kontsolamendu izan badaiteke...

Labur eta jende gutxirekin

24 ordu baino gutxiagoan, hildakoa hilerrira –edo erraustera–, beraz. Hiletarik ez –ez bestelako



COVID-19arekin hildakoetako baten oroimenez Oñatin jarritako kandela. INIGO MENDIA

zeremoniarik ere–; lur eman aurretik "zenbait otoitz eta kantu", besterik ez. Hala azaltzen du Oñatiko parroko Horazio Argaratek: "Ohitura handia dago oraindik, Oñatin, hildakoari lur emateko; oraintsu izan ditugun heriotzetan, familiako gutxi batzuekin eman diegu lur hilerrian. Ehorztxekoek ekartzen dute zerraldoa, hilerriko langileek sartzen dute barrura, kaperan bildu, denok sakabanatuta, zenbait otoitz eta kantu egin, eta lur ematera". Zerbait, behintzat.

Bi senideren testigantzak

Ama hil, eta "maite dituzunak besarkatu ezin, maite zaituztenak; ama maite zutenak"; etxekeez aparte, inorekin egon ezin: "Nire bizitzako asterik gogorrena izan da", dio 87 urteko ama galdu berri duen Arantxa Muñoz bergararrak.

Iktusa izan zuen amak, baina Donostiara ospitalera eraman, eta bi biriketean pneumonia zuela ikusi zuten medikuek; isolatu egin zuten, badaezpada: "Domekatik astelehenerako gauean ospitaleratu zuten, eta eguaztenera arte ezin izan nuen berarekin egon". COVID-19aren proban negatibo eman zuen egin zioten bi aldietan; azkenerako, egin ahal izan zion lagun: "Nik izan nuen agurtzeko aukera, berarekin egon nintzen azken unera arte; hitz egin nion, ukitu egin nuen, eskutik heltzeko aukera izan nuen, pribilegiatua sentitzen naiz. Badago jendea bakar-bakarrik hil dena, ez senitarteko, ez inor; ezin agurtu, oso gogorra da hori, oso hotza".

Pribilegioa pribilegio, baina, behin ama hil ostekoa izan da hotsasuna: "Ospitaletik erraustera eraman zuten ama zuzenean". Eta berak, besarkadak falta, samurtasuna: "Hori bai, telefonoz-eta egon gara jende askorekin, baina halakoetan aurrez aurrekoa behar da. Gogorra izan da jendearekin kontakturik eduki ezina, egoera berezi honetan, gainera; gogorra izan da, baita ere, amak elizan sartu ezin izana, oso sinestuna zen". Hau dena pasatzen denean egingo diote hileta, hori bai.

Gauza bera egingo dute Eider Gabilondok eta sendikoek –Ur handitan saioan eman du testigantza, astean–. COVID-19arekin Gipuzkoan positibo eman zuen lehen pertsona izan zen aretxabaletarra. Bera ondo dago –orain-

dik isolatuta–, baina aita galdu du, birusak jota –ez dakite alabagandik jaso zuen edo Txagorritxun, beste gaixotasun bat ere bai baitzuen–: "Bakar-bakarrik hil da aita, eta hori da gogorrena eta guri min handien egin diguna, niri eta familiari", dio. Bizitzako azken egunetan ezin izan zuen inor aldamenean eduki; eta bakardadean bihurtu zen hura ere errauts.

Esperantzarako zirrikitu bat

Ohiko bideetatik ezin, eta sufritzen ari direnei elkartasuna eta beroa adierazteko beste modu batzuk bilatu beharra azpimarratu du, berriz, erizaina izateaz gain doluan aditu ere baden Maite Urzainek *Hemen Deba-goiena* saioan. Horixe egin dute, esaterako, Oñatin, COVID-19arekin hil diren lehen bi herriki-deekin: balkoietara irten eta kandelak eta telefonoen argiak pizteko dei egin zuten.

Heriotza pairatu dutenen gertukoenei dagokienez, berriz: "Agian, guk izan behar dugu lagun horri edo senitartekoari deituko diogunak, beti euren nahia eta beharra errespetatuz; momentu horretan, ez soilik mezu bat bidali, baizik eta bideo dei bat egitea ondo dago, eta esatea eurekin gaudela, besarkadak bidaltzea", zioen Urzainek, bere burua besarkatuz.

Hau guztia bukatzen denean, norbanakoon balioetan, lehen-tasunetan, aldaketarik igarriko ote den da, aurrera begira, egin ahalko litzatekeen galderetakoa bat; baietz espero du Urzainek: "Egoera honek jarri gaitu pare pare gaixotasunarekin, pare pare heriotzarekin, eta, inoiz baino gehiago, bizitzari nahi diogu heldu. Nolako gogoia dugun denok kalera irten eta lehen ematen ez genituen besarkada horiek emateko, maitasun adierazpen horiek egiteko. Nik esperantza hori dut: hemendik irteten garenean, gure lehentasunak bizitzan apur bat orekatzea eta pisua jartzea benetan jarri behar dugun lekuan". *Ez utzi laztanik eiteke*, dio kantuak; bada, horixe.

EGOERA HONEKIN NORBANAKOON LEHENTASUN ESKALA ALDATZEA ESPERO DU MAITE URZAINEK

Arbe**INESA UGALDE IGARTUA**ARRASATEKO SARE
ARRASATE

Kaixo, Arbe: 1978ko azaroz zen Arrasatetik alde egin behar izan zenuenean, torturatik eta espetxetik ihesi. Hemendik irten eta Iparraldean errefuxiatu behar izan zenuen, GALen ekintzen mehatxupean, betiere. Garai hartan ohikoak baitziren iheslarien aurkako ekintzak, estradizio mehatxuak, bahiketak... Horrela bizi behar izan zenuen, 1981ean Ziburun atxilotu zintuzten arte. Ondoren, gose grebak eta protestak tarteko, askatu egin zintuzten. Askatasunak pare bat urte iraun zuen, 1984an berriro atxilotu zintuzten arte. Handik Venezuelara deportatu zintuzten eta ordutik ezin izan zara Arrasatera itzuli. 42 urte luze pasatu dira, beraz, Arrasatetik irten eta itzuli ez zarela. Arrasatetik Venezuelara 7.142 kilometro daude. Distantzia handia da senideek eta lagunek urte luze hauetan egin behar izan dutena zu bisitatzeko, horrek dakarren neke, sufrimendu, gastu... guztiarekin batera.

22 urterekin irten zinen Arrasatetik eta imajinatu ere ezin dut egin zer den hain gazte herritik irten behar izatea. Nik 24 ditut eta deportazioa zer den jakiteko ingurukoei galdetu behar izan diet. Orain badakit deportazioa Espainiako eta

Frantziako estatuek hartutako erabaki politiko bategatik leku jakin batean bizi beharra dela, eta hainbat eta hainbat euskal herritarri aplikatutako neurria izan dela.

Gaur egun, bederatzi euskal herritar zaudete Venezuelan, Kuban eta Cabo Verden barreiatuta eta gogoan izan beharrekoa da deportazio hauek inongo oinarri juridiko edo legalik gabe ezarri zirela. Baina, Euskal Herriak bizi duen testuinguru politiko berrian, egoera hau behin betiko desblokeatzeko garaia da. Izan ere, ez da izango Euskal Herrian bizikidetzeta eta normalizaziorik preso, iheslari edo deportatu bat existitzen den bitartean. Inoiz baino garrantzitsuagoa da elkartasuna saretzea eta bakartuta, isolamenduan, etxetik urrun... dauden guztiei idaztea.

Kaleak ezin ditugu bete, baina ziegak maitasunez betetzea gure esku dago.

M8 frontoian**LIERNI ZANGITU**
ARETXABALETA

Badira urte batzuk Martxoaren 8ko asteburuan Aretxabaletan frontenis txapelketa antolatzen dela; herriko zein inguruko emakumeei kirol hau praktikatzeko aukera paregabea eskaintzen zaie.

Honek guztiak dakarren antolakuntza eta lana handia da, eta, horregatik, idatzi

honen bitartez, urte hauetan egindako lan guztia eskertu nahi diegu Aretxabaletako kirol elkarteke kideei.

Batez ere, zuei, Agurtzane, Nerea eta Oihana, eskerrik asko!

Eskerrik asko egiten duzuen lan guztiagatik, guri, parte hartzaileoi, kirol hau ezagutzeko aukera emateagatik, frontoian hotzez pasatako ordu guztiengatik, emakumeen kirola sustatzeko egiten duzuen lanagatik eta Aretxabaletako frontoia kolore morez janzteagatik! Dagoeneko zazpi urte pasa dira lehen txapelketatik, eta gehiago izan daitezela! Etorkizuneko emakumeek ere frontoian elkartzeko aukera izan dezaten!

Bihotz-bihotzez, Aretxabaletako frontenis-zaleen partetik.

Fukushima eta Olinpiar Jokoak**JOSU GARITONANDIA**'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Olinpiar Jokoak direla eta, *normaltasun* itxura erakusteko kirol batzuk Fukushima inguruan egitekotan daude.

Hego Koreak eskatu du kirolarien elikagaiak Fukushimatik kanpokoak izan daitezela, eta, oso arraroa iruditu arren, gobernu batek Greenpeace-ri eskatu dio erradioaktibitate neurketak egiteko Olinpiar Jokoei dirauten denboran;

ikusiko dugu nola doazen Olinpiar Jokoak, baina garbi dagoena da 2011 ezker 49.619 pertsona daudela euren etxeetatik kanpo, eta auskalo noiz bueltako diren etxera; haiei galdetu *normaltasuna* zer den.

Oraindik energia nuklearra erabiltzen duten argindar-enpresei erosten diezula argindarra?

Gogorapenaren gabezia**PITER ENCINAS**

ARRASATE

Oso nabarmena da pertsona batzuek gogorapen eskasa dutela eta noizean behin gogorapen selektiboa ere bai; argudio hori erabiltzen dute gaiak nahasteko eta helburu jakin batekin "difamatzeko, zerbait geratuko da eta".

Nik gogoratzen dut: EH Bildu izan zen bakarria hondakinen arazoari aurre egin ziona, gizakiok sortzen dugun arazoari. Euskadin arazo horrek egunero 3.063.223,8 kilo sortzen ditu, gehi lantegietan sortzen dena. Gure azterna ekologikoa 3/1 denez, egungo bizimoduarekin hiru Euskadi behar ditugu.

Ahazkorrei datu batzuk gogoratu nahi dizkiet. Herri hondakinen portzentajeak: organikoarena %45; paper eta kartoiarena %22; ontzi arinena %15; eta beirarena %7. Datu hauek esaten digute errefusarena %10 eta %15 artean dagoela. Kopuru horrekin ez da ailegatzten erraustegiarentzat.

Horregatik, zuek, ahazkorrek, organikoa ez duzue birziklatu nahi eta arazo hori erraustegian, zabortegietan, ke eta errauts kutsagarrietan kokatu nahi duzue; hori da zuen soluzio magikoa. Arazo larri bat larriago bihurtzea.

Gogoratu behar dut Eusko Jaurlaritzaren jarrera Zaldibarkoa gertatu eta gero? Gogoratu behar dut gertatu baino lehenago langileek salatu zutela kontrolak nolakoak ziren? Gogoratu behar dut Jaurlaritzako Ingurumenaren sailburuordearen maila? Elena Monterok honela dio: "Zabortege horretan gauza txiki batzuk ez dira ondo egiten". Esaldi horrek 2002ra eraman ninduen; *Prestige*-ren *istripuaren* garaian Mariano Rajoyk esan zuen: "Salen unos hilillos que parecen plastilina".

Herri dirua gastatzeari dagokionez, Gipuzkoako Aldundiak 2010ean Gipuzkoan hondakinen *turismoa* egiteko 2.270.000 euro gastatu zituen. Zarrastelkeriaren beste adibide bat: 6.200 milioi euro kostatuko zaigu AHTaren erokeria; %50eko gailkostuarekin, kilometro bakoitza 30 milioi euro kostatuko zaigu.

Bukatzeo, EH Bilduren ereduarekin %80 inguru birziklatzen da; ahazkorren ereduarekin, %35 inguru.

Zein eredu nahi dugu?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!**GARBIÑE UBEDA**



ZABALIK

RAFA MUNGIA

Erantzunen unea

Komunikazioaren inguruan aurki daitezkeen aipuetatik, Albert Camusek esan, idatzi edo zabaldutako hau etorri zait burura azkenaldian, koronabirusaren harira: "Gizonen zorigaitz guztiak argi ez hitz egitetik datoz".

Koka dezagun idazle eta filosofo frantziarrak hitzok noiz esan ahal zituen: XX. mendeko garairik asaldatuenean, II. Mundu Gerrak eztanda egin eta etorkizuna ezbaian zegoela.

Zorionez, beste gizarte eta beste garai batean bizi gara, komunikatzeko tresna eta baliabide askorekin. Hori bai, funtsean pertsonak dira oraindik –eta hala bedi– ondo edo gaizki komunikatzen dutenak.

Eztabaidatu genezake komunikatzaile on batek behar dituen dohain edo trebetasunen inguruan, eta, beharbada, testuingurua ere kontuan hartu beharko genuke.

Koronabirusarekin gertatzen ari dena ezin aproposagoa dirudi azterketa sakona egiteko, baita

azalekoa ere, eta parez pare jartzeko hedabideetan ikusi eta entzun ditugun bi ordezkari politikoren jarduna.

AHOTS BEREZIA DUTE BIEK ALA BIEK, BEREHALA ATENTZIOA EMATEN DUTEN HORIETAKOAK

Etxekoari begira, Nekane Murga Osasun sailburuari


egokitu zaio aurpegia ematea gurean; estatuan, berriz, Fernando Simon medikua bilakatu da protagonista nagusi. Ahots berezia dute biek ala biek, berehala atentzia ematen duten horietakoak, eta ohituta gauden politikarien tonu lau eta moteletik urruti.

Behin gure arreta lortuta, edukira jo genezake, eta esandakoarekin hartzailearengan sortzen den erreakziora. Murgak zalantzak, ziurgabetasunak eta nahasmena sortzen ditu, eta, gainera, hizpide duen gaia ez duela kontrolatzen ematen du. Simonek, aldiz, bere tonu didaktiko eta epelarekin, galdera guztietarako erantzunak dituela uzten du agerian, zuzenak edo okerrak izan, erantzunak behar dituelako gizarteak.

Beste aipu bat bukatzeko: "Hiru aste behar izaten dira hitzaldi inprobisatu bat prestatzeko" (Mark Twain).

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Azkarregi

ANE LABAKA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Astelehen goiza da. Euria ari du goian behean. Asteburua kanpoan igaro duenaren karga daramazu begi-zuloetan; itzultzeko inolako gogorik ez duenaren presa. Inoiz ez zara azkar gidatu zalea izan. Oraingoan, hala ere, buruak azkartu du abiadura. Semaforo bateko itxaronaldia e-mail bat irakurtzeko baliatu berri duzu.

Zure pentsakizunak zu baino kilometro batzuk aurrerago doaz. Etxera iritsi eta ordubete soilik daukazu bileraren aurretik. Tarte

horretan labadora jarri behar duzu, laneko dei pare bat egin, bazkaria prestatu, semaforoan irakurritakoa erantzun...

Autoak irrist egin dizu bat-batean. Kontrola galdu duzu guztiz, beti dena kontrolpean nahi izaten duzun horrek. Mundua gelditu da. Arnasa eten zaizu. Tripak buelta eman dizu. Kontrako erreian bukatu duzu; lehen zentozenaren aurkako noranzkoan. Eskerrak ez zetorren beste inor. Errepide izkinan geratu zara emergentzia argiak piztuta.

Guztiaren lekuko izan den gizon aterkidun bat hurbildu zaizu.

Ondo zaudela esan diozu. Eta begiak lehertu zaizkizu. Lagun bati deitu diozu pasatakoa kontatzeko.

Lasaitzean, askoz ere mantsoago etxeratu zara.

Ez dakizu zer iraupen izango duen zugan gertatutakoak. Agian, bihar bertan itzuliko zara erritmo azkarregira. Bizitzan gelditzeko tarterik ez dagoenez, mila gauza batera egin nahian zabiltzala plateren bat lurrera jausi eta mila zati egingo zaizu. Edo min hartuko duzu etxeko altzariren baten izkinaren aurka. Agian, horrelako zerbaitek derrigortuko zaitu gelditu eta hankak lurrean jartzera.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Igogailuak bi geldialdi ditu bakarrik: zerua eta infernua"

KEPA ERRASTI AKTOREA

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE Martxoaren 20an kaleratu zen *Ttap* aldizkari digital eraberritua. Gipuzkoarako, Bizkairako eta Nafarroarako edizio bakarra egiteaz gain, berrikuntza handiak ditu diseinuan eta maketazioan. Baita edukietan ere. Horietako bat da *Gorabeherak* websaila.

Zergatik erabaki zenuen kontakizuna igogailu batean egitea?

Ttap aldizkariko arduradunek egin zidaten proposamena. Eurek garbi zuten umorezko saila izan behar zuela eta igogailu baten kokatu behar zela. Bi premisa horiek kontuan hartuta hasi nintzen ideia garatzen, hasieran, eta gidoiak idazten, ostera.

Igogailu oso berezia da?

Bai. Igogailuak bi geldialdi bakarrik ditu: goia edo behea. Beste modu batera esanda, zerua edo infernua. Gainera, igogailu horretan sartzen diren pertsonak dagoeneko hilda dauden pertsonaia



Kepa Errasti aktore aretxabaletarra. K.E.

ezagunak dira. Erraz identifikatzen diren pertsonaia, alegia. Sailaren kapitulu bakoitzean, igogailuan egiten duten bidaiatxoaren nondik norakoak kontatzen dira.

Bi aktorek diharduzue: Nerea Arriolak eta zu zeuk.

Hala da. Nik pertsonaia bakarra hezurramitzen dut: igogailuko langilea. Egun, ez da figura hori existitzen. Baina garai batean, atea

zabalduta eta solairura laguntzen zizun langilea zegoen. Beste pertsonaia guztiak Nerea Arriolaren ardura dira. Sekulako lana egin du.

Zergatik aukeratu zenuen Arriola?

Nire ikasle izan zen Donostiako Arte Eszenikoen tailerrean. Aktore ona da, langilea, oso ausarta eta vis komiko handia duena. Gainera, gura nuen emakumezko bat izatea pertsonaia horiek guztiak bere gain hartuko zituen. Erronka handia zen, baina banekien onartu egingo zuela.

Zalantzaren bat eduki zuen?

Ez [barreak]. Esan dut oso ausarta dela. Ez dauka lotsarik, eta segituan onartu zuen proposamena. Gainera, lan handia egin du pertsonaia prestatzen. Bideo asko ikusi ditu: ibilkerak, hitz egiteko moduak, gorputz espresioak... Era berean, ikusgarria izan da pertsonaien karakterizazioa: makillajea, ile-apainketa...

Pertsonaia bakoitza karakterizatzeko pare bat ordu behar izan zituzten.

Bost pertsonaia igoko dira igogailura. Nola aukeratu zenituen?

Bereziki, esketx baterako joko eman ahal zutenen bila

joan nintzen. Euskaldun pertsonaia ikonikoak gura nituen, baina baita atzeritarrak ere. Eta, ahal zen neurrian, gizonezkoak eta emakumezkoak. Azken hori izan da zailena.

Umorezko saila izanda, barre gustura egingo zenuen.

Bai, eta hori arazo izan da uneren batzuetan. Alde batetik, egun bakarrean grabatu genituelako atal guztiak, eta karakterizatzeko bina ordu behar zituelako Arriolak. Beraz, ez genuen galtzeko denbora askorik. Eta, beste alde batetik, plano eta sekuentzia bakarrean grabatu dugulako esketx bakoitza. Hortaz, ezin genuen akatsik egin, ez zegoelako editatze lanik.

Bost atalen ostean, jarraipenik izango al du?

Oraindik ez dakigu ezer, baina, badaezpada, ni hasi naiz pertsonaia berrietan pentsatzen.

Alarma egoeran denbora izango duzu horretarako, eta askoz gehiagorako.

Ba, bai. Badihardut gauza batzuk idazten. Bereziki, ekainean hasi beharko genukeen proiektu baterako gidoia bukatzen nabil. Bada, aurretik, astebete hartu dut ezer egin barik egoteko. Eta, posible da hori ere.

ITURRI ONETIK

Euskarazko irratien ekimen bateratua

Euskaraz jarduten duten 20 bat irratik, nazional eta tokiko –horien artean Arrasate Irratia–, ekimen bateratua iragarri dute gaurko. 11:00etarako. Aldi berean, ordu berean, abesti bera jarriko dute entzungai. "Egunaren 24 orduak nola bete ezin asmatu gauden honetan, bakardadeari aurre egiteko, irratia aukeratu dute askok", diote. Ken Zazpi taldearen kantu bat aukeratu dute, *Hel nazazu eskutik*. Irratia inoiz baino biziago dagoela aldarrikatu nahi dute ekimen honekin.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-03-19

Oñatitik Arantzazura bake eske 8.000 lagun

Bakearen aldeko ibilaldia egin zuten Oñatitik Arantzazura, azkeneko urteetan ohitura bihurtu denez, Erramu zapatu egunean –aurten ez dute egingo, alerta egoeratik–. Duela hamabost urte, Juan Mari Uriarte zen Gipuzkoako gotzaina. Bakearen aldeko kultura, "armak isiltzea" eta "politikariaren arteko elkarrizketa" aldarrikatu zituzten 8 kilometroko igoera egin zuten 8.000 lagunek, *Ebanjelioaren testigu* leloa zuten pankartaren atzetik.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Erronkak, artistak eta umorea

Sare sozialak umore-tresna bihurtu dira, are gehiago, alarma egoeran. Umore bideoez gain, lagunaren arteko erronkekin eta artisten zuzeneko kontzertuak izan dira aipagarrienak:

@dantzan: "Zazpi-jauziak zazpi modu desberdinetan dantza egiteko erronka proposatzen digu Jon Iruretagoienak".

@aharilaboratory: "Niña Coyote eta Chico Tornado stoner rock taldeak kontzertua eskainiko du etxetik, Instagram bidez!".

@GoizaldeL: "Umore apur bat behar dugu!".



ONINTZA BELATEGI UNZUETA
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Atzera-bueltarik gabeko ondorioak

Koronabirusak gizarteko sektore guztiak astindu ditu. Inguruan ditugun enpresa eta erakundeei begiratu azkar bat ematea besterik ez dugu behar, orain arte ezagutzen genuen errealitatea *hankaz gora* dagoela ikusteko. Informazioaren eta komunikazioaren garai honetan, gainera, hedabideek, une oro, birusaren daturik gordinenak jartzen dizkigute begien aurrean. Hori dela eta, guztion ardura da egoera honen irakurketa positiboa egitea eta ekarriko dizkigun ondorioak aurreikustea; atzera bueltarik izango ez duten ondorioak.

Hezkuntzari dagokionez, bi ondorio argi ikusten ditut, bat-batean: lehen, ezohiko ikaste-irakaste esperientzia espres honek ikaste-irakaste metodologia berritzaileak identifikatzen lagunduko digula. Izan ere, egun batetik bestera eta hausnartzeko denbora handirik izan gabe, aurrez

aurretiko eskolak online formatura pasatu behar izan ditugun honetan, orain arte ezezagunak –entzunak bai, baina erabiliak ez edo gutxi erabiliak– egiten zaizkigun erremintak erabiltzera *behartuak* izan gara, halaberharrez. Egunerokoan erabiltzen ditugun erremintek bere funtzioa betetzen jarraitzen badute ere, aste bakar batean konturatu gara berauek ez direla nahikoa. Aurrez aurrekoen garrantzia agerian geratu da. Hori horrela, egoerari aurre egiteko ahalik eta modu eraginkorrenean, ezinbestekoa izango da erreminta asinkronoen –*Moodle* da erremintarik ezagunenatarikoa– eta

ASTE BAKAR BATEAN KONTURATU GARA EGUNEROKOAN ERABILTZEN DITUGUN ERREMINTAK EZ DIRELA NAHIKOA

sinkronoen –*Webinar*-ak– arteko oreka topatzea. Ez dakigu agertoki berri honen iraupena zenbatekoa izango den; guztiarekin ere, ziur nago ikaste-irakaste prozesuen inguruan hamaika hausnarketa egiteko parada emango digula. Ikasle zein irakasleok erronka polita dugu esku artean: egunotan izaniko esperientziak partekatu, ondorio esanguratsuak identifikatu eta eguneroko dinamiketan txertatu, ikaste-irakaste prozesuak aberasteko asmoz. Horretarako, eragiten gaituen tsunamia bukatu bezain pronto, hausnarketarako espazioak ireki beharko ditugu gertatutako honetatik praktika on esanguratsuak identifikatzeko, besteak beste.

Bigarrena, eta giza alderdiei erreparatu, eta neure eremu hurbilean kokatuz, azken astean bizitako egoera zoro honek agerian laga du Mondragon Unibertsitateak pertsonengan eta pertsonen

egindako lanetan izaniko konfiantza. Egoerak, nahitaez, etxetik lan egitera eramane gaitu, eta horretarako prest harrapatu ere: beharrezko guztiak ditugu, edo ia guztiak, etxetik normaltasunez lan egin ahal izateko. Hori horrela, Mondragon Unibertsitatea osatzen dugun guztiok, izan irakasle, ikertzaile edota administratzaile eta zerbitzuetako langile, etxetik lanean gabiltza. Era berean, baina, unibertsitateak kolektiboan eta kolektiboak eginiko lanean konfiantza osoa jarri du. Konfiantza hori jakinarazi digu –behin eta berrin– eta sentiarazi digu –behin eta berrin–. Nik, behintzat, horrela sumatzen dut eta izugarri eskertzen dut. Hortaz, ziur nago aurrerantzean ere konfiantza horrek bere fruituak ematen jarraituko duela. Orain arte Mondragon Unibertsitateak telelanarekiko erakutsitako konfiantza eta malgutasuna kolektibo osoan zehar barreiatuz. Gauza guztiak bezala, zentzuz eta neurrian, noski!



JONE ALAITZ URIARTE
KULTUR ERAGILEA

Ziurtasunik gabe

Etxeko sukaldean arbel beltz bat daukagu eta bertan, gauero, klarionaz marratxo bat irudikatzen dugu, kartzelako iruditegi mitiko hori imitatuz; konfinamendua hasi zenetik errepikatzen dugu. Jada 11. marratxoan margotu dugu. Dena den, konfinamendu pribilegiatua da nirea, guztia esan behar da eta. Bikotekidea eta biok gaude etxean, eta, oraingoz –*oraingoz* terminoa erabiltzen dut egun hauetan ziurtasunak eskasak direlako–, telelanean gabiltza ordutegi malgu batean gure *wifi-gmail-hangouts-zoom-upn-meet* guztiak ongi instalatuta eta kea dariela. Osasuntsu gaude –edo hori ematen du, behintzat; ziurtasunak eremu honetan ere gutxi–, eta gure gertukoek ere hala dirudite. Ez da gutxi, ezta?

Koronabirusa orain arte egon den birusik *demokratikoena* dela entzun dut. Birus honek ez du ez klasea, ez generoa, ez nazionalitatea ezta arraza kontuan hartzen, pandemia honek berdin kutsatu ahal ditu aberats, txiro,

zuri kaukasoar, hori txinatar, emakume edo gizonak. Lehen aldiz guztioi batera gertatu zaigun zerbait da eta aurrekari falta honek eta guztioi toka dakigukeelako beldurrak jarri ditu alarma guztiak martxan, azpiegitura eta erakunde guztiak funtzionamenduan –armadarena barne–, guztion kontzientziak astindu ditu eta elkartasun keinu eta ekintzak han eta hemen biderkatu dira. Izan ere, guri gertu tokatu izan zaigun arte, aitortu dezagun ez ditugula oso serio hartu birus honen nondik norakoak, nahiz eta Txinako hondamendia denbora errealean eman izan diguten gaueko *Teleberri*-n. Dena den, ikusi beharko dugu nola erreakzionatzen dugun gure alarma lausotu eta epidemia Hego Amerika edo Afrikako zoko baztertuenera heltzen denean.

Egoera berri honek berezko dakarren etorkizuneko perspektiba desmarraztu hori da buruan bueltara darabildan izu formako ideia. Gripe bat pasatakoan, badakizu behin


sendatuta kalera irten eta guztia utzi zenuen bezala aurkituko duzula: umeak plazan jolasten, herriko dendak betiko bezeroekin bata bestearengandik gertu, kontzertuak iragartzen dituzten kartelak hormetan itsatsita eta ostegunetako pintxo-potea. Baina oraingo honetan, ziurtasun horrek ere ihes egiten digu: nolakoa izango da gure egunerokoa hau guztiau bukatzen denean? Eider Rodriguez gaur bertan irakurri diot gure mundua eta askatasuna prekarioagoak izango direla. Eta hala uste dut nik ere. Agian, istorio honetako lehen ziurtasuna hau. Eta bitartean?

Bitartean, egunean egunekoa bizitzera kondenatuak gaude. Konfinamendu honek behartu gaituen lau hormen barruko mikroklimari ohitu behar gatzazkio, balkoiek ematen diguten arnagune eta *discoparty* aisiguneak barne. Baina nola bizi oraina, gure burua etorkizun hurbil batera proiektatua ikustera

ohituak baldin bagaude? Praktika falta dugu orainaldian bizitzen, biharkoaren mamu desiragarri hori ate-joka baitugu une oro. Zentzu honetan, Amador Fernandez Savaterrek komentatzen du dauden horretan egon ordez beti harago dauden izaki bihurtu garela, gure burua oso ateztat daukagun arren, geroari begira bizi garela erlijiosoki, eta oraina zurrustaka sakrifikatzen dugula biharko salbazio baten izenean.

Eta orain? Oraina bizi, orainak dakartzan eskakizun eta betebeharrak guztiakin, gure ingurukoak zaintzen, ahaztuta genituen ohitura, jolas eta dedikazioak berreskuratuz, aspertzeko ikasiz, aspertzeaz gozatuz, etorkizunaz gehiegi obsesionatu gabe, eta orainari, daukagun ziurtasun bakarrari, gure arreta guztia eskainiz.

ORAINA BIZI, ORAINAK DAKARTZAN ESKAKIZUN ETA BETEBEHARRAK GUZTIEKIN, INGURUKOAK ZAINTZEN, ASPERTZEN IKASIZ...



IÑAKI GALDOS IRAZABAL
EDITOREA

Hau guztia bukatzean...

Beti bezala, gauza interesgarriak esaten ari da krisi honen kariaz Daniel Innerarity filosofoa, bere azken liburuaen aurkezpen ekitaldiak eten beharrean aurkitu dena, portzierto. Munduaren amaiera ez, baina mundu baten amaieraren aurrean gaude, bere iritziz; zehaztuz, amaitzen ari zen mundu baten azken arnasan. Nekez ezeztatzeko baieztapena, baina, aldi berean, biribilegia; zorrotzegia, agian.

Hau guztia bukatzen denean iraulketa ideologiko handia egongo omen da, askoren aburuz, mundu zabalean. Liberalismoaren ageriko porrotak sozialdemokraziaren berpizkundeari utziko omen dio tokia, nahiz eta formulazio berrien aterkipean etorriko den. Hala uste dute, behintzat, egun hauetan Trump bezalako agintariak neoknesianismoa besarkatzen bozkarioz ikusten ari direnek. Urrutiago doazenak ere ez dira

gutxi eta sozialismo eredu berriak abian jartzeko beta izango dela pentsatzen hasiak dira. Bata izan, bestea izan edo hirugarren aukeraren bat izan, pentsatzekoa da gutxienez osasungintza publikoari eta ikerketari, besteak beste, eskaintzen zaizkion baliabideak asko handitu beharko direla hemendik aurrera

Bizitzen ari garenari esker, hau guztia bukatzen denean gauza asko orain arte baino serioago hartzen hasiko garela ere iragartzen hasiak gara. Klima aldaketarena dugu batez ere hizpide gisa horretan mintzatzen garenean. Ez da zaila ondorio horretara iristea, ezta

USTE DUT BERTSUA ZELA KRISIA GAINDITU AHALA SORTZEN ARI GINEN MUNDUA; EZ GENUELA GEHIEGI IKASI, ALEGIA

erakunde eta pertsona askoren jarrerak errotik aldatuko direla aurreikustea ere, izan gaitezen baikor.

Hau guztia bukatzean, krisi izugarri honek egunero sortarazten dizkigun zalantza, eztabaida –sarri geure buruarekin ere baditugunak– eta zenbait egonezin patxadaz mahaigaineratu eta gogoeta sakonak egiteko aukera ere izan beharko genuke. Herritar gisa komunitatean jokatu behar dugun papera; geolokalizazioa bezalako kontrol eredu berriak; telelanaren onurak eta kalteak; sare sozialen erabilpen ez beti zintzoa; militarren zeregina... zerrenda luzea egin genezake, askorentzat txikikeriak izan izango diren gaiak barne. Baina inoiz ahaztu gabe krisi garaietan ezinbestean sartzen dizkiguten –eta onartzen ditugun– hainbat jarrera, ohitura eta ikuspuntu gure artean gelditzen direla, krisi garai horietan azaleratzen ditugun balio positibo

asko baino errazago, tamalez. Hori baita hau dena bukatzean daukagun arriskueta bat, hain zuzen ere: elkartasuna, elkarlana, kohesioa eta indartuta ateratzen ari diren hainbat balio poliki-poliki itzaltzen joatea.

Bai, ni ere sinetsita nago hau dena bukatzean ez dela mundua berdina izango. Handiegia da birus maltzur honek ekarri diguna, hau dena bukatzean gauzak lehenera itzul daitezten. Baina kontuz, duela hamabi urte hasi zen krisi ekonomiko itzelean murgilduta geundela ere iragarpen potoloak irakurri eta entzun genituen iritsiko zen mundu berriari buruz. Ez dakit bakarra naizen pentsatzen duena, ñabardurak ñabardura, bertsua zela krisia gainditu ahala sortzen ari ginen mundua; ez genuela gehiegi ikasi, alegia. Ahuntzak mendira jotzeko duen joera bezala, mandoak bezain egoskor, gu ere abiapuntura iristen ari ginela. Ea hau guztia bukatzean ez den berdina gertatzen eta, oraingoan bai, hurrengo belaunaldiei mundu hobea uzteko gai izaten garen.



INAZIO ARREGI
EUSKALTZALEA

Eta gero, zer?

Etxe barruan atxilo, denborak beste dimentsio bat hartzen du. Erlojuak soberan daude eta fisiologiak ukatu zaion tokia hartzen du; iratzartzen garenean jaikitzen gara, urdaila zarataka hasten denean jaten dugu, eta, beste eginbeharririk ez dugularik, orain arteko egunerokoan egin ez ditugunak egiteko aukera dugu. Leihora irtenda auzokoei aurpegia jartzen diegu, sekula hitz egin ez dugun horrekin ere ausartzen gara pare bat hitz trukatzeko, telebista ikusten dugu, eta, nola ez, arratsaldeko 8etan sortzen diren elkartasun sareetako partaide bihurtzen gara eta txaloak jo edo kantan egiten dugu.

Baina zer aldaketa etorriko dira hau guztia amaitzen denean, inoiz amaitzen bada? Hau da telebistako saio aspergarrietan gaur egun behin eta berriz entzuten dugun galdera. Bada, nire iritziz, ahal duena lehen zeraman bizitzara itzuliko da; lehengo zirkuluetara, ohituretara eta

lagunengana bilduko da. Betiko ohituretara: lanera joango da egunero, seme-alabak ikastolara eramango ditu, baldin baditu, bere zaharrak zainduko ditu, eta horrela emango du denbora.

Ahal duenak esan dut, zeren eta asko ez dira aterako konfinamendutik sartu ziren egoera berean, irteera ez delako erraza izango poltsikoentzat. Pentsa urteko sasoi onenean, udaberriaren hasieran, Aste Santuan... derrigorrean oporrak hartu behar izan dituzten autonomoei zer datorkien, edota fabrika eta tailerrak ekoizpena motelduta etxean geratu beharko duten langileen etorkizun hurbila nolakoa izango den. Eta auskalo noiz arte; izan ere, ez dira asko izango hemendik irten eta, adibidez, autoa aldatzen edo oporretan nora joango diren pentsatzen hasiko direnak. Herritar askok nahiko lan izango du langabeziako 1.000 eurorekin hilabetea edo hilabeteak pasatzen.

Uste dut bi digituko langabezia tasetara ohitu beharko dugula berriz, kontsumoan oinarritutako ekonomian eroslerik ez badago ekoizleak geratu beharra duelako, eta, adibide baterako, auto fabrika garrantzitsuenak geratuta pixkanaka hasi behar badute lehengo martxan, zer gertatuko da industria horiek elikatzen dituzten lantegi laguntzaileekin? Eta bateko nahiz besteko langileekin? Autogintza aipatu dut, baina hau beste edozein sektoreren patua izan daiteke.

Sikiera, badirudi gobernuek aurreko krisian ez bezala gastu publikoa handitzeko asmoa dutela, baina kontra, sarrera fiskalak 2020rako aurreikusten ziren errekorretatik urruti geratuko dira eta estatu bat baino gehiago ordainketa etetetik oso gertu ibiliko da.

Etorkizun ekonomikoa ilun kolorekoa da, 2008an hasi eta luze iraun zuen moduko krisi batean

murgildu daiteke munduko ekonomia. Orduan, aditu batzuek esan zuten krisi hura desberdina zela sistemikoa zelako, ez aurrekoak bezala, eta oso noizean behin gertatzen zirela horrelako fenomenoak; 1929koa aipatzen zuten adibide gisa, baina kezkatzen hasita nago, pentsatuz ez ote diren krisi luze hauek klasikoan aldaera globalak, eta ez ote garen ohitu beharko hamabost urtetik hamabost urtera sistema ekonomiko kapitalistak horrelako krisi bat sortzera. Globalizazioak krisi globalak dakar. Uste duzue gertatzen ari den hau posible zela duela hogeita hamar urte? Ezetz esango nuke.


Direnak direla, gazte eta haurrek ondo gogoan izango dituzte bizi diren artean pandemia hau eta ondorengo krisia.

DIRENAK DIRELA, GAZTE ETA HELDUEK ONDO GOGOAN IZANGO DITUZTE BIZI DIREN ARTEAN PANDEMIA HAU ETA ONDORENGO KRISIA



ALKATEAREN PARTEA

MARIA UBARRETXENA



Une zailak atzean utziko ditugu

Une bereziak bizitzen ari gara. Duela hamarkada ugari bizitako garaiak gogorarazten dizkietenak herriko zaharrenei. Baina eredugarria ari da izaten arrasatear guztien erantzuna.

Udaletik, alderdi politiko eta langile guztiak batera ari gara lanean, gainerako erakundeekin batera, pandemia geldiarazi eta herritarren ongizatea bermatzeko.

Hasieratik ezarritako eraikin publikoen eta jarduera oro eteteari jarraiki, egoeraren eboluzioarekin bat, herritarrek babestera bideratutako beste hainbat neurri hartu ditugu. Horien artean, kale eta elementu publikoen garbiketa eta desinfekzioa indartu dugu, batez ere, jende gehien dabilen guneean; eta, Gurutze Gorriarekin elkarlanean, konfinamenduan edo berrogeialdi-neurriek eraginda bakandurik dauden pertsonen etxez etxeko laguntza eskaini eta arrisku taldeetan dauden pertsonen jarraipen telefonikoa gauzatzeko dihardugu.

Egoeraren eta hartutako neurrien eboluzioa Udaleko alderdi ezberdinen ordezkariak eta teknikariak osatutako *Bozemaile Batzorde Berezietan* gauzatzeko dugu, azken egunotan telematikoki. Alderdi eta ordezkari guztiok momentu zail hauetan gure konpromisoa eta ardura adierazten ari gara.

Garbiketa langileekin batera, Udaltzaingoa egiten ari den lana nabarmentzeko da ere: kontrola areagotu da konfinamendu neurrien betetze-jarraipena egiteko. Arrasatear gehienak arduraz ari dira jokatzeko, guztion onurarako, etxean geldituz. Honela soilik geldiarazi dezakegu koronabirusa. Guztion ardura da. Baina, azken datuek diotenez, 700 auto eta 500 pertsona identifikatu behar izan dira. Berriz ere, kolaborazioa nahi nuke eskatu, herritar guztiok bat egin behar baitugu, soilik bat eginik egingo baitiogu aurre pandemia honi. Garrantzitsua da, salbuetsita dauden kasuak kenduta, etxean gelditzea.

Etxean gelditzearekin, herritarren beharrak asetzeko bide telematikokoak indartu ditugu. BAZek, Gizarte Zerbitzuak zein Emakume Txokoak herritarren beharrei erantzuten dihardute. Edonork informazio eskaera edo bestelako beharrik balu, jar daiteke Udalarekin harremanetan: (BAZ - 010 / 943 25 20 00).

Alarma egoera honek, ez bairik gabe, eragin zuzena izango du ekonomian. Aztertzen ari gara Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarri dituzten eta jartzen ari diren neurriak; gure eskualdeko Garapen Agentziarekin batera egiten ari gara lan hori. Horien osagarri, herriko ehun ekonomikoa babeste aldera, laguntza

MERKATARIAK, OSTALARIK ETA AUTONOMOAK ZUZENKI LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA LERRO BEREZIAK PRESTATZEN ARI GARA

lerro ezberdinak lantzen ari gara, batez ere enpresa txikiak babeste aldera: merkataritza, ostalaritza, autonomoak, tailerrak... profesional ugari ez dute bere jardura burutzeko aukerarik eta Udala prest dago eta lanean ari gara zuzenki laguntzeko. Helburu dugu gainerako erakundeekin laguntza baliatu eta osatzea, era koordinatuan herritarrei erantzun egokiena eskainiz. Honek guztiak onik badauka, egunotan ikusi dugun herritarren solidaritatea da, balkoietan zabaldu ditugun kantu, irri eta, batez ere, txalo zaparradak dira. Guztiok, bat eginik, era bateratuan. Badakigu arrasatear asko eta asko egoera zailan daudela, eta horiei erantzuna ematen saiatuko gara Udaletik, gainerako erakundeekin batera. Gurekin lasai hitz egin, esaguzue zer gertatzen zaizuen, eta bideratzen saiatuko gara, ahalmen ezberdinen arabera.

Arrasatearron zeinu da elkarlana, eta une honetan inoiz baino agerikoagoa da berau. Une zailok atzean utziko ditugu, eta indartuta irtengo gara honetatik ere, ziur. Baina hori inor atzean utzi gabe egin behar dugu; guztiok batera.

Herriko merkataritza babestea eskatu dute alderdi guztiek

Ahal den heinean herriko komertzioetan erosteko eta 'online' erosketarik ez egiteko eskatu diete herritarrei

X.G. ARRASATE

"Oinarrizko beharrak asetzeko beharrezko diren produktuak soilik kontsumitzeko eskaera luzatzen du Udalak eta, posible den neurrian, bertako saltokietan erostea". Hori da Udaleko alderdi politiko guztien babesekin igorritako oharrean zabaldu nahi izan duten mezuaren bat.

"Koronabirusaren pandemiak egoera berezia ekarri du gurera: herritarrek etxeetan konfinatuta, eta saltoki gehienak itxita, oinarrizko produktuenak eta farmaziak izan ezik. Egoera honetan ere bertako komertzioa babesteko dei egiten du Udalak. Jada egoera ekonomiko zailan dago sektorea, saltoki gehienak itxita daudelako, eta egunotan, gainera, herritarrek etxean egoetarekin kalera irteteko aukerak mugatuta, *online* plataformeta-



Dendaria eta eroslea. IMANOL SORIANO

ko erosketak areagotu dira. Ez dezagun ahaztu merkataritzak lanpostu asko sortzen dituela gurean, eta saltokiek gure kaleak biziarazten dituztela. Keinu txikien eragina handia izan liteke. Babes ditzagun gure saltokiak, bertakoak".

Txatxilipurdiren udalekuetako izen ematea martxan da

Egoera berezia ikusita *online* bidez aktibatu dute inskribatzeko aukera. Martxoaren 16an abiarazi zuten izen ematea, *Txatxilipurdi.eus* webgunean, eta irekita egongo da maiatzaren 8ra arte. Aurrekoetan bezala, udaleku irekiak, asteka egiteko udalekuak eta udaleku itxiak eskainiko dituzte, 2 eta 16 urte bitarteko gazteen gozamenarako.

Udaleku irekiak ekainaren 29tik uztailearen 17ra egingo dituzte, eta, adinaren arabera, hiru talde egin dituzte: *Bilin-boloka*, bi eta bost urteko haurrentzako; *Bihurrikeixetan*, Lehen Hezkuntzako 1. eta 3. mailakoentzat; eta *Erokeixetan*, Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailakoentzat. Zaintza zerbitzua egongo da 09:00etatik 10:00etara, eta baita asteka egiteko aukera. Udaleku itxietan lau aukera jarri dituzte: Goizueta, Zingira-Orio, Ozeta eta Kosta Ala Kosta.

Galdera orokortuenei erantzunak, udal webgunean ikusgai

BAZ itxita dagoenetik herritarrek egindako galdera errepikatuenak batu dituzte, eta horien erantzunak udal webgunean zintzilikatu dituzte, *Covid FAQ* izeneko atal berezian. Besteak beste, eskaera bat telematikoki nola erregistratu edo COVID-19 gaitasuna duen senide batekin zein neurri hartu behar diren azaltzen dute bertan.



Ibai-arte laguntza eske, egoerari aurre egiteko

Alokairuak, soldatak eta halako gastu finkoak kontuan hartuta 7.500 euroko galerak izatea estimatzen dute, betiere, stocka ez saltzogatik galdu dezaketena kontuan izan gabe. Neurriak eskatu dizkiete erakundeei, eta eurekin gogoratzeko eskatu herritarrei

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Prebentzio-neurri gisa eta baita gizarte-erantzukizunagatik saltokiak itxi genituen, nahiz eta honek ondorio ekonomiko larriak ekarri. Itzulera oso gogorra izango da guretzat, ez dakigu eta noiz irekiko ditugun berriro ere gure establezimenduak. Gure diru-sarrerak deusezak dira salbuespenaldi honetan, baina, era berean, gastu berberak izaten jarraitzen dugu: lokalaren alokairua, aseguruak, zergak, nominak, telefonoa, zaborrak, dendan dauden eta saltzeko aukerarik ez ditugun produktuen hornitzaileei egin beharreko ordainketak... 7.500 euroko batez besteko gastuarekin. Saltoki askok 100.000 euro baino gehiagoko stocka dute jada aurreratuta, eta, daten arabera, baliteke salmenta-denboraldiak ere ihes egitea; zama handiegia hainbat establezimenduentzat", azaldu dute prentsara igorritako oharrean.

"Oraingoz, ordainketak eta BEZa atzeratzeko aipamenak bakarrik entzuten ditugu, baina hala lortzen dugun bakarra arazoa handiago egitea da". Udalari eta Jaurlaritzari neurri lagungarriak eskatu dizkiete, eta *online* salmenta plataformak lanean egotearen aurka azaldu dira.

Herritarrei mezua eta esker ona

"Gure bezeroei gogorarazi nahi diegu gutaz oroi daitezela, eta itzuleran ere hemen izango garela jakin dezatela, beraien-tzako lanean. Denok dakigu azken hilabeteetan Arrasateko denda batzuk ixten ari zirela, eta, egoera ikusita, dena pasatutakoan, gogoratu honetaz, bisitatu gure lokal eta dendak kontsumitzeko eta arnasa emateko. Ibai-artetik txalo zaparrada bat etxean zaudeten merkatariei, eusten ari zaretenoi, eta beste txalo zaparrada handi bat dendak zabalik eduki ahal izateko lanean ari zaretenoi".



Erdiko kale, jedez lepo, Iraileko Merkemerka batean. GOIENA



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Ohartuko gara zoriontsu ginela

Telelana, teleikasketa, telebista, teleordainketa, telefonoa... urrutirako bideak ireki ditugu, eta orain inoiz baino hurbilago egotea dagokigu: etxekoei, auzokoei, pentsamenduei, sentimenduei... lurrari konektatuta.

Norberaren onena ateratzeko garaiotan, konturatu gara bageneukala bila ari ginen guztia. Esku artean geneukan eta bila jarraitzen genuen, ezikusiarena eginez. Besteena beste eta gehiago gura genuen, txikikeria guztiak erosi zitezkeelakoan. Eginahalean, azkar bizi, lan eta lan, korri eta presaka, jan eta jan, eta azkar lo eginez jabetu gabe. Kontaminatu, kontsumitu eta murtzikatu gabe dena irentsiz. Eta depresioaz, antsietateaz edo estresaz ginen kezu. Betaurrekoak behar genituen, norberaren ispilura begiratu eta ikusi, so egin eta konturatzeko. Amaieran, zer garen baino gehiago, nor garen izango da funtsezkoa, memorian geldituko baita nola gainditu dugun egoera eta nolako osasuntsu ateratzen garen.

Nago, mundua gelditu den honetan, atzera biratu eta zoriontsu ginela ohartuko garela, gizarte berria sortuz.

65 urtetik gorako adinekoak gure lehentasuna dira

09:00etatik 10:00etara
lehentasuna dute gure dendetan



Lehentasuna sarreran



Lehentasuna produktu freskoen erakusmahaietan



Lehentasuna kutxetan



EROSKI
zurekin

Euskaraz harremantzeko pauso aitzindariak, 30 urte

Elkarteen eta erakundeen arteko harremanak euskaraz egiteko 'Euskararen hitzarmena' sinatu zuten Arrasateko 38 eragilek. Era horretako lehen ekimena izan zen Euskal Herrian, eta, hiru hamarkada igaro ostean, haren fruituak nabariak dira gaur egun

Xabi Gorostidi ARRASATE

Bihar, martxoak 28, hiru hamarkada beteko dira Arrasateko *Euskararen hitzarmena* sinatu zela. 80ko hamarkadan, Arrasaten lan mardula egin zen euskara normalizatzeko bidean. AED izan zen horren eragile nagusia, eta Udalaren hizkuntza politikak ere asko lagundu zuen bide malkartsu horretako alda-pa arintzen. Horren erakusgarri da, adibidez, udal langileen euskara jakintzan bost urteko epean izandako igoera: 1986an %34,85ekoa zen eta 1991n, aldiz, %56,10ekoa. Hala, herriko enpresen eta eragileen artean euskararen erabilera sakontzeko urrats aitzindaria egin zuten 1990eko martxoaren 28an, *Arrasateko Elkarte eta Erakundeen arteko hitzarmena*, euskararen erabilpena indartzeko hitzarmena sinatuta. Herriko 38 entitate batu ziren, *motu proprio*, eta hamabi konpromiso hartu zituzten euskararen presentzia



Jaurlearitzako Hizkuntza Politikako idazkari Mari Karmen Garmendia sinatzaileekin. AED

areagotzeko; lehena, eta nagusia, elkarren arteko harremanak, idatzizkoak zein ahozkoak, beti euskaraz egitea. Beste batzuk ere bazeuden; esaterako, entitate horietako zuzendaritza eta ordezkapen organoetako kideek euskaraz lan egin ahal izateko gaitasuna edukitzea, entitate horien dokumentazio ofiziala -aktak, notari-arazoak, irizpen juridikoak- oso-osorik euskaraz izatea eta dokumentu horiek euskaratzearen kostua Udalak ordaintzeko konpromisoa.

38tik, 140 ingurura

Lehen kolpean, herriko 38 eragile batu ziren: hamabi ikastetxe, lau erakunde publiko, bost enpresa, hiru aurrezki kutxa, sei talde politiko, hiru kultur elkarte, hiru kirol elkarte eta bestelako bi erakunde. Baina akordioa irekita zegoen eragile gehiago batzeko, eta urte bereko abendurako, jada, beste 41 erakunde batu ziren akordiora. "Urtez urte eragile gehiago batzen joan ziren eta 140 kide izatera heldu ziren une batez", azaldu du Udaleko Euskara teknikari Aintzane Lasak.

Hiru hitzarmen-aldi

Hitzarmenak hiru fase ezberdin izan ditu: lehen hitzarmen-aldia, 1990-1993; bigarrena, 1993-1996; eta hirugarrena, 1998tik aurrera. Bigarren aldian, dokumentu ofizialak euskaratzeko arloan egin zuten ahalegin handiena -aktak, memoriak, albaranak...-; lehen hitzarmenak konpromiso hori hartzen zuen barne, baina horretan sakontzeko beharra ikusi zuten. Hirugarren aldian, normalizazio plan pertsonalizatuak egiten hasi ziren. "Sinatzaileen artean aldea zegoen euskalgintzarekin zuzenki lotutako erakundeen eta bestelakoen artean. Horregatik, banan-banan normalizazio plan pertsonalizatuak egiten hasi ginen: aholkularitza, itzulpengintza edota errotuluak eta webgunean euskaratzeko laguntzak emanaz".

Betetze maila: %93a

Lehen unetik, hitzarmena betetzeko kontrol-lana egin dute, batez ere, Udalera heltzen ziren dokumentuetan euskararen presentzia neurtuta; lehen urteetan, %83-90 artekoa zen betetze-maila; gaur egun, aldiz, %93koa da.

"Denontzako eredu"

Sinaduraren bihamunean, 1990eko martxoaren 29an, *Egin* egunkariak azalera ekarri zuen Arrasateko hitzarmena, eta bertako erredaktoreburu Jon Basterrak zera idatzi zuen, editorial gisa: "Arrasaten gertatzen ari dena arretaz segitu behar da. Ez dira konformatu hitz hutsekin, eta praktikara pasatu dira. Normalkuntzarako eta euskararen iraupenerako bideak Arrasatetik pasatzen dira. Atzokoak, Arrasaterako garrantzi historikoa badu, Arrasatetik kanpo, denontzako eredu".

**ALMACENES
ARRASATE**

**Araudia beteta,
bezero guztiei arreta
egingo diegu telefonoz,
posta elektronikoz eta
Internetez, eta etxera
bidaliko ditugu
produktuak, betiko
moduan.**

tel.: 943 77 13 52
664 21 21 82
www.almacenesarrasate.com

bertako
igogailuak | ascensores

+ 1.200
bezero baino gehiago

Liderrak zuri esker

24 orduko zerbitzua
Pieza guztiak barne
Euskarazko zerbitzu profesionala

OROTARIKO ZERBITZUA **100€** /hileko

ARRASATE Garaia Berrikuntza Gunea
943 903 450 www.bertako.eus



ALKATEAREN PARTEA

LIERNI ALTUNA

Konfinamenduan, bigarren astea

Egoera arraro honetara ez dakit benetan ohitzen ari garen edo egokitzen, baina, bigarren astea betetzear gauden honetan, argia noiz eta nola ikusiko dugun zalantzak ditugu... Baina egunerokoari heldu diezaiogun, esperantza sekula galdu gabe. Udalean ahal duguna egiten ari gara ur, hondakin, garbiketara eta argiaren zerbitzuak, orain arte bezala, ahalik eta ondoen ematen jarraitzeko, inguruak desinfektatzeko, *seguruak* diren lan batzuk aurreratzeko... Batzuk, etxetik; beste batzuk, txandaka; beste batzuk, kalean;... eta denok arrisku ikusezin baina latz honi ahalik eta seguruen eta hoberen erantzun eta ahal diogunari eusten gabilta, denon artean honi ahalik eta hoberen buelta eman ahal izateko. Egoera ez da erraza, kafkianoa da, baina denok momentu batean edo bestean izan ditzakegun gorabeherak ahalik eta hoberen, norbere buruarekin eta ingurukoekin, kudeatzen ikasten gabilta. Urduri gaude, batzuek tranpa egiten dute, beste batzuek salatu tranpa egiten duena, eta, kasu askotan, ez duena egiten ere bai. Nik ez dakit non dagoen, kasu honetan, zentzunaren neurria, eta kasu batzuetan zer den tranpa eta zer ez... Baina, balkoietatik, gutxiago salatu eta gehiago lagundu, agurtu, komunitatea josten eta halakoetan jarraitu beharko genukeela uste dut... Lehen irakurri dudak txio batek zioen bezala, egoera honetan balkoietatik txakurra *gehi*gi paseatzen duena salatzen dugu, baina, gero, kapazak gara goiko pisuan zaratak eta garrasiak entzunez gero laguntzera igo eta salatzeke? Halako gauzen inguruan ere hausnartzen, desikasten/ikasten, jarraitu beharko dugu... Bukatzeko, ildo berarekin jarraituz, lerro hauek aprobetxatu nahiko nituzke eskaera bat egiteko Herrizaingo Sailari. Momentu hauetan, egoera eta beraien lana ere ez da erraza, baina inoiz baino gehiago *herrizaingo* izan behar dira, herria zaindu eta lagundu behar dute, legea betearaziz, baina errespetuz. Animo denoi, elkarrekin lortuko dugu!

Alarma egoeran laguntza behar dutenentzat sarea martxan dago

Horrez gain, etxean kirol ikastaroekin jarraitzeko bideak erraztuko dituzte, eta autobusak ordutegi berria dauka

J.I. ARAMAIO

Herriko boluntarioek, doako laguntza emateko prest dauden pertsonak osatu zuten taldea, eta Udalarekin koordinatuta ari dira. Batez ere, zaurgarrien izan daitezkeen giza taldeei begira –adibidez, jende nagusia– laguntza eskaintzen dute, erosketak egiteko –elikagaiak, botikak...–; Ibararako zein auzoetarako da eskaintza, pertsona haiek etxetik atera ez daitezten. Bestalde, umeak zaintzeko ere eska daiteke laguntza; eta beste edozer dela-eta ere deitzera animatzen

dituzte aramaioarrak: 649 99 57 51 da telefono zenbakia.

Bestalde, kirol ekintzak ere bertan behera geratu direla-eta GAP, pilates eta sasoiaren egoteko gimnasiako irakasleek Youtubean jarriko dituzte bideoak, bakoitzak bere etxean egin ditzan ariketak –Udalak ere bere webgunean txertatuko ditu–.

Eta beste ohar batzuk: autobusak ordutegi berria du eguetatik; eta abeltzainek euren jarduna egiaztatzeke dokumentazioa eraman dezatela abereengana doazenean.

"Argi dudana da abestea gustatzen zaidala"

Madrilgo Goi Mailako Kantu Eskolan gradua egiten ari da Maria Izaga. Aramaion harrapatu du konfinamenduak, eta egoera aldrebestu aurretik 'Galdegazte' telebista saioan ere izan zen, bere ikasketen etapa berriari, eta abarri buruz hizketan

Julen Iriondo ARAMAIO

COVID-19a dela-eta egoera oso zaila bizi izaten ari dira Madril; ez da erraza Euskal Herrikoa ere, zer esanik ez Arabakoa, baina, gutxien-gutxienik, etxe-koen gertutasunez ari da Maria Izaga sasoi berezi hau igarotzen.

Konfinamendu agindua indarrean sartu aurretik, *Galdegazte* saioan izan zen abeslari aramaioarra, eta bertan eman zuen bere ibilieren berri. Lehenengo urtea du Madril, Goi Mailako Kantu Eskolan gradua egiten –lau urte dira–; Gasteizko kontserbatorioan sei urteko gradu profesionala egin eta gero iritsi da bertara: "Zenbat eta gehiago jakin teknikari buruz edo abes- teari buruz, orduan eta zorrotzagoa izan behar duzu zeure buruarekin; ze, ikusten baduzu egin dezakezula, zure buruari exijitzen badiozu, apur bat urrunago iritsiko zara. Nik horrela funtzionatzen dut, apur bat gehiago eskatzen diot nire buruari, urrunago iristeko, eta gehiago ikasteko, azken finean".

Izagak dio Madril gustura dagoela, eskolan oso gustura, klasekideekin-eta oso ondo konpontzen dela; kantu klasikoa ari da lantzen han, baina ez dio ezeri muzinik egiten: "Klasikoan ikasten nabilen gauzek moder-



Maria Izaga, Bergarako Aratuste-kontzertuan, aurten. GOIENA

KANTU KLASIKOA ARI DA IKASTEN, GAUR EGUN, BAINA EZ DU BAZTERTZEN MODERNOA IKASTEAN

nokoek beste laguntzen didate, eta modernoak eman dizkit gauza batzuk oraingo urtera arte ez nintzela kontziente klasikoan aplikatu zitezkeela. Oso argi dudana da abestea gustatzen zaidala, berdin dit zer, berdin

dit non, baina abestea, eta ikas- tea. Orain, klasikoa ari naiz ikasten, baina ez dut baztertzen gero modernoko gradu baten sartzea".

Behin ikasketak amaituta, gustatuko litzaiokie aukera edukitzea ikasitakoa "proban jaritzeko, antzoki batean", eta ikusteko nola "funtzionatzen" duen: "Ez dakit balioko dudana. Agian, igoko naiz agertoki batera, opera bat edo kontzertu bat egin, eta ikusiko dut ez dela niretzako; baina, behintzat, probatu egin nahiko nuke".



Denbora-pasak

MARIA IZAGA

Bitakora koadernoan, 1. astea. Isolamendua ikusirik, kuadrillan ideia bat izan dugu: bakoitzak esaldi bat bota eta sor genezakeen ipuinik arraroena erditu dugu. Isolamendu garaian, literatura berria beti da ongietorria.

Bazen behin PapelOn izeneko birusa. Sintoma nagusia komuneko paperaren kontsumoa zuena.

Gertutik, txiki eta koloregabea zen; urrutzerakoan, aldiz, bere handitasunaz ohartzen zinen... hain algaratsua zen! Baina arazoak konpontzeko geroz eta laguntza gehiago behar zuen: liburua eskuan zeukala doministiku egin eta guraizeak bekokian sartu zitzaizkion. Lagunak zituen (bakoitza bere etxean). Altuena Txin

deitzen da, begi marroi handiekin. Hitz egin nahi dute, baina wifiak eztanda egin du eta txalaparta jotzen hasi dira etxeko balkoian, egun aspergarriak arintzeko. Gainera, komuneko paperaren gaia hasi denean, ordenagailua hartu eta zukua bota diote gainetik. Jada ezin dute Skype bidez zerbeza bat hartu eta maskarillak konparatu lagunekin. Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila bakoitzaren etxean (plazan hemendik egun batzuetara ikusiko gara!).



ALKATEAREN PARTEA

UNAI ELKORO

Lagundu nahi? Geratu etxean

Bi aste eskas daramatzagu itxialdi egoeran, eta, aurreikuspenen arabera, oraindik luze joango da. Garizuma bitxi hau bizitzea suertatu zaigu aurten, inork bizi izan ez dugun egoera berri hau kudeatu beharrean aurkitu dugu gure burua, eta aitortu beharra daukat aretxabaletarrok primeran ari zaretela. Joan zen astean bezala, oraingoan ere zoriondu beharrean aurkitzen naiz adierazten ari zaretela jokaera arduratsuagatik; nabaria izan da aste honetan kaleko mugimendua zeharo gutxitu dela.

Egoera honetatik ahalik eta azkarren eta egokien irteteko ezinbestekoa dugu bide honetan jarraitzea. Osasun baliabideak gainezka egin ez dezaten denok lagundu beharra daukagu eta eskaini dezakegun laguntza handiena etxetik ahalik eta gutxien irtetea da; beraz, beharrezkoa ez bada, gera gaitezen etxean.

Udaleko Ongizate Zerbitzutik jarraipen zuzena egiten ari gara egoera honetan ahulen diren helduei, batik bat. Edonola ere, litekeena da laguntza beharrean izan eta heldu ez garen norbait izatea. Laguntza beharrean izanez gero, bai irteteko, erosketak egiteko edo krisiak jota ekonomikoki beharren izanez gero, edo egoera horretan egon litekeen norbait ezagutuz gero, jarri kontaktuan Udalarekin lehenbailehen laguntza bideratzeko.

Larrialdi egoera antolatzea izan da orain arte gure lehenasuna; orain, hau kudeatuaz gain, gure ardura nagusia osasun krisia amaitzean aurre egin beharko diogun egoera ekonomikoari aurre egitea da. Honezkerok denok jabetu gara geldialdi honek ondorio latzak ekarriko dituela ekonomian. Dagoeneko batzuk jasaten ari dira, komertzio eta ostalaritzan atek itxi beharra izan dituztenak, esate baterako. Udal aurrekontuan ere eragin handia izango du eta legealdi osoa berrantolatu beharra izango dugu, beti herritarren ongizatea lehenetsiz.

Ez nuke mezu ezkor batekin amaitu nahi; gero eta gutxiago falta da gaixotasun hau garaitzeko eta ohiko bizitzara bueltatzeko. Egoera larri orotatik ikasgai positiboak atera daitezke; hortaz, aprobeitza dezagun etenaldi hau indarberritzeko.

Azkenik, besarkada handi bat gaixotasunak harrapatutako herritarrei eta senideei; lehenbailehen etxean osasuntsu bueltan izan ditzagun ez ahaztu, etxean geratu.

Deba ibai alboko pasealekuko lanak aurrera doaz

Alarma egoerak ez du eragin Deba ibai alboko pasealekuaren lanetan, eta 62 metroko lurzorua egokitze lanak aurrera jarraitzen dute. Horrekin batera, aireko argindar sarearen lurperatze lanak ere bukatuko dituzte, eta hori Iberdrolari dagokio. Obra hori, hain zuzen, ezin dutela ziurtatu noiz egingo den adierazi dute Udaletik.



Hondeatze-makina pasealekuan. M.A.

Hainbat lan "atzeratu" egin beharko ditu Udalak

Jarraipen Batzordea eratu dute udal ordezkariak, eta han aztertzen dituzte azken asteotako gorabeherak. Onartu dute egoera berriak eragina izango duela aurten egitekoak ziren hainbat lanetan, eta merkataritangan, esaterako, kezka handia sortu du

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Koronabirusaren pandemiak sortutako egoerari jarraipena egiteko eta herriko beharren gainean adi egoteko Jarraipen Batzordea sortu dute Udalean ordezkariak duten bi alderdietako kideek, eta astean egun pare batez elkartzeko dira. "Egoera onartzen joan gara eta azken egunotan asko lasaitu da giroa", adierazi du Unai Elkoro alkateak. EH Bilduko Ion Albizuk berretsi du egoerari ahalik eta azkarren buelta emateko erabakiak etengabe dabilela hartzen Jarraipen Batzordea, eta gaineratu: "Lehenasuna argi dut: aretxabaletar guztiak babestea; ahulenak izan daitezkeenak, baina baita ere langileak, merkataria, enpresariak...".

Laugarren udaltzaina

Udaltzainek jardun dute ertzairekin batera alarria egoerak ezarritakoa betearazten, eta lan horretarako, laugarren kidea etorri da: Kevin Santiago galdakoztarra. Arkauten jasotzen zegoen formakuntza programa eten egin dute behin-behinean, eta egoera bere onera itzuli bitartean lanean jarduteko aukera eskaini diete. Hala, martitzen hasi zen Santiago eta zaintza lanak indartzea izango da haren egitekoa, egunotan.

Hainbat lan atzeratu

Egoera berriak diru kontuetan eragin zuzena izango duela argi du Elkoro: "Diru sarrerak asko jaitsiko dira Aldundiarendako, eta, ondorioz, Udalen Finantza-ketarako Foru Funtsetik datorriguna ere bai". Horrek urtea "erabat baldintzatuko" duela dio, eta aurreikusitako hainbat lan -Santa Kurtz kaleko bidegorria, saneamendu lanak...- atzeratu egin beharko direla: "Ez dugu lehenasunik jarri lanei dagoenikenez, oraindik ez dugulako datu zehatzik esku artean; osasun



Kevin Santiago galdakoztarra udaletxeko atean. ANABEL DOMINGUEZ

UDALTZAINEN ZAINZA LANA INDARTZERA ETORRI DA KEVIN SANTIAGO GALDAKOZTARRA

etxearekin zer egingo duen Jaur-laritzak, esaterako, ez dakigu".

Dena den, gogorarazi du, batetik, iazko gerakinetik dirua duela gordeta Udalak; eta bestetik, kiroldegiaren zorra ordaintzen bukatuko dutela 2021ean, eta, ondorioz, 850.000 euro gehiago izango dituztela urtean. Horregatik, lehenago ez bada geroago, esandako lan gehienei heltzeko moduan izango direlakoan dago.

Merkataria, "kezkatuta"

"Oso kezkatuta" daudenak herriko merkataria eta ostalariek dira: "Ez dakigulako, batetik, egoera hau noiz bukatuko den, eta, bestetik, buelta emateko gai izango garen ondoren", dio Uxo Etxebarriak, Aretxarteko zuzendaritzako kidea. Udala horren jakitun da eta hartu-emanen dago Aretxartekin. "Bi erata-

ko laguntzak ditugu buruan: batetik, zuzenak; eta bestetik, pizgarrietan". Gaur, egubakoitza, gai hori landuko dute udal ordezkarien artean, eta ondoren, ekintza zehatzen berri emango diete merkatariei.

Basotxon, kontuak atzeratuta

Basotxo erretiratuen elkarteko kideen artean ere kezka sortu du egoera berriak eta hainbat kontu bertan behera utzi behar izan dituzte. "Gaztela Mantxara joatekoak ginen Pazko astean, baina ezin. Batzar orokorra ere atzeratu beharrean izan gara", dio zuzendaritzako kide Isabel Olivenzak.

Bestetik, behar gehien dituzten adinekoengan jarri du arreta Udalak eta bakarrik bizi direnekin, bereziki, harremanetan daude. "Udaletik hainbat dei egin ditugu eta herritarrek euren ere deitu dute", dio Elkoro.

Kiroldegiko tasa

Ibarra kiroldegiari dagokionez, zerbitzurik eman ez den eguntan ez dela kobrantzarik egingo argitu du Elkoro: "Martxoan kobratuta dago, baina apirilean deskontatuko dugu hori".

"Euskarak lekua behar du, baita industrian ere"

MAIDER SARRIEGI COPRECICO EUSKARA BATZORDEKO KOORDINATZAILEA
1978. urtean sortu zen Coprecico lehen Euskara Batzordea. Gaur egun, estrategia zein metodologia ezberdinak erabiltzen dira, baina helburua bera da oraindik

Naroa Urien Berrio ARETXABAETA
Maider Sarriegi beasaindarrak 17 urte daramatza Aretxabaletan bizitzen. 1999an hasi zen Coprecin lanean, eta, lanpostu desberdinetan ibili ondoren, momentu honetan negozioetako batean produktu garapen teknikaria da. Bestalde, Coprecico Euskara Batzordeko koordinatzaile lanetan dabil. Konfinamendu egoeran, batzuk telelanean dabilta; Sarregik, aldiz, bulegoan jarraitzen du lanean.

Coprecico Euskara Batzordeko koordinatzailea zara. Zein da zure egitekoa batzorde horretan?

Batzordeko kide izan naiz urte batzuetan, eta udazkenetik euskara batzordeko koordinatzailea naiz. Euskara planeko gaiak koordinatu eta jarraipena egin, euskara normalizatzeko proiektua behar den lekuetan bultzatu, Euskara Batzordeko gaiak prestatu eta dinamizatzen parte hartu, Fagor taldeko Euskara Batzordean parte hartu, kanpo harremanetan Copreciren ordezkari zara ahalbidetu...

Noiztik dauka Euskara Batzordea Coprecik eta zein ardura ditu?

Lehen Euskara Batzordea 1978an sortu zen Coprecin. Urte askoan boluntarioek bakarrik osatu izan dute. Azken urteetako erakundetzaren ondorioz, orain,



Maider Sarriegi. M.S.

boluntarioek eta lanpostu jakin batzuetan dauden pertsonen eta organoetako ordezkariak osatzen dute. Ardura nagusiak hurrengoak dira: euskararen arloko misioa, politikak irizpideak proposatzea, jarraitzea, baloratzea... plan estrategikoko eta gestio planeko estrategiak landu eta ekintzak proposatzea eta helburuei jarraipena egitea.

Euskara Batzordea martxan dagoenetik aurrerapausorik igarri duzu?

Nik beti ezagutu izan dut Euskara Batzordea Coprecin. Orain, egoeran egotea ezinezkoa

izango litzateke lehenengo Euskara Batzordea martxan jarri zuten eta ondorengo urteetan lanean jarraitu zuten boluntario haiek gabe. Nahiz eta plana asko erakundetu den, beharrezkoa da Euskara Batzorde bat eta inguruan berarekin harremanetan dagoen jendea edukitzea, plana eta langileak aktibatuta mantentzeko.

Indeus Industriaren Euskal Plataformako kide ere bazara...

Copreci Indeus plataformako kide da, eta Copreciren ordezkari joaten naiz. Bertan euska-



Batzar ondorengo argazkia. MAIALEN REGUEIRO

Etorkizuneko helburuak aztergai

Industriaren Euskal Plataformak (INDEUS) euskara industriaren arloan sustatzeko helburuak aztertu ditu eta Hizkuntza Politikako sailburuordea eta SPRIko eta EEEko zuzendari nagusiak plataformako kide diren enpresetako ordezkariekin bildu dira.

ra plan aurreratuak dituzten enpresak daude lantalde desberdinetan banatuta. Coprecik *Euskarazko produktuak eta administrazioarekin harremanak* lantaldean parte hartzen du. ERPen gaia –euskaraz zenbat dauzkagun eta euskaraz edukitzea zein aukera dauden aztertzen ari gara; adibidez, SAP ERPa), administrazioarekiko harremanetan enpresek euskara gehiago erabiltzeko zer egin, hezkuntzaren eta industriaren arteko mintegi bat egin nahi da hizkuntzari buruz dauden beharrik identifikatzeko...

Industria ere, beraz, hasita dago euskarak duen balioari garrantzia ematen?

Bai, plataforma honekin ere hori bultzatu nahi da, euskara plan aurreratuak dituzten enpresak besteentzat eredu eta lagungarri izatea. Zaila izaten den arren

horrelako lantaldeetan, orain artean ekintza zehatzak egitea faltan sumatu dut. Aurtengo, batzuk planteatu dira, eta ea aurrera ateratzeko gai garen.

Aretxabaletako Euskaraldiko batzordeko kide ere bazara; lan handia dago egiteko Aretxabaletan?

Bai; komertzio, lantegi eta entitate ugari daude eta aurtengo berezitasuna ariguneen sorkuntza izango da. Lantaldekoon artean banatuko dugu lana, ahalik eta gehienengana heltzeko. Lana badago, baina denon artean aurrerapauso handiak eman ditzakegu!

"EUSKARA PLAN AURRERATUENAK DITUZTEN ENPRESAK EREDU BILAKATU NAHI DITUGU"



NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO

Lelotu arte

Hementxe irakurri nutzen Martini, menditik erlojuaren kontra zebilena. Zela bat-batien eskumuturreko kontu eramale modernue itxungi euen eta tremendako ilunabarra ikusteko gai izen zanakue. Apustu egingo nauke ilunabar arrunta izen zala, baine bat-batien laukitxotik kanpo bere

buelta guztien mundu bat euela ikustiek txunditute utziko euen tipue.

Urrinera bonbue entzuten dogunien, txarangie antzematen dogu. Gerturatu arte barrez, ez gara gainontzeko instrumentuekin jabeketan.

Aldiro, bon, bon, bon, ailegetan die gure belarrixetara gainerako besteik ez balego moduen, barri bakarrak; erabat

leloketan gaien arte. Eta orduen, zelan ez, beste bat, bon, bon, bon... Kopa, Zaldibar eta orain COVID-a. Gailuon jabe izenda be, beste inora alde egin ezinik, beti pantailakoari esarrita.

Azkenaldixen, afalosteko orduetan telebistarekin zappingien ibili ordez, kendu egiten dot. Akaso, irratixe piztu. Ez dozeu imajinetan aurkitu doten mundue.

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



ALKATEAREN PARTEA

JOSERRA ZUBIZARRETA

Herritarren jarrera, txalotzekoa

Eskoriatzako Udalean hartu ditugun neurriak bat etorri dira Eusko Jaurlaritzak ezarri dituenekin, Espainiako Gobernurekin batera. Eraikuntza publikoak ixteaz gain, oso garrantzitsua da hiritarren konfinamendua betetzea osasun krisi latz hau gainditzeko, nahiz eta oso gogorra izan. Alarma egoera indarrean sartu aurretik, urgentziako jarraipen mahaia osatu genuen, udal talde guztien ordezkariekin, eta esan beharra daukat guztion jarrera eta laguntza oso baliagarria izan dela. Guztion proposamenak aztertu eta adostu ditugu. Bertan hartu genituen lehen erabakiak: jubilatuen etxea ixtea, eta abar. Geroztik, telematikoki hainbat bilera eta kontaktu izan ditugu, jarraipen egokia egiteko eta informazio partekatzeke asmoz.

Hartutako neurrietan aipatzekoa da Gurutze Gorriarekin eta Caritasekin egindako elkarlana, boluntarioen sarea antolatu ahal izateko. Udal gizarte zerbitzuak koordinaziopean, behar gehien daukaten hiritarrei laguntza emateko prest gaude ordutik. Horrela, profesionalen eskuetan dago sarea, eta segurtasun osoz egiten dute lan boluntarioek. Momentu honetan, bost pertsonak eskatu dute laguntza eta 21 boluntario ditugu. Egoitzako arduradunarekin ere harremanetan gaude, euren beharren berri izateko. Momentuz, eta zorionez, bertan ez dago kasu bat ere eta herri osoan, bi kasu konfirmaturik soilik.

Kale garbiketa zerbitzua ere indartu dugu eta desinfekzio lanekin hasi gara, denda inguruak, batik bat, bertatik jendea ibiltzen baita.

Hartu nahi ditugun hurrengo neurrien artean, alde batetik, udal tasa eta zergaren ordainketa epeak atzeratzea, hiritar zein herriko autonomoek izango dituzten arazoak arintzeko asmoz. Beste alde batetik, kirol ikastaroak eta kultura ekimenak Interneteko plataforma batean garatu nahi ditugu, arazo guztien gainetik herri baikorra garelako adierazteko asmoarekin.

Azkenik, oso txalotzekoa da orokorrean eskoriatzarrok izaten ari garen jarrera, aginduak betetzen ditugu eta etxean geratzen ari gara, eta erosketak egiterakoan segurtasun neurriak mantentzen ditugu. Udaltzaingoak ez du zigor espediente bat ere zabaldu; bai, berriz, abisuak eman kasu puntualetan. Gehienbat, txakurrekin denbora asko kalean egoteagatik edota euren etxeetatik oso urrun erosketak egitera joateagatik; hauek gutxiengoak.

Gizarte arloko dirulaguntzen deialdiak, argitaratuta

Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzako programak eta jarduerak gizarte zerbitzuetan garatzen dituzten elkarrekin argitaratu arren, eskaerak egiteko epea etenda gelditu da, alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuari jarraituz. Epe berriak jakinaraziko dituzte ohiko bideetatik.

Indarkeria sexista kasuen aurrean zer egin, egunotan

Alarma egoeran gerta daitezkeen indarkeria sexistako kasuen aurrean, Gizarte Zerbitzuetatik deiak erantzuneko dira eta prozedura azaldu -943 71 31 36-. Indarkeria matxista egoeraren aurrean Bergarako Ertzaintzara deitu behar da: 943 53 47 20. Eta biktimei informazioa eta arreta emateko zerbitzurako 900 84 01 11 telefonora deitu daiteke.

Biblioteka itxita, baina aukera mordoa eskainiz

Eskoriatzako Bibliotekak ateak itxita dituen arren, eskaintza eta proposamen telematikoak egitearen aldeko gomendioa egin die herritarrei. Irakurzaletasuna ez geratzeko, eta aisialdian modu ezin hobean entretenitzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Alarma egoerari aurre egiteko zenbait aukera eman ditu egunotan Eskoriatzako Udal Bibliotekak sare sozialen bitartez. Konfinatuta etxean daudenak entretenitzea helburu izanik, betiere, irakurzaletasuna sustatuz. Bibliotekak ateak itxita dituen arren, martxoaren 16tik, informazioa behar duenak bertara deitu dezake, 943 71 31 35 telefono zenbakira.

Etxeke txikienei zuzenduta

Arlo eta maila ezberdinetako 50 hezkuntza-kanal baino gehiago ditu *Julianmarquina.es* webguneak, eta, gurasoek irakasle paperean jartzeko aukera izango dute, plataforman dauden ikus-entzunezkoak oinarri hartuta. Ikasteaz batera, ondo pasatzeko jolasak ere badaude, gainera. Ikasgai ezberdinetako ariketa eta bestelakoez gain, audio-liburuak ere eskaintzen ditu webguneak eta bertan, ipuin kontakizunak entzun daitezke online. Horrekin batera, komikiak ere badira beste aukera bat entretenitzeko, eta hauek, haurrentzat ez ezik, gazte eta helduentzat zuzendutakoak dira, eta bineten bitartez gidatu istorio grafiko bikainez gozatu ahal izango dute irakurleek.



Leihoan irakurtzen. IMANOL BELOKI

Liburu gomendioa: 'Miñan'

Ipuinak hitzak baino gehiago direla askotan entzun ohi da, eta, hala, Amets Arzallusen eta Ibrahim Balderen *Miñan* liburuaren gomendioa egin dute Eskoriatzako Bibliotekatik. Horrekin batera, liburuak irakurri eta edo ez dutenentzat, Amets Arzallusek Ibrahim Balderen-gana Madrileren egindako bisita bat oinarri duen ikus-entzunezko entzun eta ikusteko gomendioa ere egin gura izan dute. Youtube plataforman *Miñan* idatzita aurkitu daiteke. Bertan,

liburuaren nondik norakoez, ahozko literaturaz eta migratzaileen aferaz hausnartzen da.

'eLiburutegia', 24 ordu

Eusko Jaurlaritzaren *eLiburutegia* plataformaren bitartez liburu elektronikoak eta filmak online doan eskuratu eta erabiltzeko aukera dago. Hain zuzen ere, baliabide hauek erabili gura dituenak eta interesa duenak zenbait irizpide jarraituz *eLiburutegia.euskadi.eus* webgunean ehunka aukera aurkitu ditzake.

Marixol Iparragirrek hala eskatuta, ziegan bakartuta

Bisitarik ez, baina asteen lau dei gehiago izango ditu orain: hamabi, denera, zortzi minutukoak

I.B. ESKORIATZA

Marixol Iparragirre Brievako (Segovia) espetxean dago, eta koronabirusaren gaitza dela-eta ziegatik ez irteteko eskaera egin dio kartzelako zuzendaritzari, eta onartu egin diote eskaera.

Hala, telefonoz deitzera baino ez da aterako ziegatik; asteen lau dei gehiago izango ditu orain: hamabi, denera, zortzi minutukoak.

Larraitz Iparragirre Marixolen ahizpak adierazi duenez,

normalean baino arduratuago egon dira egunotan etxeetakoak: "Babes neurri bakar moduan, bisitak bertan behera utzi zituzten, baina, era berean, kartzelariak maskara eta eskularru gabe ari ziren. Martitzenean, kartzelariak maskara eta eskularruekin agertu direla esan digu Marixolek, eta higiene neurri batzuk ere hartu dituztela kartzelan: lixibarekin desinfektatzea. Hala ere, ez omen dago koronabirusarekin kutsatutako inor kartzelan".

"Guztioi eragiten digu liztor asiarren arazoak"

IÑAKI ZURUTUZA ERLEZAINA

Udaberrian sartu berri, liztor asiarren erreginak harrapatzeko zenbait tranpa ditu jarrita Zurutuzak erlategiak dituen auzoetan, ekoizpena ez hondatzeko asmoz

Imanol Beloki ESKORIATZA

Iñaki Zurutuza eskoriatzarra duela hiru urte hasi zen interesatzen erlezaintzarekin, eta gaur egun, zenbait erlategi ditu. Zaletasun gisa hasi arren, komertzializatzen ere hasi berri da aurretik; izan ere, *Arane ezitia* izenpean erregistratu du marka salmentarako. Gainera, liztor asiarren erreginak harrapatzeko tranpak jarri zituen hilaren hasieran, eta horren berri eman gura izan du.

Ogibide ez izan arren, gustuko zaletasunari zukua ateratzen ari zara, edo, hobeto esanda, ezta?

Burgosko eskola agrarioan ikasketak burutzen hasi nintzen asteburuetan, eta, hiru urtez ikasten aritu ostean, hortxe ari naiz. Marka erregistratu dut, eta ezta egiten hasi nintzenetik gaur arte pixka bat, gutxi, saldu arren, gustura ari naiz zaletasun honekin.

Zenbat erlauntz dituzu?

17 erlauntz ditut Mazmela, Lete eta Zarimutz auzoetako erlategietan, eta erlauntz bakoitzean 60.000 erle egon daitezke, eta erlauntz bakoitzetik, esaterako, 20 kilo ezti atera daitezke, dena ondo bidean.

Noiz batzen da ezta?

Urtean bi aldiz ateratzen dut nik ezta; abuztuaren hasiera



Iñaki Zurutuza erlezaina erlategian. NAIARA ZURUTUZA

"17 ERLAUNTZ DITUT ESKORIATZAKO MAZMELA, LETE ETA ZARIMUTZ AUZOETAN BANATUTA"

aldera eta irailaren azkenetara. Hala, loraldi ezberdinetatik ateratzen dut, eta atera daitekeen ezti kantitatea, berriz, urtearen arabera izaten da, loraldia nola datorren eta zenbat erlauntz dituzun.

Liztor asiarrek eragin ditzaketen kalteei kontra egiteko tranpak jarrita dituzu, ezta?

Hala da, tranpa horiek liztor asiarren erreginak harrapatzeko dira. Udaberri hasieran jarritzen dira eta ekainera arte uzten dira. Erlategiari kalte handia egiten diote liztor asiarrek, baina guztioi eragiten digu. Izan ere, erleak eramatera etortzen dira masiboki: erlekumeak eramaten dituzte, ezta jaten dute... Arazoa denona da, eta guztioi eragiten digu, soluzio eraginkorra topatzea ez da samurra.

LEINTZ GATZAGA 29



ALKATEAREN PARTEA

EUGENIO OTSOA


Kutsatu gabeko herri bakarra

Astebete pasa da jada alarma egoeran gaudenetik, denontzako da egoera arrotza, baina esan beharra dut herritarren erantzuna oso ona izaten ari dela. Leintz Gatzagako herritarrak ez dira etxeetatik irteten, lehen mailako beharrak asetzeko ez bada, eta hori txalotzekoa da. Laguntza sarea ere martxan dugu herrian, eta norbaitek bere burua eskaini gura badu laguntza eskaintzeko, herritarren artean dugun Whatsapp taldearen bidez helarazten du mezua, baita alderantziz ere: norbaitek erosketak egin behar baditu edo farmaziara joan beharra badauka, honen berri ematen du eta zerbait behar duenak eskatzea besterik ez dauka.

Bestalde, beste herri askotan bezala, hemen ere egunero irteten gara, 20:00etan, leiho eta balkoiatarara, egoera honen aurrean lehen lerroan dauden mediku eta erizainak txalotzera, eta horretarako, txalo zaparradaz batera, danbor, trikiti eta tronpeta hotsak ere entzuten dira, herritarrak alaitu eta animatu nahian.

Datozen asteotara begira, bestalde, printzipioz ez da aldaketarik egongo, hasieratik hartu ditugun neurri berberak mantenduko ditugu, jendeak oso ondo hartu ditu eta aipatzekoa iruditzen zait Leintz Gatzaga dela Debagoienean koronabirusagatik kutsaturik ez dagoen herri bakarra izatea; beraz, jarrai dezagun horrela, denon artean lortuko dugu eta!

Herritarrei eskerrak ematea besterik ez zait gelditzen, zaindu zeuen burua eta zaindu ingurukoak! Animo eta besarkada handi bat denoi!



JON ERRASTI

Liztor asiarren erreginak harrapatzeko

Liztor asiarren (*Vespa velutina*) kontra egiteko, Coca Cola, garagardoa, bermuta eta ozpina dituen nahasketa bat erabili du Zurutuzak.

Kalteak gutxitzeko

Lete, Mazmela eta Zarimutz auzoetan jarri ditu zenbait tranpa, erreginak harrapatzeko eta dituen erlategietan kalteak gutxitzeko asmoz.



Liztor asiarren erreginak harrapatzeko tranpa. I.BELOKI


Gatz produkzioa, geratu barik

Gatz Museoa itxita, bisitaririk ez baina gatz produkzioa martxan dute bertako langileek. Konfinamendu egoera aurretik ere erabiltzen zituzten higiene neurri berak eta lankideen arteko distantziak kontuan hartuta ari dira lanean. Hala, Gatzagako gatza bailarako dendetan edo *Dendago.com* webgunean online erosteko aukera dagoela jakinarazi dute.



ALKATEAREN PARTEA

GORKA ARTOLA



Atera diezaiogun onena txarrari

Badoaz bi aste etxean egon behar dugunetik, 14 egun luze. Dirudienez, beste hainbeste luzatuko da egoera hau, gutxienez. Egun hauek ez dira samurrak inorentzat, baina guztioi dagokigu motzago egitea luzeen biziko dituzten horiei. Guztioi dagokigu arduraz jokatu eta transmisioa geratzeko neurriak hartzea. Guztioi dagokigu datozen egunetan krudeltzen ikusiko dugun errealitate honi heldu eta herri bezala gainditzea.

Aste honetan gure inguruan eta bereziki Bergaran ezagutu ditugun COVID-19 positiboek kasuak ez dira asko, baina ez ditzagun datuok gure prudentzia jaisteko baliatu: asko izan gitezke positibo asintomatikoak, eta babes neurriak zorrotz hartzen jarraitu beharra daukagu.

Babesa eta prebentzioa, etxean egon behar izanda ere zaindu zuen osasuna. Adituek dioten bezala, babes neurri garrantzitsuena gure sistema immunologikoa prest izatea da eta. Baina aurreko astean nioen bezala,

osasun fisikoaren aspektuaz gain badira krisi honek gogor ukitzen dituen beste alderdi asko. Bakardadea, eta beldurrak, eta biolentzia matxista, eta lan galerak, eta ekimena, eta zaintza komunitarioa, eta erantzun kolektiboak, eta enpatia...

Atera diezaiogun onena txarrari. Herri bezala badaukagu ikasterik krisi honetatik eta aurrerantzean orain ikasitakoak aldaketak emateko balio dezala. Zaintza lanetan bakoitza ingurukoaren kargu egin gaitezen, babesa eman egoera honetan, baina ez dadila horretara mugatu. Ondoren ere elkarren beharra izango dugu eta, egin dezagun zaintza sare horretaz zerbait iraunkorra. Etxepeko dendak orain ematen digun zerbitzua gogoratu dezagun gero ere, eta zerbitzurik eman ezinda gelditu diren haiek ere kontuan izan ditzagun.

Zentzu guztiotan bergararrok erakusten ari zareten jarrera txalotzekoa da egoera berri honetan. Ehunka lagun besteen beharrak

artatzeko prest, gertukoenei lagunduz, boluntario sarean parte hartuz, 3D makinetan pantailak eginez,...

Eutsi diezaiogun jarrera honi krisi honen ostean ere.

Zer esanik ez egunero behar-beharrezko lanetan zaudeten guztiak: osasungintza eta beharrezko oinarriko zerbitzuetakoak, ageri-agerian, eskerrik asko zuei ere.

Eta, nire aldetik, aipamen eta esker on berezia udalean presentzialki lanean jarraitzen duzuen guztioi, eguneroko jarduna alde batera lagata garbiketa eta desinfekzio lanetan zabilzatenoi, herritarren zalantza eta beharrak artatzen ari zaretenoi, boluntarioen sarea koordinatzen edo

GIZARTE BEHAR URGENTEEI ERANTZUTEN ARITU GARA EGUNOTAN, ERAGILEEKIN ELKARLANEAN, GARBIKETA ETA DESINFEKZIO LANETAN...

larrialdi egoera honetan behin eta berriz borondate eta jarrera ezin hobe erakusten ari zareten langile publikoei.

Aurreko egunetan gizarte behar urgenteenei erantzuten aritu gara, herri-eragileekin boluntario sarea osatu eta koordinatzen, Caritasekin elkarlanean laguntza beharra duten familiei artatzea bideratzen, garbiketa eta desinfekzio lanak antolatzen eta beharretara moldatzen...

Egun hauetan, udaleko barne bilerak modu telematikoa martxan jartzen hasi eta hainbat eta hainbat erabaki proposatu eta lantzen ari gara: tasa eta zergen kobrantza datak atzeratzeko aukera eta hobari posibleak zuzenean eragina jasan duten aktibitateei, kirol abonuen trataera, azpikontrataturako zerbitzuen egoera... Eta ez dezagun ahaztu, hurrengo asteak gogorak izango dira oso, baina krisi honen benetako erronka ospitaleak husten hasi eta gure egunerokoari nola heldu asmatzean egongo da. Ez da lehengoa izango, ez da *normaltasuna* izango, onerako eta txarrerako. Asma dezagun onena ateratzen txarrari.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldiak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABAETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe Industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABAETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Inagarkia jami nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zentzikira.

Auzolana ohitura denean, elkar babestea dute joera

Koronabirusak eragindako alarma egoera beste era batera bizi dute landa eremuko auzo periferikoenetan: arauak "zorrotz eta zintzo" bete arren, itxialdia "eramangarriagoa" dela diote eta geldialdiak ez du eguneroko bizitzan herrigunean besteko eragin itzelik izan

Jokin Bereziartua BERGARA

Koronabirusak eraginda martxoaren 15etik indarrean dagoen alarma egoerak bat-batean aldatu die bizimodua bergararrei. Herritarren joan-etorria ia eten gabea zen guneetan apenas ikusten da herritarrik, bereziki arratsaldetik aurrera. Kaleak hustu egin dira, eta, besteak beste, sare sozialetako trafikoa izugarri hazi da. Hala dio Bedelkarrek sareotara asteon igo duen mezueta batek: "Egunotan, gure kaleak triste daude. Dena itxita. Isiltasuna. Dena hutsik. Komertzio txikia itxita egoteak ez du giro atseginik uzten. Online erosteko plataforma erraldoiei ez zaie herria axola. Ez dituzte kaleak koloreztatzen, ez dituzte enplegu duinak eskaintzen, eta ez dituzte zergak hemen ordaintzen (...). Bueltan gauzak hobeto egiteko aukera dugu; aprobeza dezagun, zaindu gaitezen elkarri. Bueltatuko gara; ez gara zutaz ahaztu, ez gaitzazu zuk gu ahaztu".



Angiozarko San Migel eliza eta AHTaren obrak. "Lanean ari dira", diote auzotarrek. J.A.M.

Itxialdia landa eremuko auzoetan
Orain arte erabat berriak eta ezezagunak izan diren irudiak utzi ditu konfinamendu egoerak herrigunean. Baina argazkia ez da horrenbeste aldatu auzo periferikoenetan: Osintxun,

Angiozarren, Uberan eta Elosuan, kasu. Azken errolda datuen arabera, Osintxuk 400 biztanle ditu; Angiozarko bailarak 312 biztanle eta Uberak 137. Eta, Elosuko alkate Iñigo Zubeldiaren kalkuluen arabera, "modu iraun-

korrean" Elosuan bizi direnak 25 bat izango dira gaur egun. Kontuan hartu behar da auzo horietan adinekoak direla bizi-lagunetako asko eta asko.

Uberan nabarmena da populazioaren zahartzea, esaterako. "Ari gara zaharrenei laguntzen; zer behar duten galdetu eta behar duten hori garajeen uzten diegu. Eurak dira zaintzarako behar handiena dutenak", dio Maddi Elortzarekin batera Uberako alkate den Gorka Buruagak.

Osintxun ere badago boluntario taldea. "Norbaitek beharko balu bagaude, baina, oraingo, ez dugu eskaerarik jaso. Nik uste dut bizilagun bakoitzak bere adineko senitartekoen ardura hartu duela erosketak egiteko, birziklatzeko eta bestelakoetarako", dio Osintxuko Herri Batzarreko Aitziber Alberdik. Angiozarren isiltasuna "nabarmena" bada ere, AHTaren lanek bere horretan jarraitzen dutela diote: "Bertakooi dagokigunez, baserri laneko hotsak bakarrik entzun daitezke, baina AHTaren lanek ez dira eten, etxetik ikusi eta entzun dezakegu lanean ari direla", esan du Angiozarko Herri Batzarreko Jose Angel Mikeok.

Elosuan alarma egoera ez da apenas igarri. "Distantziak mantendu beharra arraroa da, baina egunerokoa ez da aldatu. Herrira jaistean inpresioa ematen du, eta okerrera joango da; orain, batzuek inbidiaz begiratuko digute...", deritzo Zubeldiak.

Liburu elektronikoak eta zinema online, liburutegiari esker

Bergararrak liburuak edo bestelakoak maileguan hartzera joan ezin diren egunotan, Udal Liburutegitik gogorarazi dute herritarrek aukera dutela ehunka liburu elektroniko edota filma online doan eskuratzeko eta erabiltzeko. Eusko Jaurlaritzaren *eLiburutegia* (www.eliburutegia.euskadi.eus) webgunean daude horiek guztiak eskuragarri. Eta aukera dago bertara sartu eta liburuak edota filmak online ikusteko edota deskargatzeko. Udal Liburutegiaren bidez egin nahiko balitz, honako urrats hauek egin beharko lirateke: udal webgunean *Udal Zerbitzuak* atalean *Liburutegia* tartea aukeratu, eta bertan *Katalogora sartu* klikatuz gero, eskuman ageri den *eLiburutegia* atalean sartu; gune horretan, ezkerrean goian, ageri den *eLiburutegia* atalean identifikatu nortasun agiriaren zenbakia eta pasahitza jarrita -pasahitza eskatzeko udal liburutegira (943 77 91 62) deitu behar da, 08:30etik 13:30era-.

OHARRAK

010 telefono zenbakia

Erosketak egiteko, zaborra botatzeko edo botikak erosteko laguntza behar duenak 010 zenbakira deitu dezake, 08:00etatik 18:00etara.

Boluntario gisa izena emateko: bergarazaintzen@gmail.com.

Itxialdian euskaraz

Konfinamenduak iraun artean euskara online praktikatzeko eta praktikatu nahi dutenei laguntzeko: 650 67 16 91 (Jardun) edo jardunkultura@topagunea.com. Hasiara baten, astean ordubeteko bideo-hitzorduek izango dira bultzatuko direnak, baina taldeek euren artean ere adostu dezakete maiztasuna.

Etxean ere kirola egin

Udaleko Kirol Zerbitzuak itxialdian ere "bizitza osasuntsua eta aktiboa" egiten jarraitzeko etxean kirola egiteko aukera eskaini die, doan, herritar guztiei: Entrenadesdecasa.bpxport.es.

Nola bizi dute alarma egoera Osintxun, Angiozarren, Uberan eta Elosuan?



AITZIBER ALBERDI
OSINTXUKO HERRI BATZARRA

"Gogorra da. Egun asko dira, eta geratzen direnak. Gu ere etxetik ezin irten, ziburuak eta tabernak itxita... Hori bai, egunero dago hitzorduren bat leihora irteteko. Inork beharko balu badaude boluntarioak, baina eskaerarik ez dugu jaso, oraingo; nork bere adineko senitartekoa zaintzeko ardura hartu duela uste dut".



JOSE ANGEL MIKEO
ANGIOZARKO HERRI BATZARRA

"Arauk zintzo ari gara betetzen. Nabarmena da isiltasuna, baserriko lanek eta *oinarrizkoa* ei den AHTaren lanek apurtzen dutena. Naturaz gozatzeko aukera dugu oraindik ere, etxetik irten gabe ere bertan dugulako. Egun hauetan ohartzen gara zein estrategikoa den baserriko lana eta norberaren ortua izatea..."



GORKA BURUAGA
UBERAKO ALKATEA

"Adinekoak zaintzea da gure lehenasuna: fisikoki ahalik eta gehien bakartu, eta emozionalki gertu daudela sentiarazi; batzuek ia hiru aste daroatzagu gurasoak ikusi gabe. Maiz deitzen diegu, nola dauden edo ezer behar duten jakiteko. Animaliei jaten emateko eta herrian erosketak egiteko bakarrik irteten gara".



IÑIGO ZUBELDIA
ELOSUKO ALKATEA

"Beldurra eta kezka badaude, Elosuan bizi direnetako asko adinekoak direlako; inork laguntza beharko balu, Whatsapp talde bat badugu. Auzoa utzita dago eta konfinamenduan gaudenik ez da apenas igartzen; hori bai, uste dut hemen kalean baino eramangarriagoa dela etxean geratu behar izatea".



Begarako Erraldoi Taldeko kideak, talde argazkian BET

Urteurrena ospatzeko, marrazki lehiaketa

20 urte bete ditu aurten Bergarako Erraldoi Taldeak, eta, herritarrekin ospatzeko asmotan, erraldoiei buruzko haurrendako marrazki lehiaketa antolatu dute. Bi kategoriatan banatuta, parte hartzeko azken eguna maiatzaren 1a izango da

Jone Olabarria BERGARA

"Etxeko egonaldi behartuan haurrentzako eta horien gurasoendako lagungarri izateko asmoarekin" abiatu dute Bergarako Erraldoi Taldeko kideek marrazki lehiaketa. Taldearen XX. urteurrena da aurtengoa, eta, "herritarrekin ospatzeko" asmoz, erraldoiak beraiek protagonista izango dituen haurrendako marrazki lehiaketa antolatu dute.

Koronabirusaren krisiak ez-tanda egin aurretik jada hainbat ekimen zituzten abian taldekoek, baina egoerak behartuta bide berriak bilatu behar izan dituzte: "Ikastetxeekin batera proiektu bat garatu nahian genbiltzan,

haurrek erraldoiak egin eta gero denek batera partekatatu ahal izateko". Eskolak bertan behera geratu izanak, baina, asmo horiek zapuztu zituen eta ekintza berri hau jarri zuten martxan.

Urteurrena ospatzeko asmotan, Pentekosteetan "erraldoien egun handia" egitea aurreikusten zuten taldetik, kanpotik etorritako hainbat talderekin, baina egoera berrian ez dakite posible izango den.

Bi kategoriatan

Erraldoiak protagonista diren marrazkiak egitea proposatu dute, eta bi kategoriatan banatuko dituzte jasotako lanak: A kategorian 2 eta 7 urte bitarte-

koek egindakoak eta B kategorian, 8 eta 14 urte bitarteko gazteenak.

A kategoriako irabazleek Bergarako dendetan erabiltzeko 20 euroko bonua eta gomazko erraldoi bikote bat eskuratuko dute eta B kategoriakoek, berriz, 30 eta 15 euroko bonuak.

Maiatzaren 1a, azken eguna

Konfinamendua aprobetxatuta, maiatzaren 1a arte, oraingoz, egongo da marrazkiak aurkezteko aukera; *bergarakoerraldoiak@gmail.com* helbidera edo 688 77 88 92 Whatsapp zenbakira bidali behar dira lanak, egilearen izen-abizenak, kategorია eta adina adierazita.

GORA ETA BEHERA



AIZEPE ELKARTEA

Apurketa ugari Aizepe elkartearen asteon



Mintegi kalean dagoen Aizepe elkartearen atea apurru eta barrura sartu ziren astelehen arratsaldean, barruan hainbat apurketa eginda. Ikerketa abiarazi dute, baina atxiloketarik ez da izan.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

'Hezitzaile birtuala' gaztelekuan, jokoekin eta lehiaketekin

Gaztelekua itxita dagoen arren, *Hezitzaile birtuala* figura sortu dute, harremana ez eteteko eta entretenitzeko aukerak eskaintzeko. Whatsapp, Skype, bideo dei zein Instagram bitartez daude gazteekin kontaktuan. Parte hartzea oso ona izaten ari dela jakinarazi dute eta irabazleen artean sariak banatuko direla azaldu dute.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskalierak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



ALKATEAREN PARTEA

BEÑARDO KORTABARRIA

Garbi jokatu!

Izenburuko leloa oinarri hartuta, orain bi urte Antzuola garbi baten aldeko kanpainatxo egin genuen. Helburua bikoitza zen: 1-Herri garbi bat edukitzeko ohiturak hartzea. 2- Denok, iruzurrik egin barik, garbi jokatu, ohitura horiek hartzea.

Koronabirusak gaurkotasunera ekarri du leloa: garbi jokatu beharra dugu, denok; bestela, jai daukagu. Udaletxeko langileak kaleak, barandak, zintzilikarioak, zakarrontziak, zabalik dauden denden aurrealdeak, eta abar desinfektatzen ari dira. 45 antzuolarrez osatutako boluntario-talde bat laguntza behar duten etxeetatik bueltaka ari da, beren osasuna arriskuan jarriz; beste batzuk, aldiz, berera!

Adibideak nahi? Badauzkat:

"Kalean ezin dudanez erre, balkoian erretzen dut, eta bukatutakoan mutxikina leihotik behera!". Hautsontzi bat jarri ezazu, ba, eta bertan eduki errefusa atera arte.

"Txakurra ateratzeagatik kalera irteteko aukera daukat, eta, gainera, kaka ez dut jasotzen". *Jope*, hainbeste kostatzen al da? Jakin ezazu, arratoiei bezala, koronabirusari ere gustatzen zaizkiola txakurrek uzten dituzten pasteltxoak.

"Dendara 6-8 aldiz joaten naiz". Ez al duzu entzun? Ezinbesteko ez bada, etxean geratu!

"Eskuak garbitu behar dira sarri, distantzia gorde... hondakinak etxean ez ditut edukiko. Zakarrontzietan sartzen ditut". Eskerrik asko, majo!

"Zintzilikarioak mikrobioz beteta egon daitezke. Poltsak lurrean lagatzen ditut". Ezetz, egunero desinfektatzen ditugula, beti bezala ateratzeko. A, eta Mankomunitateko agindua garbia da: poltsak ez utzi lurrean!

Izenburura itzulita: garbi jokatu, elkartasunez... inguruarekin eta, batez ere, zeure buruarekin.



NIRE USTEZ

PATXI OLABARRIA

'Gorrotabirusa'

23 urte eta gero... etxean berriz. Ongi etorri *Eltzikorta*. Horixe zioen kioskoko pankartak. Martxoaren 15a zen, konfinamenduko lehen eguna. Ertzaintza jendeari etxeratze esaten hasia zen goizetik, baina arratsaldean koronabirusak baino indar handiagoa hartu zuen batzuegan gorrotabirusa-k.

Eltzikorta Herrerako espetxetik herrira iritsi baino ordu erdi lehenago uniformedunak azaldu ziren eta pankarta kendu zuten, amorruz.

Gustura geldituko ziren ordu horretarako Marlaskaren aginduetara zeuden ertzainak, baina alferrrik. Ordurako etxe bat baino gehiagotako balkoietan ongiatorri mezuak ageri ziren, jendea irrikaz zegoen horrenbeste urtean preso eta gaixorik egon dena agurtzeko.

Preso egon denak badaki zenbat aldiz amesten den askatasun eguna, baina *Eltzikorta*-k ez zuen inoiz amestuko egun horretan bizi izan zuena. Preso irten berria kalean gora, libre, eta balkoietatik txaloka herritarrek, preso.



Herriko erdigunea hutsik; Herriko Plazan lasaitasuna nagusi asteen. AMAIA MUNDIÑANO

Arduraz jokatzeko dihardute herritarrek

Goizean erosketaren bat egiteko soilik ikus daiteke mugimendua Antzuolan; hala ere, herriko kaleak eta bazterrak hutsik daude eta isiltasuna da nagusi. Apenas sortzen da ilararik eta alarma egoerak ezarritako neurriak betetzen ari dira herritarrek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolan egoera lasaia izaten ari da asteen. Elikadura dendentan jendea pilatzen den arren, ez dira aparteko ilarak ikusten. Goizean mugimendu pixka bat egon badago, baina arratsaldean ez dagoela inor kalean diote herritarrek. Antzuolan koronabirus kasu bi daude oraingoz, eta herritarrek arduraz jokatzeko ari dira.

Elikadura dendak, zabalik

Askotariko elikagaiak saltzen dituzten dendak, okindegiak, harategia, botika, estankoa eta informatika denda zabalik daude Antzuolan. Hori bai, ordutegi mugatua dute eta goizez soilik zabaltzen dute zenbaitek. Ordutegi murriztua duen horietako bat da Kontxi Laskurainen Itzar estankoa: "10:00etatik 12:30era inguru irekitzen dut soilik. Tabakoa, entretenitzeko aldizkari zein egunkariak eta haurrentzako kartoi meheak eroatera etortzen dira herrita-

rrak. Neurriak hartuta ditugu estankokan, baina txanponak hartzeko orduan kontu are handiagoa daukat. Eskularruekin gabiltza eta une oro alkoholarekin garbitzen ditut. Kalean ez da haur bat bera ere ikusten eta egiten ari diren esfortzua txalotzekoa da. Horixe da herrian nabarmentzen dena: haurrek zein jarrera eredugarria duten".

Desinfekzio lanak

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarría jakinarazi du ur-parkea desinfektatzeko erabiltzen duten likido bera darabilela Osasun Sailak inguruak desinfektatzeko. Horregatik, likidoa badutela dio; ez, ordea, baliabide material askorik: "Produktua

badaukagu, ur-parkean erabiltzen duguna; izan ere, gomendatu duten bera da eta dezente daukagu, gainera. Baina maskarak eta arropa falta zaizkigu. Hala ere, eskuratzeaz gaude eta desinfekzioarekin jarraituko dugu".

Eztalako obra, geldi

Administrazio prozedura guztiak daude geratuta eta horrek bete-betean Eztalako hitzarmenari eragin dio. "Arzamendi enpresari esleitua zegoen obra, eta kontratua sinatzea falta zen. Sinadura aurreko astean egin behar genuen, eta, beraz, sinatu gabe dago. Hau dena pasa arte ezingo da. Osoko bilkura ere, oraingoz, atzeratuta daukagu; asko luzatzen bada egoera hau, baliteke osoko bilkura birtualki egitea". Alkateak aurreratu du maiatzerako ekimen guztiak, San Isidro tarteko, kolokan dardela. "Baliteke soka luzea ekartzeari honek eta batek daki herriko jaiak ere egingo ote diren egoera honetan".

**ADMINISTRAZIO
PROZEDURAK ETENDA,
EZTALAKO OBRA GELDI
DAGO, HITZARMENA
NOIZ SINATUKO ZAIN**



ALKATEAREN PARTEA

IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA

Esfortzua da, baina bizitzak merezi du

Bigarren astea betetzear, etxean. Ez da egoera erraza, ez horixe. Esfortzu itzela da eskatzen dena, baina merezi du. Bizitzak merezi du. Birus honen aurka ahulenak diren taldeak babestea merezi du.

Horren jakitun, txukun ari gara elgetarrok esandakoa betetzen. Beharrezko jardunetik aparte, hutsik daude kaleak, eta denda eta azokako postura ilaretan bi metroko aholkatutako tartea betetzen dugu. Udal zerbitzuak itxita daude, baita bulegoak ere. Ekitaldi ugari gelditu da bertan behera; atzeratu behar izan dugun azkena apirilaren 26rako iragarri genuen gerrako haurren omenaldia izan da.

Udaletik ari gara indartzen kaleen eta eraikinen garbiketa. Jende gehien dabilen inguruak desinfektatzen ditugu, baita barandak, farolak eta semaforoak ere. Hondakinak biltzeko edukiontzia ere ihintzagailuekin desinfektatu ditugu. Udal eraikinen sakon garbitu ditugu eta bertako materiala desinfektatzen ari gara.

Bi erritmo ditu, ordea, gizarteak; baita Elgetak ere. Kaleak hutsik daude, eta halako krisialdi baten ezinbestekoak ez diren lantegiak beteta. Asteburuan etxean sartuta egon ondoren, astelehenean ezinbestekoa ez den lanpostura joan behar izateak ardura sortzen digu askori, birusa zabaltzeko autobide izan daiteke eta.

Halako egoera larri baten aurrean, guztion artean aurrera egitea nahitaezkoa da. Ohitura aldaketa erraz batzuekin, zentzuz jokaturik, asko egin dezakegu: eskuak sarri garbitu, beste pertsonetik distantzia utzi, dendetan bezerorik badago ez sartu, ilarak kanpoan egin...

Eta edozer behar izanez gero, laguntza behar izanez gero, ez egin zalantzarik eta deitu udaletxera: 943 76 80 22 edo 634 43 84 58 telefono zenbakietara, hain zuzen ere.

Esfortzu handia da, baina bizitzak merezi du!

36ko gerrako umeei egitekoa zen omenaldia, atzeratua

Asteon eman dute erabakiaren berri Intxorta 1937 kultur elkarteak eta Elgetako Udalak. "COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz, apirilaren 26rako iragarri genuen omenaldi ekitaldia urrian egingo dugu". Iragarri berria zuten 2020ko egitaraua eta hasiak ziren antolaketa lanetan; izan ere, Elgetan urtero egiten dira Intxortako fronteko erresistentzia gogora ekartzeko ekitaldiak apirilean. Gerra garaian erbestera ihes egin behar izan zuten umeei ziren omenaldia jasotzekoak. Hala, koronabirusak eragindako osasun larrialdi egoera dela eta ekitaldiok urrira atzeratzea erabaki dute antolatzaileek.

Autobus zerbitzua oraindik gehiago murriztu dute

Eguaztenetik ordutegi berriak daude autobus zerbitzuan; izan ere, murrizketak egon dira. Erabiltzaileei gomendatzen zaie ordutegien taula eguneratua kontsultatzeko. Elgetatik igarotzen zen Bilbo-Donostia-Bilbo zerbitzu, esaterako, bertan behera gelditu da. Elgeta-Bergara eta Elgeta-Eibar lineetan, berriz, murrizketak egon dira. Aste barruan Elgetatik Eibarrera jaisteko aukera egongo da 06:50ean, 11:20an, 15:50ean eta 18:50ean. Bergararako autobusak, berriz, 11:30ean, 18:30ean, 20:30ean eta 21:40an izango dira.

Ordutegi berriak ikusgai daude *Lurraldebus.eus* atarian zein herriko autobus geltokietan.

Erosketak, txandaka eta prebentzio neurriekin

Lau negozio daude zabalik, egunotan, herrian. Gehienez ere bi bezero egon daitezke barruan aldi berean, eta kutsatzeak saihesteko hainbat neurri hartu dituzte arduradunek. Zerbitzua eskaintzeko ordutegian ere aldaketak egin dituzte gehienetan

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

"Lan handiko egunak izan dira aurreko astekoak", adierazi du Ugari dendako Bea Bouzasek. "Martitzenera arte mugimendu handia izan dugu. Badirudi gauzak normaltasun batera itzuli direla orain". Zenbait produktu laster agortu zitzaizkiola azaldu du: "Eskularruak, batez ere, eta amoniakoa ere bai. Jendea etxean dago eta garbitzeko aprobetxatzen ari da, antza". Gainerakoan, betiko martxa daramala dio Bouzasek, baina hainbat prebentzio neurri hartuta. Gehienez ere bi bezero daude aldi berean dendan, eta batekin amaitutakoan eskuak garbitu eta mostradorea desinfektatzen du. "Maskara daramat, kutxan ez dagoelako metro eta erdiko distantzia mantentzerik, eta ez dudalako bezerorik kaltetu nahi". Prebentzio neurri moduan, bestalde, bakkarririk dago dendan. Ordutegia, oraingoan, betikoa da.

Botikak, lehenasuna

Elkoro botikan ere sumatu dute gauzak lasaitu izana. Egunkariak dira maskarak, alkohola eta eskularruak agortu zirela, eta termometroak ere bai, azkenean. "Baneuzkan biltegian, baina bukatu egin dira horiek ere. Auskalo noiz jasoko ditugun berriz!". Elena Elkoro bakarrik dago egunotan botikan eta bisera berezi bat darama jarrita. "Amaia etxetik ari da lanean, ni gaixotuz gero erreleboa ziurtatuta egoteko". Ordutegia moldatu egin dute: 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara dago zabalik. Zapatuetan, goizetik bakarrik. Elkorok nabarmendu du larrialdi egoerak irauten duen bitartean botikak eta produktu sanitarioak -bendak, aposituak...- saltzeko dagoela. "Hori da lehenasuna. Ilararik ez badago ez dut arazorik botikan ditudan beste-lako produktuak saltzeko, baina jendeak ulertu behar du larrial-



Erosketak egiten Bea Bouzasek Ugari dendan. L.Z.L.

LANEAN JARRAITZEN DUTEN MERKATARIEK KONTZIENTZIATUTA IKUSTEN DITUZTE ELGETARRAK

di egoeran gaudela eta botikak direla lehenasuna. Prebentzio neurriak hartu behar ditugu eta horrek ere denbora hartzen du. Bezero bakoitzaren ostean eskuak eta mostradorea desinfektatu behar ditugu, eta pertsona bakarra dago artatzeko".

Botikariak mezu argia du elgetarrendako; batez ere, arrisku taldekoak direnendako: "Egun zaitezte etxean. Hau ez da txantxa. Ondo egin behar da konfinamendua".

Horniketa arazorik ez

Goikoetxe harategiko Imanol Albizuren ustez, ezarritako neurriak betetzen ari dira elgetar gehienak. Egunkariak baino bezero gehiago dituela dio, eta goizetik gehienak. Hala, 20:00etan beharrean 19:00etan ixten du. "Erritmoa jaitsi egin da apur bat, baina normala ere

bada, aurreko astean jendeak zenbat genero eraman duen kontuan hartuta. Hozkailuak beteta egongo dira oraindik". Hasiera batean zenbait hornitzaileekin izandako zailtasunak gaitzuta daudela dio. "Denok harrapatu gintuen bat-batean kontu honek, eta normala ere bada. Gauzak orain normaldu egin dira, eta ez dago horniketa arazorik". Harategian ere gehienez bi bezero egon daitezke barruan, eta kanpoan egiten da ilara. "Paseoan dabilen bat edo beste egon daiteke, baina orokorrean kontzientziatuta ikusten ditut elgetarrak".

Julian Markiegik 06:40 bueltan zabaltzen du postua, plazan. 11:30etik 13:00etara, berriz, kioskoan egoten da. "Arratsaldean itxita daukat", dio. Eskularrukin egiten du lan plazan, eta gertu du beti desinfektatzailea. "Tarteka, ondo-ondo garbitu eta horrela gabilta". Kontzientziatuta ikusten ditu elgetarrak. "Baten batzuk beldurtuta ere bai. Pauso bat aurrera egin ordutegi egiten dute atzera". Itxialdia dagoenetik ohikoa dena baino egunkari eta aldizkari gehiago saltzen ari dela dio.

'Ttap' berritua eskuragarri!

+



'Gorabeherak'
websailarekin!

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN

Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan





ALKATEAREN PARTEA

IZARO ELORZA ARREGI

Elkarrekin

Orain artean ezezagun genuen egoera batean bizi gara. Etengabea da dekretu zaparrada iragartzen duen albiste uholdea. Egunez egun, aldatuz doa egoera. Goraka doa COVID-19 gaitzak harrapatutakoen kopurua. Eta, egoera honetan, erantzukizunez besterik ezin dezakegu jokatu. Geure esku ditugun baliabide guztiak jartzea, zaurgarrien diren sektoreei bultzada ematea, herritarren segurtasuna bermatzea... Argi daukagu: norik bere aletxo jarrita besterik ezin diezaiokegu aurre egin egoera honi.

Astebetean hamarnaka neurri, gomendio eta erabaki. Horixe da krisia hasi zenetik Udalak bere egin duen errutina. Geure egunerokoa unean uneko dekretuetara moldatu, herritarren ongizatearen zein segurtasunaren bermerako bitartekoak eskaini, udal langileen segurtasuna bermatzeko neurriak hartu, beharrezko diren lan presentzialak segurtasunez egin daitezen bermeak jarri...

Eta jakin badakigu bide honetan ez gaudela bakarrik, alboan zaituztegu. Ehun herritarrek baino gehiagok eman duzue

JAKIN BADA KIGU BIZI DUGUN BIDE HONETAN EZ GAUDELA BAKARRIK, ALBOAN ZAITUZTEGULA

izena boluntario sarean, etengabeak dira auzokideekiko dituzuen laguntza keinuak, hainbat kolaborazio-ekimen sortu dituzue azken egunotan -EPI biserak eta arnagailu mekanikoetarako piezak egiten zabilzate Maker

komunitateko kideak, telazko maskarak egiten diharduzue hainbat herritarrek, entretenimendurako edukiak sortzen ari zarete hainbat eragile, eta abar, eta abar... Mila aldiz esan badut ere, mila eta batgarrena ez dago soberan: eskerririk asko!

Ostera, zerbitzuak moldatu behar izatera eraman gaitu egoerak, eta berriak ere sortu ditugu, unean uneko beharrei erantzuna eman guran. Esaterako, egoera berezi honetan, martxan jarri dugu autonomoendako eta mikroenpresendako informazio zein aholkularitza zerbitzua. Bestetik, indartu egin dugu kale garbiketa zerbitzua, haurrendako zein gaztetxoendako denbora-pasa euskarriak sortzen gabiltza, hasiak gara hainbat herritarrei deika euren egoera zein den ezagutzeko... Zintzoki diotsuet: laguntza beharra baduzue, deitu lasai 688 88 65 19 telefono zenbakira edo idatzi saretuz@onati.eus helbidera. Herritar asko daude laguntzeko. Elkar zaindu gaitzen.

Bestetik, etxekoekin ordu asko egitera garamatza konfinamenduak. Horri esker, gauza berriak ikasiko ditugu, sekula egin bakoak egin, irudimenez, goxotasunez... Baina izango dira unean uneko liskartxoak ere. Saia gaitzen une horiek ahal den egokien kudeatzen. Ostera, gogoan ditugu euren erasotzaileekin batera konfinaturik dauden emakumeak ere: eraso matxistaren beldur izan edo seguru sentitzen ez bazara, eska iezaiezu laguntza auzokideei edo deitu 900 84 01 11 telefono zenbakira. Anonimoa da eta ez du arrastorik uzten.

Bukatzeke, zoritxarrez, badira koronabirusak harrapatuta hil diren oñatiarrak. Une zail hauetan, doazkizuela geure doluminak haien senitartekoei. Animo eta mila besarkada. Era berean, egun hauetan gure artetik joan diren herritarrek ere ezin izan dute behar moduko agurrik jaso. Jakin badakigu berez gogorrek diren uneak gogorrago bilakatzen dituela horrek. Beraz, mila besarkada eta doluminak haien senideentzat ere.

Ez da bide xamurra izango, baina ziur naiz egoerari aurre egitea lortuko dugula azkenean. Guztiok batera. Elkarrekin.



Oñatiko anbulatorioa. MAIALEN SANTOS

Gela berezi bat prestatu dute osasun etxean

COVID-19 gaitzaren sintomak dituztenendako gela berezi bat prestatu dute Oñatiko anbulatorioan. Osasun etxera medikuarekin txanda hartzeko deitzen duenari telefonoz deitzen diote eta egoeraren arabera lotzen dute kontsulta presentziala

Oihana Elortza OÑATI

Herritarrek arduraz jokatzeko ari direla dio osasun etxeko zuzendari Txaro Martinezek, benetako kezka dutenean eskatzen dutela medikuarekin egotea. Anbulatorioan, baina, protokoloa ezarrita dute, eta, herritarrek txanda hartzeko deitzen duenean, etxera deitzen diote bertatik handik gutxira, zer duen jakiteko. Telefono bidez egindako balorazioaren arabera erabakitzen dute medikuek herritar horrek anbulatoriora joan beharra duen edo ez. "Dena dela, hurrengo egunetan ere deitzen diogu etxera, zelan dagoen jakiteko eta bere egoeraren jarraitpena egiteko. Eta telefonozko balorazioan pentsatzen badugu anbulatoriora etorri eta hemen ikusi behar dugula, horrela egiten dugu", dio Martinezek.

Beharrezko analisiak

Anbulatorioko gela bat egokituta dute COVID-19 gaitza izan dezakeen herritarra artatzeko.

"Gaitzaren sintomak dituzten herritarrek hartzen ditugu gela horretan. Babestutako jantziekin eta materialekin lan egiten dute gela horretako osasun profesionalak eta eurek egiten dizkiete azterketak herritar horiei. Beharrezkoak ikusten dituzten analisiak ere hor egiten dizkiete", gaineratu du Oñatiko anbulatorioko zuzendariak.

Zerbitzuari dagokionez, Martinezek esan du ohiko zerbitzua ari direla eskaintzen anbulatorioan. "08:00etatik 20:00etara dago zabalik. Aldatzen den bakarra da egoera honetarako prestatu dugun gela berezi hori 15:00ak arte bakarrik egongo dela zabalik; 15:00etatik 08:00etara Arrasateko anbulatorioan hartuko dituzte gaitzaren sintomak dituzten oñatiarrak", zehaztu du. Goizetan analisiak egiten jarraitzen dute, baina "beharrezkoak bakarrik orain". Pediatría zerbitzua eta etxez etxeoko ohikoak dira, betiko moduan ari dira lana egiten.

Autonomoendako eta mikroenpresendako zerbitzua jarri dute

Autonomoendako eta mikroenpresendako aholkularitza eta informazio zerbitzua jarri du martxan Oñatiko Udalak.

COVID-19aren ondorioz erakundeek martxan jarri dituzten laguntza neurrien inguruko oinarriko informazio eta aholkularitza zerbitzua emango zaie Oñatiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko autonomo eta mikroenpresei. Udaleko Sozioekonomia Sailak kudeatuko du zerbitzu hau. Beharra duen herritarrek bi modu ditu zerbitzua erabiltzeko: 943 00 31 98 telefono zenbakira deituta edo mezu elektronikoko bat bidalita helbide honetara: enplegu@onati.eus.

Egun bizi duen egoera honetan herriko zerbitzuetan lan egiten duten herritarrei lagundu gura die modu honetara Udalak, ezohiko egoera honen aurrean izan ditzaketen edozein zalantza edo galdera argitzeko eta beharrezkoa duten laguntza aholkuak emateko.

Apirilaren 3ra arte eman daiteke izena Oñatiko udalekuean

Koronabirusak eragindako ezohiko egoeratik, Oñatiko Udalak luzatu egin du uztailean egingo diren udaleko udalekuean izena emateko epea. Apirilaren 3a izango da azken eguna Oñatin bertan egingo diren udaleku irekietan zein arte udalekuean izena emateko.

Bi bide daude zabalik izena emateko: udal webgunean sartuta, www.onati.eus helbidean, edo telefonoz deituta. Telefono zenbaki bat jarriko du Udalak herritarren eskura, udalekuei lotutako zalantzak argitzeko edota horietan izena emateko. Hauxe da zenbakia: 688 63 43 40. Arratsaldeetan, 16:00etatik 19:00etara bitartean jasoko dituzte deiak. Apirilaren 3ra arte egongo da martxan zerbitzua.

Udal udalekuak ekainaren 29tik uztailearen 24ra bitartean egingo dituzte. Udaleku irekiak 2008tik 2016ra bitartean jaiotako umeendako izango dira eta arte udalekuak, LH-3tik DBH-4ra bitartekoendako.

"Disfrutatzeko erronkak proposatu gura ditugu"

ROSA MONDRAGON ESKOLA KIROLEKO UDAL TEKNIKARIA

Oñatiko Eskola Kirolak bere jarduerarekin jarraituko du, bide birtuala erabilia bada ere, eta astero erronka bat jarriko du herritarrendako; duatloia da lehenengoa

Oihana Elortza OÑATI

Jardunaldien egutegia aurrera eramanez gura du Eskola Kirolak eta ekintza desberdinak proposatu ditu.

Zeintzuk dira ekintza horiek?

Desberdinak izango dira astero. Aste honetako, esaterako, da lehenengoa, eta, zapatuan duatloia egitekoak zirenez, ba, duatloia izango da erronka.

Eta nola egitea proposatzen duzue?

Era birtualean, noski. Gure webgunean jarriko ditugu astero gure asmoak eta zer egin eta nola azaltzen duten testuak. Possible da gaiari lotutako bideoak ere eskegitzea, aste honetan moduan, ideiak emanez edo kirol hori nola etxean nola praktikatu daitekeen erakutsiaz. Gainera, beti ez dauka zertan kirola izan. Hau da, duatloia da gaia, baina, agian, norbaitek marrazki bat egin dezake gai hori hartuta, edo abesti bat sortu edo argazki bat partekatu. Gure helburua da egoera berezi hori probokatzea eta disfrutatzea.

Zer egin behar da parte hartzeko?

Astero jarriko dugu erronka bat eta izen-ematea zabalduko dugu. Jendea apuntatu egingo da eta gura duenak bere emaitza bidaliko digu guk hori sarean zintzilikatzeko.

Nola otu zitzaizuen ideia hau?

Ikusten dugu mezu mordoa ari zaizkigula heltzen toki guztietatik etxean egon behar dugun sasoi honetan egiteko. Eta pentsatu genuen aholkuak eman baino, ekintzak planteatzea hobe izango zela.

Nola ari zarete prestatzen?

Ikastetxeen laguntzarekin orain ere. Ikastetxeetan dauden Eskola Kiroleko monitoreak lan eta lan ari dira. Beste ikasgai batzuetako irakasleek materiala bidaltzen duten moduan, Eskola Kiroleko ere proposamenak egitea gura dugu. Ikasleekin dabilzan monitoreak gazteak dira, ideia pilo bat dituzte, eta



Rosa Lasagabaster. R.L.

"GIZTIARRAGOA DEN GIZARTE BAT LORTZEA IZAN BEHAR DA EGOERA HONEN ONDORIOETAKO BAT"

horiek aprobetxatu eta elkarbanatu gura ditugu herritarren artean. Eta hori da proiektu honen beste erpin eta erronka garrantzitsu bat: gura dugu denendako izatea. Eta moduak bilatzen ari gara ordenagailurik edo konexiorik gabe dauden herritarrengana ere heltzeko. Ikastetxeek lokalizatuta dituzte, gutxi gorabehera, nortzuk diren horrelako egoera batean egon daitezkeenak. Eta saiitzen ari gara oztopo horiek gainditzen eta konponbideak bilatzen. Izan ere, itxialdi honetatik aterako dugun ondorioetako bat izango da gizatiarragoa izango den gizarte bat behar dugula. Eta denok ahalegindu behar dugu horretan.

Eskola Kiroleko filosofiari jarraituz, beste aholku batzuk ere eman gura dituzue, ez bakarrik kirolari lotutako erronkak.

Bai; mugimenduari besteko garrantzia ematea beste jardueri ere: etxeko ohiko rolak aldatzen jolastea, pantailen aurrean ordu asko ez igarotzea, gelak aireztatzea, atsedean hartzea eta etxekoekin egoten disfrutatzea. Askotan kexatu izan ohi gara etxekoekin egoteko denbora gutxi izaten dugula; orain da aukera horretaz disfrutatzea.

Zein da hurrengo asteko erronka? Pentsatu duzue?

Eskalada eta herri kirolak. Gainera, Aloña Mendiko eskalada saileko kideekin eta Herri Kiroleko Federazioarekin ere hitz egingo dugu gure ideien berri emanez, zabaldu eta kolaboratu gura badute, horretarako aukera emanez.

Oñatiko mugak zeharkatuko dituen egitasmoa da, beraz?

Bai, bai. Edozeinek parte har dezake, izan Oñatikoa, izan Japoniakoa. Egitasmoak ez du mugarik, ideiek ez dute mugarik, eta erronka hau guztiei zuzendutakoa da.

Nola helarazi diezazuekegu egingutakoa?

Hauxe da gure helbidea: oinati.eskolakirola@gmail.com. Zalantzak ere galdetu daitezke hor.

Gazteekin kontaktuan jarraitzeko, hainbat ekintza

Oñatiko Gaztelekuak txapelketak, erronkak eta proposamen desberdinak antolatu ditu egun hauetarako

Amaia Aranegi OÑATI

Konfinamendu egoera uste baino luzeagoa izango denez, hainbat ekintza antolatu ditu herriko Gaztelekuak, gazteekin harremana izaten jarraitzeko eta hauek entretenimendurako ekintzak izateko. Pasa den eguenetik txapelketak, erronkak eta proposamen desberdinak eskaintzen ari dira Instagram eta Whappapeko difusio taldeen bidez. Kozinatze errezeta bat, ariketa fisikoa egiteko proposamen desberdinak, gaur egun entzuten diren gaiekin 10 gal-

deraz osatutako galdetegiak, koreografia batekin dantza bat egitea... izan dira orain arte proposatutako ekintzak, baina egunero ekintza berriak eskainiko dituzte: "Egun hauek hobeto eramateko alternatiba desberdinak eskaintzea da gure helburua eta jendearen parte hartzea sustatu nahi dugu", dio Gaztelekuko hezitzailea Iñigo Ugartek.

Asteazken ekintzak proposatu dituzte eta asteburuetan, berriz, pelikulak gomendatzeko asmoa daukate.

Herrixa Kantuan ekimena balkoietan egingo dute bihar

Bihar, zapatua, egingo da martxoko Herrixa Kantuan ekimena, 12:30ean, baina, kalean egin ordez, balkoi eta leihoetara atera eta hantxe abesteko proposatu dute Jose de Azpiazu musika eskolako irakasleek. "Normalean kantatzen ditugun piezen artean ezagunenak aukeratu ditugu biharko; berezia izango da", dio Arantzazu Bikuñak.

Liburuak entregatzeko epea luzatu egin dute

Liburutegitik maileguan hartutako liburu, DVD edo CDren bat izanez gero, ez dago zertan epe barruan entregatu. Egoera nola dagoen ikusita, apirilaren 1era arte luzatu dute entregatzeko epea. Momentuko data da hori, eta baliteke luzatzea. Etxeko egonaldi honetan ere irakurtzeko gomendatu dute liburutegiko langileek.



NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

Burua lehengo lepotik?

Koronabirusak, oso denbora gutxian, hankaz gora jarri gaitu, ez dakit oso garbi nondik gatozen, baina are gutxiago nora goazen. Birus honek garapen oro eten du eta noraezean jarri. Ziurtasun oso gutxiko egoera baten aurrean gaude. Oso zalantzan daude orain arte egin dugun ibilbidean nagusi izan diren balioak: guztionak diren lehengaien neurririk gabeko xahutzea, lehia, globalizazioa, klase sozialen arteko arrakala... Azken finean, gaur eta hemen, datozenak hor konpon. Iruditzen zait begirada altxatu eta ikuspegi luzeagoko estrategiak garatu beharko genituzkeela, hurrengo belaunaldiei ere duintasunez bizitzeko aukera eskainiz. Baita horretarako pribilegiotzat ditugun gauza asko alde batera utzi behar baditugu ere. Gizarte osoaren kolapsoa bertan ei dago, azken hamarkadetan gure neurritik kanpo ari gara, dagokiguna baino askoz gehiago xahutu dugu. Munduak bizirik jarraitzea nahi badugu, arduraz jokatu beharko dugu.

Hainbat politikariri irakurri diet koronabirusaren aurkako gerra irabazten dugunean gizarte moduan indartsuago izango garela. Horratz, nire galdera: zertarako? Lehengo bidetik jarraitzeko?

Osasuna lehenesteko beharrak albo-kalteak ekarriko ditu ekonomiara

Geldialdi egoerak sektore ia guztiak kolpatu ditu une berean, baina, adituen arabera, enpresari txikiak, autogintza, turismoa eta makina-erreminta izango dira kalte handienak jasango dituztenak; geldialdia zenbat luzatzen den ere izango da gako nagusietako bat

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Koronabirusak eragindako krisiaren aurretik jada entzuten zen atzeraldi ekonomiko berri baten mamua zeterrela: *brexita* zela, AEBen gerra komertzialak Txinarekin, Europarekin... Horri guztiorri Koronabirusak eragin duen geldialdi efektua gehituta –lehenik Txinan, eta gero Europan eta ia mundu osoan–, ziurtzat jo daiteke atzeraldi baten aurrean dagoela mundu ekonomia. Atzeraldi bat gertatzen den bakoitzean, aurreko atzeraldiekin konparatzeko ohitura oso hedatua dago. Kasu honetan, ia saihestezina da 2008koarekin alderaketarik ez egitea, berriki pasatu den gaitz bat delako. "Iragartzen ari ziren Mendebaldeko finantza krisia orain lehortzen bada, eraginak 2008ko krisiaren antzerakoak izan daitezke, batez ere, iraupen aldetik" azaldu du Ekai Centerreko ikerlari Adrian Zelaiak. Egoera horretan, indar gutxien dutenek sufrituko dute gehien, eta horien artean daude, zalan-zalarik gabe, herri komertzioetako jabeak eta bestelako autonomoak. Eurak izan dira pertsona jaisten eta diru sarrerak eteten lehenak, eta jada egin dituzte lehen estimazioak. Konfinamendu egoera gehiago luzatzen ez bada, batez beste, komertzioko 7.500 euroko galerak izango dituztela azaldu du Arrasateko Ibai-arte elkarteak. Hori, gastu finkoei dagokienez, stocka ez saltzeagatik izan ditzaketen galerak zenbatu gabe.

Epe motzean, bereziki, egongo dira kalte gehiago jasango dituzten beste sektore batzuk. Airelineak eta turismoarekin lotutako adar guztiak dira garbientako batzuk, baina badau-

de gehiago. "Autogintza eta makina-erreminta oso geldituta daude. Horiek dira gehien sufrituko dutenak. Zerbitzuetara bideratutako negozioek, unibertsitateek kasu, askoz gutxiago

sufrituko dute, distantziara zerbitzua emateko askoz presatuagoa daudelako", azaldu du Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko dekanok Lander Belokik.

"Osasungintzan eta lehen sektorean inbertsioak ezingo dira kritikatu"

JOSEBA BARANDIARAN BBVA-KO IKERTZAILEA

Euskadi Irratiko *Faktoria* programako ekonomia aditua nahiko baikorra da etor daitekeen krisiaren irismenarekiko.

2008koa moduko krisi baten aurrean gaude? Iraupen aldetik, batez ere...

Esango nuke ezetz. Etorriko den krisiak bi ondorio izango ditu: epe laburrekoak eta ostekoak. Epe laburrekoak nabaria dira, gehienok etxean gaudelako, eta produkzio eta saltoki asko gelditu daudelako. Epe laburreko kalteak konpentsatzeko hartzen diren erabakiek baldintzatuko dituzte osteko eragin posibleak. Lanpostuen galera egongo da? 2020an, bai, ziur. Berez epe honetan kontratua amaitu eta ez berrizteagatik, une honetan 200.000 lanpostu galdu dira, esaterako. Barne produktu gordina jaitziko da? 2020an, bai, ziur. 2008ko krisian har batek usteldu zuen sagarra; etxegintzaren burbuilak eta neurrigabeko zorpetzeak. Orain ezberdina da oso. Ez da sektore batek besteak zipiritinduko dituela, sektore gehienak une

berean kolpatu dituen zerbait baizik. 2008ko krisitik hainbat ikasgai atera ditugu, eta erabaki zuzenak hartzen badiugu trantsizio une honetan kalte txikiagoak izango ditugu; tamainan eta denboran.

Zein ikasgai aterako dugu krisi honetatik?

Adibidez, garrantzitsua zer den edo zer ez den bereizten ikasiko dugu. Koronabirusa agertu aurretik Europako potentzia handienek gogor kritikatu zituzten Batasunak lehen sektore bideratzen dituen dirulaguntzak. Baina nola kudeatuko genuke hau gure lehengaiak Hego Amerikatik inportatu beharko bagenitu? Edo, adibidez, murrizketak egin dira osasungintzan, kalte handirik jasan gabe. Baina, orain, osasungintzan eta lehen sektorean inbertsioak ezingo dira kritikatu eta sektore hauen balio estrategikoa argiago geratuko da. Adi ere telelanarekin. Egoerak behartuta asko ari gara etxetik lanean, eta etorkizunean ugaritu egingo da praktika hau.



JOSEBA BARANDIARAN

Estatuek hartutako neurriak

Egoera honen aurrean, Europako estatuak hasi dira, bakoitza bere erara, hartu beharreko neurri ekonomikoak aplikatzen. Krisi honek gogorren jo duen Europako estatua Italia da. Giuseppe Conti lehen ministroak, adibidez, beharrezkoak ez diren aktibitate ekonomiko guztiak gelditzeko erabakia hartu du, ahalik eta kutsatze gutxien edukitzeko. Horrez gain, bi hilabete epean langilerik ez kalera-tzeko dekretu bat onartu du eta maiatzaren 30era arte zergak bertan behera uztea erabaki, gizarte segurantzako kontribuzioak barne. Azkenik, 25.000 milioi euroko dirulaguntza lerro berezi bat aktibatu du.

Espaniaren kasuan, 200.000 milioi euroko plan bat iragarri zuen Pedro Sanchezek, hamaika

neurriekin. Akzio multzo horren baitan daude, besteak beste, hipotekak ordaintzeko kuotetan luzamenduak eskatzeko aukera –koronabirusa dela-eta diru-sarrerak gutxitu zaizkienei edo horren eraginez langabezian geratu direnei–, luzapenak ura, gasa eta argia ordaintzeko kolektibo zaurgarriari, pertsona nagusiak, kalean bizi direnak eta menpekotasuna dutenak zaintzeko 300.000.000 euro, enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteak azkarrago tramitatzeko neurriak eta kasu horietan langabezia prestazioa jasotzeko aukera, nahiz eta hori kobratu ahal izateko legeak ezartzen duen gutxieneko kotizazio epea ez bete.

Frantzia, adibidez, 300.000 milioi euroko abalaz eskaini eta enpresentzako eta autono-

"Industria alorrera bideratutako kooperatibek sufrituko dute gehien"

LANDER BELOKI MU-KO ENPRESAGINTZA FAKULTATEKO DEKANOA

Mondragon Taldearen ikuspegi globala du Belokik, eta uste du sektore batzuei gehiago kostako zaiela errekonstruzioa.

Kooperatibak izaera berezia duten enpresak dira, eta nazioartean presentzia dutenak. Nola eragingo die honek?

Geldialdi egoerak, batez ere, epe motzera eragingo du. Txinan hasi zen krisi guzti hau, eta bertan presentzia handia dute kooperatibek. Baina eragina nabaria izango da kooperatibetan, euren hornitzaileengan, eta bezeroetan. Kooperatiba eta sektore bakoitza mundu bat dira, baina, orokorrean, zerbitzuetara bideratuta dauden kooperatibek gutxiago sufrituko dute, eta industria alorrekoek, aldiz, gehiago. Autogintzan geldialdi sakona dago une honetan, baita makina-erreminta ere, eta horiei kostako zaie gehien errekonstruzioa.

Txinan presentzia izateak lagundu diezue egoera hau, nolabait, aurreikusten?

Zalantzarik gabe. Baina ostean pandemiak izan duen bilakaera oso azkarra izan da; espero

baino azkarragoa.

Kooperatibetako zuzendariei zein erronka nagusi planteatu dizkie osasun larrialdia?

Sakon sinesten dut, kooperatibak oso sistema aproposak direla krisi egoerei eusteko. Malgutasun maila handia dute, eta baita langileen aldetik konpromiso maila handia. Baina honelako egoera batek arazo potoloak planteatzen ditu eta horietako bat altxortegiarena da. Likidez falta pairatuko dute ia gehienek, batez ere, diru sarrerak denbora batez geldituta, desagertuta edo atzeratuta edukiko dituztelako. Horren aurrean bi irtenbide nagusi daude: bata, duzun altxortegi apur hori inoiz baino tentu handienez erabiltzea da. Bestea, murrizketa sakonak egitea: inbertsion, soldatetan... Batez ere, egoera argitu arte, eta hortik noiz eta nola irtengo garen jakin arte. Hori lehenbailehen argi duenak, abantaila izango du.



LANDER BELOKI

moentzako 45.000 milioi euroko laguntzako lerroa jarri du mar-txan Emmanuel Macronek. Zer-gen eta gizarte segurantzaren ordainketak atzeratuko dizkie, eta larrialdietan dauden enpresei uraren eta argiaren gastuak ordainduko dizkie; aipatutako partida zulo horiek estaltzera bideratuko du, nagusiki. Horrez gain, 1.000 milioi euroko solidaritate funts bat jarriko du milioi bat eurotik beherako fakturazioa duten ekintzaileentzat, enpresa txiki eta ertaintentzat eta auto-nomoentzat.

Alemaniak, esaterako, 48.000 milioi euroko laguntzak onartu ditu, oraingoz, aurrerago 35.000 milioi gehiagorekin hornitzeko aukerarekin. Neurri horrekin, azken urteetan eduki duen *zero defizit* politika hautsiko luke. Enpresei kredituak errazteko



Metalgintzako langile bat pieza bat soldatzen. PIXABAY

eta kaleratzeak oztopatzeko neurriak ere hartu dituzte.

Burtsen jaitsiera

Geldialdi ekonomikoa Europara iritsi aurretik, mundu mailako burtsa gehienak jaitsiera nabarmenak edukitzen hasi ziren. Otsailean hasi ziren galera jorekin, baina martxoaren 13an goia jo zuten. Espainiako Ibex-35 indizeak, adibidez, historian edukitako jaitsiera handiena izan zuen egun hartan; 6.390 puntuko galera, eta %14,06ko beherakada. Lehman Brothers-en porrotak, *brexit*-ak edo arrisku primen garairik latzenek ez zuten halako jaitsierarik eragin. Baina ez zen Madrilgo burtsaren kasu isolatua izan. New Yorkeko burtsak ere 1987tik izandako galera handienekin itxi zuen, Dow Jones indizeak %10 behera

eginda. Hala azaldu du egoera Joseba Barandiaran BBVAko adituak: "Burtsa merkatuek, normalean, etorkizunaren kalkulua egiten dute, eta, batzuetan, joera handia dute, onerako edo txarrerako, tendentziak esajeratzeke. Esango nuke ere jaitsiera handi horren atzean espekulazio puntu handi bat dagoela, eta batek baino gehiagok diru asko irabazi duela horrekin. Baina geldialdi produktibo hau ez bada orain estimatutako baino gehiago luzatzen, burtsak euren onera itzuliko direla uste dut, orain arte etekin ekonomikoak eragiteko gaitasuna duten enpresek, gaitasun hori izaten jarraituko dutelako, gutxi asko". Aste honetan hasi dira Burtsak egoerari buelta ematen, eta martxoaren 24an igoera nabarmenak eduki dituzte: Ibex-35ek %7,84 egin zuen gora, esaterako, eta Europako burtsak itxi orduko, % 9,8 Dow Jones-ek.

"Online salmentek berez zigortzen gaituzte; itxita egonda, are gehiago"

MAITANE AZKARATE BEDELKARREKO PRESIDENTEA

Merkatariak izan ziren atek ixten lehenak, eta horrek beste batzuekiko desabantailan jartzen dituela uste du.

Geldialdi honek enpresari txikiengan eragingo du gehien?

Nire ustez, bai. Gu izan ginen atek ixten lehenak; kasu askotan, legez horretara behartu aurretik ere. Baina bitartean, ikusi dugu beste aktibitate batzuk ez direla eten, eta ez zaigu bidezkoa ez logikoa iruditzen. Osasun arazoak lehenetsi behar badira, justuena litzateke oinarrizkoak ez garen guztiok aldi berean atek ixtea.

Merkatariei nola eragingo dizue? Batzuei, akaso, gehiago?

Ez da berdina egunero saltzen duen dendari bat edo arropa denda

bat. Ez da berdina ere denborarekin hondatzen ez den produktua saltzea, edo iragankorra den produktu bat saltzea. Badaude diferentziak, baina, orokorrean, denoi eragiten digun zerbait da. **Agintariak hartutako neurriak ontzat jotzen dituzue? Edo izan da faltan igarri duzuen neurririk?**



MAITANE AZKARATE

Esango nuke partxeak jartzen ari direla, hasieratik neurri ausartak hartu beharrean. Ikusi egin beharko da enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteek nola funtzionatzen duten, esaterako. Uste dut autonomoen kuotak atzeratzeko erabakia hartuko dutela, edo hori nahiko nuke, behintzat. Gertuko hornitzaile batzuek ordainketak atzeratzeko aukera eman dute, baina kasu solteak dira. Hornitzaile handiek, nazioartekoek, ez dute barkatzen, eta ez zaie axola zure egoera zein den. Beste aukera bat izan daiteke gure aktibitatea etenda dagoela deklaratzeko, gastu batzuk murrizteko. Hori proposatzen ari dira Eibarko Merkatarien Federaziotik.

Online salmentak eteteak lagunduko lizueke?

Online salmentek berez kaltetzen gaituzte; itxita egonda, are gehiago. Guk inongo sarrerarik ez dugun honetan, eskari gehiago jasotzen ari dira, eta horrek berez dagoen desoreka areagotzen du.

"Finantza krisia orain lehertuz gero, 2008koa bezain luzea izan daiteke"

ADRIAN ZELAIA EKAI CENTER

Geldialdi produktiboa eta finantza krisiaren lehertzea une berean batzean ikusten du Zelaiak arrisku handiena.

Zer-nolako balizko krisi ekonomikoa dugu aurretik?

Faktore askok baldintzatuko dute hori. Adibidez, konfinamendu egoera zenbat luzatuko den. Ez bada estimatutakoa baino gehiago luzatzen, epe laburreko kalteak bere onera etorriko dira, nahiko azkar. Baina egoera gehiago luzatzen bada, kalteak larriagoak izango dira, eta errekuaratzeko beharko den denbora esponentzialki handiagoa izango da. Bestetik, mendebaldean finantza krisi bat lehertuko zela entzuten ari ginen aspalditik.



ADRIAN ZELAIA

Lehertze hori bazirudien 2020an etorriko zela, eta, oraingo geldialdi produktiboarekin bat eginez gero, eraginak askoz handiagoak izango dira; 2008koa bezain luzea denboran. **Europa mailan gobernuek hartu dituzten neurrien artean, zeintzuk iruditzen zaizkizu eraginkorrenak?** Orokorrean hartu diren

erabakiak onak direla uste dut, eta bakoitzak bereak hartu ditu, herrialde bakoitzean osasun larrialdi egoera ez delako berdina. Espainiaren kasuan, uste dut laguntzak ez dituztela behar bezala azaldu. 200.000 milioi euroko kopurua oso mediatikoa da, baina ez du ondo erakusten Gobernuak egin duen benetako ahalegina. Hortik 100.000 abalak dira, ez dira dirulaguntzak bere horretan, eta benetako inbertsioen kopurua 17.000koa da. Hala ere, neurri aritu behar dute, gaur-gaurkoz oso zorpetuta jarraitzen dute-eta herrialde askok. Egoera horretan gehiago zorpetzeak ez du askorik laguntzen. **Zein aukera eta zein arrisku etor daitezke?**

Une aproposa da estatuek enpresa estrategikoen gaineko kontrola bereganatzeko: airelineak, telekomunikazio enpresak... Euskadin utzikeria egon da alor honetan, azkenaldian, eta estatuek ez badira azkar mugitzen, putre-funtsek ez dute aukera alferrik galduko.

Petrolio, merke-merke

Petrolioaren prezioa momentu ekonomikoari tenperatura hartzeko neurgarri baliagarria izaten da, eta une honetan, azken hiruzpalau urteetako preziorik merkeenetara itzultzen ari da. Herritarrentzako *Brent* upelaren prezioa ez da adierazgarria, agian, baina gasolindegietan diesel litroaren prezioa euro baten azpitik ikustea, ordea, bai. Egoera honetara iristeko bi arazo garbi antzematen ditu Joseba Barandiaranek: "Herritarrak etxean konfinatuta dauden honetan, eta sektore asko ia geldi egonda, petrolioaren eskaria asko jaitsi da, eta hori da prezioa merkatzearren arazo logikoetako bat. Baina, bestalde, Arabiaren eta Errusiaren arteko gerra komertzial bat dago une honetan, petrolioaren merkaturan. AE-Betako *fracking* bidezko petrolioaren upela 50 dolarreko prezioetik gora funtzionatzen ari da, hori baita errentagarri izateko behar duen gutxieneko salmenta prezioa. Horren aurrean, Errusiak eta Arabiak euren eskaintza handitu dute, merkaturan duten pastel zatia handitzeko ahaleginetan, eta, horren ondorioz, prezioa amildu egin da. Hala ere, ez dut uste denbora luzez edukiko dituztenik prezio baxu horiek. Eskaria handitzen den unean, ziur aski, prezioak igoko baitituzte berri".

Xabier Urzelai ARRASATE

2020ko kirol hitzorduen egutegiak muturreko galanta jasoko du -gainontzeko arloek moduan- koronabirusaren erruz. Astean albiste izan da Olinpiar Jokoak 2021era atzeratuko dituztela, eta, ibarrera etorrita, baliabide txiki-ekin baina ilusio galantarekin antolatzen dituzten hitzorduetan ere eragin handia izango du honek guztiak.

Hala, birusak izan zezakeen eragina txikitzeko hartutako neurriek bete-bete harrapatu zuten duela bi aste Aramaioko mendiko bizikleta opena -martxoaren 15ean- eta joan den asteburuan beste horrenbeste gertatu zen Antzuolan antolatu behar zuten Uzarragako txirrindularitza igoerarekin. Bertan behera geratu dira lasterketa horiek, eta ez dira bakarrik izango. Bihar, zapatua, Oñatiko duatloia 28. edizioa ziren egitekoak, eta domekan egin behar zuten amateur mailako ziklismoak duen hitzordu handi horietako bat: Gorlako Igoera. Bada, oraingo, inork ez du dortsalik jantziko.

ANDONI CORREAS

OÑATIKO DUATLOIKO
ANTOLATZAILEA

"Datorren urtean ilusio berberarekin itzuliko gara, zalantza barik"

"Penaz hartu genuen lasterketa bertan behera uzteko erabakia, baina ez genuen inolako zalantzarik izan. Etxeko logelan ditut kartelak, lasterkariendako oroigarriak, poltsak, helmugako zinta... Dena geneukan prest", dio Oñatiko duatloiko antolaketat aldeko kide Andoni Correasek.

Aurten, gainera, hainbat berrietasunekin zetorren lasterketa eta ilusio berriarekin zeuden antolaketa taldeko kideak: "Beste lasterketa batzuk atzeratu egingo dituzte, baina, egia esan, guk ez genuen ikusten horretarako aukerarik, bestela ere zailtasun handiak izaten ditugu-eta zirkulazioa mozteko baimenak lortzeko". Izan ere, hori izan zen duela bi urte lasterketa ez antolatzearen arrazoi nagusia. "Baina urtebeteko geldialdiaren ondoren, iaz ikusi ahal izan genuen lasterketa osteraren antolatzeak kapaz



lazko Oñatiko duatloiko irteera; Irene Loizate eta James Michael Teagle izan ziren txapeldunak. IMANOL SORIANO

Ilusioz egindakoa, bertan behera

Koronabirusaren konfinamendu egoerak bultzatuta, oraingo, martxoko eta apirilko lasterketak bertan behera utzi dituzte, edo denboraldiaren bigarren zatira atzeratu. Antolatzaileek diotenez, ez dago arriskurik datorren urtean indartsu bueltatzeko

izan ginela -2018an gaztetxoaren proba bakarrik egin ahal izan zuten-, eta datorren urtean ere indar berberarekin bueltatuko gara. Noski, honek galera batzuk ekarriko dizkigu, baina ez dugu uste orain denik momentua horri bueltan ematen hasteko. Antolatzaile ikuspuntutik baino herritar ikuspuntutik orain lehentasuna egoera hau ahalik eta ondoen gaintzea da, eta gero gerokoak".

ION UNAMUNO

LOKATZA ZIKLISMO ESKOLAKO
PRESIDENTEA

"Gorlan gazteen eta amateurren proba egin behar genuen batera"

"Pena handia hartu dugu eta oraindik ez dakigu lasterketa

egin ahal izango dugun ala ez; gu, behintzat, saiatu egingo gara 2020ak Gorlako Igoera izan dezan", dio Ion Unamunok.

Gainera, aurten Lokatzakoek berrietasun politikak zituzten domekako lasterketara begira, gazte mailakoek amateurekin batera lehiatu behar zuten: "Gauza berria zen guretako, ez da batera erraza bi lasterketa batean antolatzea, jende gehiago behar duzula lasterketa antolatzeke, eta zirkulazioa mozteko baimenak emateko orduan oso zorrotzak izaten direlako. Baina federazioekin adostuta geneukan dena, gazteek eta amateurrek batera lehiatu behar zuten, nahiz eta egin beharreko distantzia ez zen berbera, noski. Bada, oraingo, bertan behera geratu da dena".

Hala ere, aurreratu moduan, Unamunok ez du esperantza

galdu: "Babesleekin konpromisoak ditugulako, eta tristea izango litzatekeelako ziklistei aukera hori ez ematea. Baina, oraingo, ez dakigu noiz bueltatuko diren lasterketak, eta ikusi egin beharko da egutegian denondako lekurik egongo ote den".

Gorlako ez da Lokatzak antolatzen duen hitzordu bakarra: "Apirilaren amaieran eskola mailako lasterketa dugu, baina hori errazagoa da antolatzeke, eta hurrengo hitzorduak ekainean ditugu: ekainaren 13an egingo dugu San Antonio lasterketa eta ekainaren 26an izango da San Martzialgo Igoera, Emakumezkoen Bergara Hiria saria. Eta espero dugu horiek, behintzat, normaltasunez antolatzea".

Eta amaitzeko, lasterketak antolatzearekin batera Lokatzak hainbat txirrindulari ditu kate-

goria ezberdinetan banatuta: "Gaztetxoak arrabola egiten dabilta egunotan, eta garbi dago bizikleta gaineko bizitasuna galdu egingo dutela. Baina mantentze lan horretan jardun behar dute, eta lan horretan konstanteak izan beharko dute".

GANIX LASA

MONDRAITZ KIROL KLUBEKO KIDEA

"Ez dugu erabaki Arrasate-Udalatz atzeratu edo bertan behera utziko dugun"

"Orain momentuan, gure lasterketa airean dago", dio Mondraitzeko kide Ganix Lasak. Alarma egoera ezarri aurretik erabaki genuen Arrasate-Udalatz ez genuela apirilaren 5erako antolatuko, baldintzak ez zirelako batera egokiak, eta ondoren, egoera gaiztotzen eta zatartzen joan da".

Hala, Mondraitzeko lagunak orain momentuan duten lehentasuna da 2020ko egutegian data berri bat bilatzea: "Oraingo, ez dugu ezer garbirik, ikusiko dugu egun hori uda aurretik izango den, ala uda ondoren; izan ere, erabaki hori ez dago Mondraitz Kirol Klubaren esku soilik. Babesle eta antolatzaileekin hartu-emanetan gaude, boluntarioekin, baina egia da konfinamendu egoera honek ere ez duela askorik laguntzen. Ikusiko dugu zer den egokiena".

Hala ere, Lasak aitortu du erabakia edozein dela ere Mondraitzeko lagunak lasai daudela; izan ere, babes handia jaso dute: "Apirilaren 5ean lasterketarik egongo ez zela adierazi genuenean, lehen aipatutako babesleen eta laguntzaileen berotasuna iritsi zitzaigun, boluntario taldeena... Eta lasterkariak eurek ere mezuak helarazi zizkiguten animoak eta babesa eskainiz. Horrenbestez, egun zailak dira guztiondako".

Hala, Mondraitzekoak kontziente dira beste antolatzaile asko euren egoera berberetan daudela: "Halaxe da, batzuek dagoeneko erabaki dute lasterketa uda osteraren pasatzea, eta beste batzuek zuzenean erabaki dute aurtengo edizioa bertan behera uztea. Guk ez dugu Arrasate-Udalatzendako halakorik nahi, aurtengo edizioa antolatzeke lanean dihardugu".

PABLO AREJOLALEIBA

ALOÑAKO IGOERAKO ANTOLAKETA TALDEKO KIDEA

"Erabaki dugu lasterketa irailaren 12ra atzeratzea"

Arrasate-Udalatx lasterketa baino hiru aste geroago ziren Aloñako Igoera antolatzeakoak, apiril amaieran, eta Pablo Arejolaleibak aitortu du hasieran lasaitasunez hartu zutela dena: "Hasierako neurriak ez ziren horren gogorrak eta uste genuen lasterketa antolatu ahal izango genuela. Baina kontua ez da bakarrik konfinamendu egoera lasterketaren egunera arte-edo ez luzatzen dutenik, jendea etxetik irten ezinda dago, eta gauza bat da gorputza gutxi gorabehera aktibo mantentzea eta beste bat da Aloñako Igoera moduko proba bat baldintza horietan prestatzea".

Hori ikusita, Aloñako Igoerako antolaketa taldea egun berri baten bila hasi zen: "Irailaren 12a aukeratu dugu, jakinda sasoi horretan herrian ospakizun asko izaten ditugula. Hain zuzen, hori da kontuan hartu genuen lehenengo kontua, herrian data horretan ea beste kirol hitzordurik ba ote zegoen. Eta bai, seguru auzoren bateko jaiak izango direla, sanmartinak edo Bidebarrietakoak, baina ez dugu beste aukerarik, egutegia mendi lasterketaz josita dago eta".

Izan ere, lasterketa 2021era atzeratzea ez zen batere aukerona: "Taldea batzuk neurri hori hartzen dabilta, baina, gure kasuan, kalte handia egingo liguke. Dorsal guztiak [300] salda ditugu dagoeneko, oroigarriak erositu, aurrean guztia egin dugu, kontratatu beharreko zerbitzuak... Gastu handiak asumitu beharko genituzke. Horrenbestez, lasterketa irailaren 12ra atzeratzea erabaki dugu, eta ikusiko dugu orduan egoera zein den. Eta irailan ere ez bada posible lasterketa antolatzea, bada, datorren urterako utziko dugu eta emango diogu buelta egoerari".

Oñatiarrak, baina, baikor dira irailera begira: "Korrikalariak lasterketa gosez daude eta euren animo mezuak jaso ditugu, nik uste dut gehienak irailan animatuko direla lasterketa egitera. Oso tristea izango litzateke lasterkariei Aloñako lasterketa



Andoni Correas.



Ganix Lasa.



Martin Arriolabengoa.



Ion Unamuno.



Pablo Arejolaleiba.



Xabier Zabaleta.

egiteko aukerarik ez ematea, pena emango liguke; izan ere, Aloñako Igoera lasterketa maitatua da korrikalarien artean. Datozen asteotan erabakiko dugu izen ematearen kontua zelan egin; hau da, egun batzuk eman atzera botatzen direnei dirua itzultzeko, eta hutsik geratu diren dortsalak ostera banatzeko. Ikusiko dugu hori zelan egin, erabakitzeke dugu oraindik".

MARTIN ARRIOLABENGOA

ARAMAIOKO MENDIKO BIZIKLETA OPENEKO ANTOLATZAILEA

"Federazioarekin egon behar dugu, ea posible den aurtengoa antolatzea"

Koronabirusaren konfinamenduak bete-betean harrapatu zuen Aramaioko lasterketa, martxoaren 15ean ziren-eta egitekoak Araban dagoen Openeko mendiko bizikleta lasterketa bakarra. Aste barruan, egun batetik bestera geroago eta itxura txarragoa zuen egoerak, eta egunerako federazio guztiek bertan behera utzi zituzten kirol hitzordu guztiak. "Ekonomikoki galeraren bat izan dugu, bai, baina ez da nabarmentzeko moduko kontua izan, kontratatutako zerbitzu asko bertan behera utzi ahal izan genituen eta", dio Martin Arriolabengoa.

Hala, aramaioarrak ez du amorrik ematen, oraindik ez dute

erabat baztertu aurten lasterketa egin ahal izatea: "Baina Federazioarekin berba egin behar dugu lehenengo, ea egunik badagoen ikusi eta ea guri ere interesatzen zaigun eurek ematen diguten data horretan lasterketa antolatzea. Pentsa abuztuan esaten digutela, adibide bat ematearren. Izan ere, irailetik aurrera uste dugu egutegia oso beteta egongo dela".

Hala ere, aurtengo lasterketa bertan behera utzi behar izanez gero ere Arriolabengoa ez du uste horrek lasterketaren desa-

gerpena ekarriko zukeenik: "Azken batean, bi pertsonak hartzen dugu lasterketa antolatzearen ardura, eta gu aspertzen ez garen bitartean Aramaion mendiko bizikletako lasterketa egongo da. Azken batean, urteko errutinen artean Openeko proba antolatzea oso barnertuta daukagu; horrenbestez, aurten egiten ez badugu ere, datorren urtean egongo da lasterketa, hori ez da arazoa. Hori bai, gu aspertzen garen momentuan... Ea herrian gazteen artean erreleborik badagoen".



Aldro taldeko Edu Llacer, 2017ko Gorkako Igoeran, helmugan. I.S.

XABIER ZABALETA

GORLA RACING TALDEKO KIDEA

"Orain momentuan, 'pause' botoiari sakatu diogu"

Maiatzaren 23an egingo dute automobilismo probetan Euskal Herrian erreferenteetako bat den Gorkako Igoera. Berez, konfinamenduak ez du horren luze joko, nahiz eta inork ezin duen ezer aurreratu. Baina lasterketetako antolatzaile diren Gorla Racing taldeko lagunek ez dakite proba antolatu ahal izango duten ala ez. "Orain momentuan, *pause* botoiari sakatu diogu", dio Xabier Zabaletak. "Federazioako ordezkariekin jarri gara harremanetan eta eurek ere ez dute erantzunik. Hau guztia amaitzen denean batzartuko direla eta jarriko direla gero gurekin harremanetan, horixe esan digute".

2020ko egutegiari dagokionez, Gabiriako lasterketa da egin ahal izan duten bakarra. "Goierriko ralliesprinta, Aiako Igoera, Opakuako Igoera... Hori guztiak dagoeneko bertan behera geratu dira, eta lasterketak atzeratzekotan, noiz egiteko? Badago egunik guztiondako?", dio Zabaletak. Eta ez dira lasterketa horiek bakarrik, bertan behera geratu dira-eta Urnietako eslaloma, Bakioko eslaloma, Azpeitiko ralliesprinta... Eta bergararrak garbi dauka uda ostean ez dela guztiondako lekuri egongo: "Nahiko zail ikusten dut, egia esan; izan ere, nork izango du preferentzia egunak erabakitzeke orduan? Zelan antolatuko dute hori guztia, egutegiko ordena errespetatuz? Ez dakit, horrelako galderak etortzen zaizkit burura, eta gai iskanbiltsua izan daiteke, buruhausteak izango ditu Federazioak".

Gorla Racing taldeko lagunek aurtengo lanak hasita izan behar litzateke. Hala, Zabaletak aitortu du otsailero bizpahiru laguni galdera berbera egiten diela: "Badago aurtengoa antolatzeke potrorrik?". Bada, baiezkoa jasota hasten dituzte antolaketa lanak, eta orain ziren babesleei ate-joka hastekoak: "Baina ez dakigu aurtengoa egingo dugun, hori da egia. Honek, baina, ez du etorkizunean lasterketa arriskuan jarriko, saltsa hau gustatzen zaigu eta".



Aurtengo jaialdia antolatzen duten ikasleen lantaldeko kideak. HUHEZINEMA

Aurreikusitakoa baino jaialdi beldurgarriagoa

13. Huhezinema film laburren jaialdia 'online' egiten ari dira egunotan Twitch, Youtube eta Instagram plataformen bitartez, eta gaur, 20:00etan, sari banaketa egingo dute; etzi hasita, Filmin plataformako Huhezinema kanalean izango dira ekitaldiak ikusgai

A. Aranburuzabala ARETXABALETAK
Hamahiru zenbakiarekin jolastuz, beldurra aukeratu zuten aurtengo Huhezinema jaialdiaren gai moduan, eta beldurrezko film baten gidoia dirudien garaian, aurtengo jaialdia bertan behera utzi beharrean, MUko Ikus-entzunezko ikasle eta irakasleek erronkari eutsi eta hainbat plataforma digitalen bitartez—Twitch, Youtube eta Instagram—*online* ari dira egiten. "Ez genuen urte osoan zehar ikasgelan egindako lan handia bertan behera geratzea gura, eta hainbat aukera aztertu ondoren hala egitea erabaki genuen. Lehenengoak gara zine jaialdi bat modu honetan egiten, eta esan digute laster Kataluniako beste baten ere hala egingo dutela. Bizi dugun egoerak baldintzatuta zine-industria aldatzen

ari da, eta, lehenengoak izatean, akatsetatik ikasten ari gara, baina, duda barik, maila ona ematen ahalegintzen ari gara", azaldu du jaialdiko komunikazio taldeko Naroa Urien ikasleak, eta zera gaineratu: "Orain arte feedbacka oso ona ari gara jasotzen; jende asko ari da jaialdia jarraitzen, egunetik egunera gero eta bisita gehiago ditugu *Huhezinema.eus* atarian. Antolatzaileak pozik gaude".

70 film labor jaso dituzte

Horiek dira aurtengo lehiaketan parte hartzeko jaso dituzten lanak; Iban del Campo irakaslearen esanetan, uzta oparora: "Gai nagusia beldurrezko eta fantasiar zinema izan den arren, Euskal Herriko toki eta genero askotakoak jaso ditugu.

Sail ofizialerako aukeratu ditugun artean, ilusioa berezia egiten digu, sekula gertatu ez den moduan, aurtengo gure bi ikasle ohien lan profesionalak sartu direla: Lander Ibarretxeren *Regina* eta Iñaki Tenaren *Petita*; biak ala biak itzelak dira. Sorpresa pozgarria izan da egile berrien lan asko jasotzea; horien artean, June Lakaren *Kresala* aipatuko nuke, estetika eta atmosfera oso berezia du. Kimuak katalogotik ere bi lan daude sari nagusirako lehian, Moriarti ekoiztetxeok egin duten *Mateoren ama*, Arrasateko Maria Asun Pagoagak parte hartzen duena, eta Afrikan, Sierra Leonan, grabatutako *El Infierno* (Raul de la Fuente) dokumentala. Horiez gainera, eskarmentua duten zuzendarien



HUHEZINEMA

"Ikusleek klik egitea nahiko nuke orain"

MAITE ARROTAJAUREGI
'MURSEGO' MUSIKARIA

Eibarko musikariarentzako "erronka berria eta polita" izan da zinemagintzako bizipenak *online* kontatzea.

Zer moduz joan zaizu?

Jendaurrean zaudenean ikusitakoaren arabera, moldatzen zoaz, baina hau hiru orduko bakarrizketa bat izan da, eta jaso dudana feedbacka positiboa da.

Zer kontatu duzu?

Niretzako garrantzitsuak diren kantuen bitartez nire buruaren aurkezpena egin dut hasteko, eta, ondoren, zine arloan egindako nire lanen errepaso egin dut kronologikoki, hainbat filmen zatiak erakutsita.

Zer duzu esku artean?

Estreinatzekotan daude musikatu ditudan hainbat lan: *Yo* animazioko laburra, Asier Altunaren *Arzak* eta *Akelarre*; Altsasuri buruzko filmerako musika sortzen, eskolak ematen eta kantu berriak sortzen nabil orain.

lanak ere badira; besteak beste, Josu Martinezen *Anti*, Norma Vilaren *El fin de todas las cosas*, eta niretzako, bereziki, harribitxia den *Ura sartu zen barrura* (Peru Galbete), artxiboko irudiekin egindako lana".

Aipatutako filmez gainera, MUko ikasleek egindako hamabost lan bi emanalditan banatuta erakutsi zituzten atzo, eta beste hainbat film gehiago eguzten gauean, Donostiako Fantasiar zinema jaialdiarekin elkarlanean egin zuten *Sesio golfoa* atalean.

Hilabete iraungo du jaialdiak

Gaurtik aurrera, Maite Arrota Jauregi *Mursego* Eibarko musikariak eta Paulo Urkijo Gasteizko zinegileak egin dituzten *master class*-ak ikusgai izango dira Huhezinemak Youtubean duen kanalean, eta horrez gain, Filmin plataforman domekan hasita, Huhezinemaren kanala abiatuko dute. "Huhezinemarekin lotuta izan duten zinegileen filmak eta gure jaialdietako film laburrak eskainiko ditugu".

Sari-banaketa gaur, 20:00etan

Orain arteko sariez gain, *La Horrosa* saria banatuko dutela azaldu du Urienek: "Donostiako Beldurrezko eta Fantasiar zinema Jaialdirako bi gonbidapen jasoko dituzte genero horretako lan onenaren egileek. Ikusleek ere badute euren botoa emateko aukera film laburren emisioaren ondoren, Twitch bitartez.

**JAIALDIA BUKATU
ONDORREN ERE, SAREAN
IKUSGAI IZANGO DIRA
FILMAK ETA ADITUEN
'MASTER CLASS'-AK**

HALA BAZAN

GOIENA TELEBISTA, 90EKO HAMARKADAKO GATAZKAK (2. ATALA)
MARTXOAREN 27AN, EGUBAKOITZEAN, 11:30EAN ETA 21:00ETAN
ARETXABALETATIK MUNDUKO GAILURRERA

goiena
Zu hemen zaude.



Perlata taldearen disko berria, sarean entzungai

'Duguna esateko', hirugarren lana, argitaratu dute arrasatearrek astean, eta orain formatu fisikoan saltzea ezinekoa denez, sarean jarri dute osoa eskuragarri; 'Limón y chocolate' kantuen bideoklipa egin gura dute, eta zaleei laguntza eskatu diete

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Lorentzo Records estudioan grabatu zuen Arrasateko taldeak urtarrila eta otsaila bitartean hirugarren lana: *Duguna esateko*. Aurretik zituzten *Nondik hasi* (2017) eta *Urrezko kaiolak* (2018) baino "indartsuagoa dela dio Jaione Martinez gitarra-joleak: "Abesti potenteagoak dira bilduma honetakoak. Salto bat eman dugula esango nuke; eta orain arte entzun dutenek ere hala sumatu dutela diote".

Hamaika kantu berri

2015ean egin zuten lehen kontzertua; Jaione Martinezek (gitarra eta biolina), Maialen Oleagak (baxua eta abeslaria), Ane Garaik (gitarra) eta Ander Moreno bateria-joleak sortu zuten taldea, baina bigarren lana kaleratu ahala hartu zuen lekukoa perkusioan Harri Anzizarrek.

Euskaraz, ingelesez eta gaztelaraz abestutako hamaika kantu batu dituzte bilduma berrian. "Ingelesez eta euskaraz abestu izan dugu; oraingoan, ingelesez bakarria dago, eta gaztelarazkoak ere sartu ditugu lehenengo aldiz. Orain arteko bide beretik doaz, aldarrikapenak eta kritikak, barruan dugun ezinegonaren adierazleak. Gustura gaude, eta feedbacka ere ona da".



Arrasateko Perlata musika taldeko kideak. PERLATA

Zapatuan ziren aurkeztekoak

Arrasateko gaztetxean ziren, bihar, zapatua, disko berriaren aurkezpen kontzertua egiteko, baina bertan behera geratu da, lotuta zituzten beste hainbat moduan: "Apirilean, maiatzean eta ekainean nahiko kontzertu genituen lotuta, baina ikusiko da zelan doan egoera...".

Sarean orain, diskoa geroago

Eskuetan dute diskoa —Joana Mancisidorrek egin du azala—, eta tabernetan saltzea da asmoa, baina, oraingoz, sarean dago

eskuragarri. "Spotify, Bandcamp eta Youtube plataformetan dago; azken horretan, letra eta guzti".

Bideoklip kolektiboa

Bideo bat grabatzeko asmoa zuten, eta, egoerak bultzatuta, beste modu baten egingo dute, zaleekin. "*Limón y chocolate* kantuentzako grabazioak egiteko eskatu dugu, eta, domeka bitartean jasotakoekin muntaia egingo dugu. Dagoeneko baditugu batzuk; gura duenak bidali We-transfer bitartez Lataperlata@gmail.com helbidera".

Doke antzerki taldearen eskutik, antzokia etxeko egongelan

Arrasateko taldeak bere ibilbidean zehar egindako lan guztien grabazioak jarri ditu edonorentzako ikusgai

A.A. ARRASATE

Erakunde eta sortzaile askok euren lanak ikusgai jarri dituzte sarean, plataforma ezagunetan batzuek eta euren atarietan beste hainbatek; hala egin dute Doke antzerki taldekoek ere.

Dokeantzerkitaldea.blogspot.com atarian daude ibilbidean zehar egindako zazpi antzezlanak, taldearen bilakaeraren erakusle direnak: *Eskuak elkarri* (2004), *Acto para la Nochebuena* (2006-2007) *Iragana iragan* (2010), *Pa-*

radisuko atean (2013), *Galderak* (2014), *Aingeru ala kurrioi?* (2016) eta *Hamaika amaren seme (alaba)* (2018).

Antzerki Eskola udaberrian

Hamabost urtetan zehar kide berriak batu dira taldera eta ekimen berriak abiatu dituzte. Udaberrian Antzerki Eskola dira egitekoak, eta Udalaren laguntzarekin hiru ikastaro antolatuta dituzte. Egoera dela-eta ezin da ziur esan egingo dutenik; oraingoz, izen-ematea zabalik dago.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko martxoko sariak!

Chromecast

Parte hartzeko sariaren izena: Chromecast



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GARAIAKOBAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" (bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzailen artean egingo da zozketa.

Inon ere dagoen UFD 15/2019 legearen arabera, sariaren irabazirik gabe, erabazleak ezin du bere pertsonalitatearen informazioa erabiltzea, baina erabazleak bere informazioa erabiltzeko bere burua erabazlearen informazioa eman behar du. Erabazleak bere informazioa erabiltzeko bere burua erabazlearen informazioa eman behar du. Erabazleak bere informazioa erabiltzeko bere burua erabazlearen informazioa eman behar du.

Irabazi bi lagunendako otordua

GOIKO BENTA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxeak
(bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkidetzeta: 56€
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HILDAKOAK

Rafael Urzelai Guridi.
Oñatin, martxoaren 13an. 87 urte.

Javier Zabala Suinaga.
Bergaran, martxoaren 14an.

Isidro Zabaleta Narbaiza.
Antzuolan, martxoaren 16an. 77 urte.

Rafa Fernandez Aresti.
Arrasaten, martxoaren 17an. 88 urte.

Carmen Perianes Calixto.
Oñatin, martxoaren 19an. 86 urte.

Maria Egaña Jauregialzo.
Oñatin, martxoaren 19an. 85 urte.

M. Victoria Adriana Campos Valle.
Arrasaten, martxoaren 21ean. 79 urte.

Antonio Urrutia Valdes.
Arrasaten, martxoaren 21ean. 76 urte.

Juana Lizarraga Senar.
Arrasaten, martxoaren 21ean. 87 urte.

Julian Urrutia Makazaga.
Bergaran, martxoaren 21ean. 82 urte.

M. Carmen Marcos Velaz.
Arrasaten, martxoaren 23an. 85 urte.

Felix Artacho Tricio.
Arrasaten, martxoaren 23an. 92 urte.

Domiciano Redondo Panedas.
Arrasaten, martxoaren 25ean. 80 urte.

M. Carmen Etxebarria Arabaolaza.
Arrasaten, martxoaren 26an. 92 urte.

Ramon Altuna Zubizarreta.
Arrasaten, martxoaren 26an. 66 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Equibakoitza, 27	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Zapatua, 28	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Domeka, 29	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 6
Astelehena, 30	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Martitzena, 31	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Eguaztena, 1	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 1
Equena, 2	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

BERGARA EGUNEZ	
Equibakoitza, 27	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 28	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 29	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 30	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 31	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguaztena, 1	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Equena, 2	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Equibakoitza, 27	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 28	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 29	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 30	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 31	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 1	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Equena, 2	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	
2020ko abuztuaren 31ra arte:	
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09	

BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	
2020 osoan:	
ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63	

Cipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: CDF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKER ONA

Isidro Zabaleta Narbaiza

(Ugarte Torre baserria)

2020ko martxoaren 16an hil zen, 77 urte zituela.



Personalki ezinezkoa zaigunez, familiak lerro hauen bitartez eskertu nahi dizkizue jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak.

Antzuolan, 2020ko martxoaren 27an.

ESKER ONA



Pablo Lopez Oyangueren



2020ko martxoaren 11n hil zen, 86 urte zituela.

Emaztea: Juana Gorrochategui Ortuzar. Alabak: Mila eta Alfredo Salinas; Marije eta Jose Ignacio Mujika. Bilobak: Mikel, Iñigo, Nerea, Pablo eta Itziar.

Larrialdi egoera gainditzen dugunean, zehaztuko da hileta eguna eta ordua.

Personalki ezinezkoa zaigunez, familiak lerro hauen bitartez eskertu nahi dizkizue jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak.

Bergaran, 2020ko martxoaren 27an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05 edo eskela@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otorala Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



BABESLEA

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Momentu zail hauetan, lankideok, Jonek, Ibanek, Mariok eta Maribik, sentsibilitate eta maitasunarekin lan egingo dugu

Zure senideak ahalik eta ondoen agurtuko ditugu beti izan dugun lan egiteko eran.



Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA


TXUTXU-MUTXUAK




1



2



3



4



5



6



7



8

Kontatu, kontatu!

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak

bakarririk iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Poteoa, etxean

Garagardoa, ardo zuria, olibak, gazta, urdaiazpikoa... Horiek guztiak erabili zituzten erretratuko lagunek asteburuari beste ukitu bat emateko.

3. Animalien zaindari

Norbere burua zaintzeaz gain, ingurukoena zaintzeko ere baliatu dute denbora batzuek. Etxeko ardi txikiei biberioa emateko, besteak beste.

5. Etxeko adinduenak zaintzen

Adinduenak dira koronabirusarekin kutsatzeko arrisku handiena dutenak. Etxean daude. Irten barik. Senitartekoen laguntzarekin eta konpainiarekin.

2. Irakurtzeko aukera

Konfinamenduak gauza asko egiteko aukera ematen du. Akaso, baztertuta egon den liburu hori bukatzeko. Eta, eguraldiak lagunduta bada, hobeto.

4. Arrabol gainean

Kirolariek ere irudimena martxan ipini dute. Askok garajeen hautsa hartzen egon den arrabol gainean ipini dira, kilometroak egiteko. Bidaia luzea izango da oraingoa.

6. Txakurrarekin batera

Pisu batean bizi ordez etxebizitzan, baserrian edo txaletean bizi direnek badute beste abantaila bat: haize freskoa hartzeko aukera, eta txakurrarekin, askoz hobeto.

7. Hondartzarekin amesten

Eguzkitan, eguzkitako betaurrekoekin eta Hawaiiiko lepokoarekin. Hondartzara joateko elementuak jantzi, eta ametsetan egin du herritar batek baino gehiagok.

8. Lanean etxetik

Alarma egoerak sortu duen beste ezohiko egoera izan da etxetik lan egitearena. Hala, aurpegi ona ipinita, horretan dihardute lagun askok, martxoaren 14tik.

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA
Noa Iturbe Gabiria
Apirilaren 1ean, 6 urte.
Zorionak, printzesa,
Maddiren eta etxeko
danon partetik.
Jarraitu irribarre polit
horrekin! Muxu potolo
bat!




ARRASATE
Paule Lizaur Sagasta
Apirilaren 1ean, 3 urte.
Zorionak, printzesa!
Ederto pasatu egun
danon partetik!
handi bat, familia
osoaren partetik!



ARRASATE
**Ihobar
Nalda Gonzalez**
Martxoaren 31n, 10
urte. Zorionak, mutil
handi! Segi beti bezain
jator, alai eta maitakor.
Besarkada eta muxu
erraldoi bat, familia
osoaren partetik.



ARRASATE
**Egoitz
Fernandez Davila**
Martxoaren 30ean, 9
urte. Zorionak eta
patxo asko! Laster
egongo gara
elkarrekin! *Colegui*,
amama, izeko, Lander,
ama, Alain eta aita.



OÑATI
Danel Guridi Olalde
Martxoaren 29an, 9
urte. Zorionak! Aurten
ere desberdin
ospatuko, etxetik urten
barik. Baina, bihotzez,
"danok" egongo dira
zurekin. Muxu bat.




BERGARA
**Lander
Elejalde Urcelay**
Martxoaren 28an, 3
urte. Zorionak,
mutikote! Oso ondo
pasatu! Muxu handi
bat danon partetik!



ESKORIATZA
Danel Nuño Otamendi
Martxoaren 28an, 8
urte. Zorionak,
maitetxo! Ospakizun
ederra merezi dozu.
Gozatu zeure egunaz!
Besarkada handi bat,
familiakoen partetik.



BERGARA
June Sanchez de Paz
Martxoaren 28an, 8
urte. Zorionak,
printzesa! Amakoren,
Mikelen eta familia
osoaren partetik! Ondo
pasatu eguna!



ARRASATE
Intza Moraza Atxaga
Martxoaren 28an, 3
urte. Zorionak,
sorgintxo! Primeran
pasatu eguna! Patxo
handi bat, maitxia.



BERGARA
**Edith
Zanguitu Garmendia**
Martxoaren 28an, 2
urte. Zorionak, potxola,
etxekoen eta familiako
guztien partetik!
Primeran ospatuko!
Patxo erraldoi bat!



OÑATI
Luka Vaz Olabe
Martxoaren 27an, 6
urte. Zorionak, maitia!
Belarritik sei tirakada
eta besarkada handi
bat, familia osoaren
partetik. Ondo pasatu!



ARRASATE
**Haitz
Etxagibel Etxebarria**
Martxoaren 26an,
urtebete. Zorionak eta
patxo handi bat,
etxekoen partetik.



OÑATI
Danel Palacin Errasti
Martxoaren 25ean, 4
urte. Zorionak eta urte
askotarako, Danel!
Primerako eguna izan
deizula. Mila muxu,
etxeko danon partetik!



OÑATI
**Danel Urrutia
Garcia de Albeniz**
Martxoaren 24an, 8
urte. Zorionak,
txapeldun! Oso ondo
ospatu zure eguna.
Etxeko danon partetik!



BERGARA
**Kenar
Da Silva Moreno**
Martxoaren 23an, 9
urte. Zorionak,
txapeldun! Segi beti
bezain jator eta alai.
Etxekuok, amamak,
aitxak, tiak eta tiok
pila bat maitxe zaitzugu!



BERGARA
Maddi Peiro Berrueta
Martxoaren 23an, 2
urte. Zorionak,
printzesa! Egun
zoragarria pasatu
familiarekin, asko
dantzatu eta irri egin!
Muxuak!



BERGARA
Izar Unamuno
Martxoaren 22an, 2
urte. Zorionak, polix
hori! Familixa danaren
partetik, egun ederra
pasatu eta betiko
moduan segi, alai eta
gogotsu.



ARETXABALETA
**Paule Otxandategi
Lasagabaster**
Martxoaren 22an, 6
urte. Zorionak, Paule!
Ederto ospatu zure
eguna eta besarkada
potolo bat etxeko
danon partetik!



ESKORIATZA
**Aratz Kortazar
Garaiyurrebaso**
Martxoaren 22an, 32
urte. Zorionak, mutil!
Ondo-ondo pasatu
zure urtebetetzear,
familia osoaren
partetik. Muxu pila bat.



OÑATI
**Aimar
Mendizabal Aitzelai**
Martxoaren 22an, 6
urte. Zorionak, maitia!
Etxean geratuko gara,
baina primeran
pasatuko dugu zure
eguna! Muxu potolo bat
etxeko guztien partetik!




OÑATI
Gorka Judez
Martxoaren 21ean, 44
urte. Zorionak, tio
Gorka! Ondo-ondo
zelebratu eguna. Asko
maite zaitugu. Patxo
bat. Ane eta Xabi.



ARETXABALETA
**Maddi Amozarrain
Olabarria**
Martxoaren 21ean, 8
urte. Zorionak,
poxpolin!



BERGARA
Elene Perez Zabaleta
Martxoaren 20an, 9
urte. Zorionak, Elene!
Ondo-ondo ospatu zure
eguna, txapelduna!
Belarritik bederatz
tirakada eta patxo
potolo bat, familia
osoaren partetik.



ESKORIATZA
**Haizea eta Iraia Diaz
de Gereñu**
Ze bikote polita!
Martxoaren 20an, 8
urte Haizeak eta
21ean, 14 urte Iraiak.
Zorionak, bikote.
Muxu handi bana eta
topera ospatu.




OÑATI
Aire eta Gari Agirrebaltzategi Urzelai
Martxoaren 20an, urtebete. Zorionak zuen
lehenengo urtebetetzian, etxeko danon partetik!



ARRASATE
June Hernanz
Martxoaren 19an, 6
urte. Zorionak, maitia!
Handitzen-handitzen...
sei urtetxo jada! Muxu
potolo pila, aitaoren,
amatxoren, Anjiren eta
Jurgiren partetik.



BERGARA
**Elene Goikoetxea
Makazaga**
Martxoaren 19an, 8
urte. Zorionak,
prexiola! Egun politxa
euki! Patxo handi bat,
familia osoaren
partetik.




ANTZUOLA
Luka Santos Lete
Martxoaren 19an, 2
urte. Zorionak, *bibito*,
eta muxu handi bat
zure lehengusinen eta
lehengusaren
partetik.



OÑATI
Ane Emparanza
Martxoaren 19an, 8
urte. Zorionak, maitia!
Ondo-ondo pasatu
zure eguna. Asko
maite zaitugu. Muxu
handi bat, familixa
danaren, eta bereziki,
Xabiren partetik.



BERGARA
**Sare Larrañaga
Barrenetxea**
Martxoaren 19an, 9
urte. Zorionak, maitxia!
Inoiz etxatu ahaztuko
9 urte bete zifunekua!
Berezi-berezia, merezi
dozun bezela!



ESKORIATZA
Marijo Kortazar
Martxoaren 18an, 62
urte. Zorionak,
amama! Ondo ospatu
zure urtebetetze
egunear familiarekin.
'Los Txurris' lagun
partetik.



BERGARA
**Maitane
Agiriano Larrion**
Martxoaren 18an, 11
urte. Zorionak, familia
osoaren partetik. Egun
bereziak izan arren,
berdin ospatuko dugu.
Muxu asko denon
partetik.



OÑATI
Alaitz Isasti Arkauz
Martxoaren 17an, 7
urte. Zorionak, polix
hori. Ondo-ondo
pasatu zure eguna
amatxoren, aitaoren
eta lkerren partetik.



ARRASATE
Asier Olloqui Sarabia
Martxoaren 16an, 12
urte. Zorionak, bihotza!
12 urte! Etxekoen
partetik, zorionak eta
muxu handi bat!




ELGETA
Amets Agirre Osa
Martxoaren 15ean, 8
urte. Zorionak, Amets!
Segi beti bezain alai
eta bihurri, baina
aitaxori eta amatxori
be tarteka kaso egin.
Muxu handi bat!



ESKORIATZA
**Beñat eta Nikole
Eparza Some**
Martxoaren 14an, 6
urte. Zorionak eta
muxu handi bat,
etxekoen partetik.




ARRASATE
**Laia Castillo eta
Victor Romero**
Laiak 3 urte eta aitita
Victorrek 71. Zorionak!
Askomaite zaituztegu!
Patxo handi bana
etxeko danon eta,
bereziki, Danelen eta
Oihanen partetik.



ARRASATE
Iraitz Sarabia
Martxoaren 13an, 19
urte. Zorionak, Iraitz!
Etxekoen partetik,
zorionak eta muxu
handi bat!



OÑATI
Liher Ferreira Garcia
Martxoaren 11n, 5
urte. Zorionak, maitia!
Ondo pasatu zure
urtebetetze eguna.
Muxu potolo bat,
etxeko guztien, eta
bereziki, Aimarren
partetik.



ARETXABALETA
Beitia Barandiaran
Martxoaren 11n, 12
urte. Zorionak!
Ondo-ondo pasatu
zure eguna. Askomaite
zaitugu eta
batez ere nik. Urko.



ARETXABALETA
Lara Pacheco Sopa
Martxoaren 11n, 3
urte. Zure guraso
Maria eta Luisek,
David eta Daniel
anaiek, Marijo eta
Manuel aita-
pontekoek, Yaizak eta
familia osoak asko
maite zaitugu.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Birusaren lezioa

Urrun daukagu oraindik koronabirusaren krisia kontrolatzea, baina dagoeneko erakutsi dizkigu gauza batzuk.

Bat, osasun sistema ona daukagu, baina argala. Gaixo kopurua igotzen hasi eta berehala antzeman ziren gabeziak, sistemak ez dauka koltxoirik halako egoera bati erantzuteko ohiko jarduera hankaz gora jarri gabe. Gure ohe edo profesionalen ratioak motzak dira, are motzago azken hamarkadako murrizketen ondoren. Balio beza koronabirusak osasun zerbitzuan egiten dugun inbertsioa nabarmen areagotzeko.

Bi, gure agintariak ez daude prestatuta halako krisiak kudeatzeko. Ez dut lidergo irmorik ikusi gizarteari agindu koherenteak emateko, kostu politikoen beldur. Antologikoa izan da asteburuetakoa konfinamendua, aire librean arnasa hartzea ere debekatuta, astelehenean metroko zuloan edo busetan pilotuta lanera joan behar izateko. Aurrera begira, jar dezagun beti pertsonen osasuna ekonomiaren gainetik.

Eta hiru, ikasten ari gara sare sozialak erabiltzen. Zabor ugari dabil, ohi denez, baina baita elkar hartzeko mila eta bat ekimen adimentsu ere. Pozgarria da txarrenari onena ateratzeko dugun gaitasun hori. Zaindu dezagun.

BUKATZEKO

Pandemiak ez; izurrite beltzak utzitako arrastoa

Mundu osoa pairatzen ari da koronabirusaren pandemia, baina badaude historian marka utzi duten izurriteak ere. Jose Antonio Azpiazu 2011. urtean kaleratu zuen XVI. mendeko gaixotasun beltzari buruzko lana, eta dio garaiak "asko" aldatu direla

Maialen Santos OÑATI

Koronabirusaren krisia mundu osora hedatu den garai honetan, ezin ahaztu daitezke historian zehar mundua bortizki astindu dituzten bestelako izurriteak.

Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak 2011. urtean idatzi zuen *Gaixotasun beltz hori. Euskal Herria hondatu zuen izurritea (1597-1600)* izena daraman liburua, eta garai hartan *gaixotasun beltza* izenez ezaguna zen izurriteari buruzkoak biltzen ditu; idazlearen aburuz, gaur egun munduan gertatzen ari denarekin "antzekotasun gutxi" dituen. "Bizitzin ari garenak ez du zerikusi handirik izurrite harekin. Garaiak izugarri aldatu dira, eta gaur egun, zorionez, errekurtsio gehiago ditugu", azaldu du.

Oñatiarren laurdena, hilik

Liburuan kontatzen duenez, 1597ko udako beroekin sartu zen –besteak beste– Oñatin izurritea, itsasoz: "Garai hartan, ogia egiteko garia itsasontzietan ekartzen zuten. Gariarekin arratoiak zeuden, eta arratoieta arkakusoak. Arropetan ezkutatuta etortzen ziren". Gauzak horrela, lepoan, besazpian eta



Gaixotasun beltz hori liburuan ageri diren ilustrazioetako batzuk. EUSKONEWS

izterrondoan arrautza neurriko bubeoak agertu zitzaizkien oñatiar askori, koronabirusak eragindako sintomak baino "askoz larriagoak". Gaitza harrapatzen zuenak ez zuen bizpahiru egun baino gehiago irauten. "Pentsa, Oñatik zituen 5.000 biztanleetatik 1.300 inguru hil zituen gaixotasunak", dio. Are, izurriteak hil ez zituenak "gosez" hil zirela dio. Horren harira, Azpiazu gogora ekarri gura izan du medikuntzak asko egin duela aurrera, eta, garai hartan ez bezala, egun badagoela "egoki elikatzen" jarraitzeko modua.

Konfinamendua, baserrietan

Izurrite beltza "oso kutsagarria" zen heinean, gaixoak "urrun" izaten saiatzen ziren: "Beldurra zabaldu zen herrian, aberatsek herrigunetik kanpoko euren baserrietara ihes egiten zuten, baina gainerako herritarrek han gelditu behar izaten zuten, ez baitzituzten beste inon onartzen". Bere aburuz, aste hauetako konfinamenduarekin alderatu daiteke, hein batean, ohitura hori.

Izurrite hura izan zen Oñatik "inoiz" jasandako pasadizo lazgarriena. "Koronabirusa beharrezko neurriak hartuta garaituko dugu", dio, itxaropentsu.



Jose Antonio Azpiazu. GOIENA

ETXETIK PLAZARA

**SORTU ETA BIDALI ZURE
BIDEOAK HORIZONTALAN**

688 69 00 07



goiena
Zu hemen zaude.